

ONARPEN-ZERBITZUKO  
LANGILEAK GAITZEKO  
IKASTAROA  
EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOA

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

## AURKIBIDEA

### Sarrera

|                                      |   |
|--------------------------------------|---|
| ONARPEN-ZERBITZUKO LANGILEEN IZAERA. | 4 |
|--------------------------------------|---|

### 1. Unitatea

|                                                                                        |   |
|----------------------------------------------------------------------------------------|---|
| JENDAUURREKO IKUSKIZUNEI ETA JOLAS-JARDUEREI BURUZKO ARAUDIEN<br>OINARRIZKO ALDERDIAK. |   |
| Legearen aplikazio-esparrua. Definizioak. Printzipio gidariak.                         | 7 |

### 2. Unitatea

|                                                                                     |    |
|-------------------------------------------------------------------------------------|----|
| IKUSLEEN ETA ERABILTZAILEEN. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.<br>OINARRIZKO ESKUBIDEAK. | 13 |
|-------------------------------------------------------------------------------------|----|

### 3. Unitatea

|                                                                      |    |
|----------------------------------------------------------------------|----|
| SARRERA UKATZEKO ESKUBIDEA.                                          |    |
| Sarrera ukatzeko erreserba. Onartzeko eta bertan egoteko baldintzak. |    |
| Onartzeko berariazko baldintzak.                                     | 22 |

### 4. Unitatea

|                                         |    |
|-----------------------------------------|----|
| ONARPEN-ZERBITZUKO LANGILEEN FUNTZIOAK. | 28 |
|-----------------------------------------|----|

### 5. Unitatea

|                                                                                                                                                                     |    |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| ESTABLEZIMENDUETAKO SEGURTASUN-NEURRIAK ETA AUTOBABESARI<br>BURUZKO ARAUDIA.                                                                                        |    |
| Establezimenduen, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren baldintza<br>teknikoak. Autobabes-plana, aurreikus daitezkeen arriskuetaarako<br>baliabideak. Edukia. | 34 |

### 6. Unitatea

|                                                                                                                                                                |    |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| IXTEKO ORDUTEGIAK.                                                                                                                                             |    |
| Ordutegi orokorra. Ordutegi bereziak. Ordutegiak luzatzea. Nahitaezko<br>itxiera. Amaiera eta jendea kanporatzea. Lokalen kanpoaldean edariak<br>kontsumitzea. | 62 |

### 7. Unitatea

|                                                                            |    |
|----------------------------------------------------------------------------|----|
| ADINGABEEN ARAUBIDE JURIDIKOA.                                             |    |
| Sartzeko mugak eta debekuak. Salbuespenak. Adinaren arabera<br>saillapena. | 75 |

## 8. Unitatea

|                                                                                                                                                               |     |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| LEHEN LAGUNTZEN INGURUKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK<br>LEHEN LAGUNTZAK.POLITRAUMATISMOAK. ZAURI LARRIAK.<br>ODOLJARIO LARRIAK ETA SHOCKA.                         | 84  |
| OINARRIZKO BIHOTZ-BIRIKETAKO BIZKORTZEA. HELDUAK ETA<br>PEDIATRIA-ADINAK. KDA MANEIATZEA. GORPUTZ ARROTZ BATEK<br>ARNASBIDEA. BUXATU DUENEAN EGIN BEHARREKOA. | 85  |
| POLITRAUMATIZATUAREN PROTOKOLOA. LEHEN MAILAKO ETA<br>BIGARREN MAILAKO BALORAZIOA PAZIENTE TRAUMATIKOAN.                                                      | 102 |
| ZAURI LARRIEN SOROSPENA.                                                                                                                                      | 112 |
| ODOLJARIO ZARRIAK ETA SHOCKA.                                                                                                                                 | 120 |

## 9. Unitatea

|                                                                                                                         |     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| JENDEAREN AURREAN AGERTU BEHARREKO JARRERA ETA PORTAERA.<br>AUTOKONTROL EMOZIONALA.<br>GATAZKAK KONPONTZEA. AUTOBABESA. | 131 |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|

## Bibliografia

145

## Erantzunak

146

## SARRERA.

### Onarpen-zerbitzuko langileen izaera.

Jendaurreko ikuskizun publikoei eta jolas-jarduerei buruzko araudiaren helburu nagusia da ikuskizun eta jarduera horiek segurtasun, osasungarritasun, higiene eta irisgarritasun unibertsaleko baldintza egokietan egiten direla bermatzea. Baldintza horietan, ikuskizuna edo jolas-jarduera osorik eta behar bezala garatu ahal izango da, eta, nolanahi ere, joaten ez diren pertsonak atsedenerako duten eskubidea errespetatuko da. Ildo horretan, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak eta lege hori garatzen duen Erregelamenduak (otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren bidez onartu zenak) ikuskizunak edo jarduerak antolatzeari eta egiteari lotutako alderdi guztiak eta leku, esparru edo establezimendu publikoek izan behar dituzten ezaugarriak azpimarratzen dituzte.

Helburu hori lortzeko, araudiak ikuskizunari, jarduerari edo establezimenduari lotutako pertsonen eskubideak arautzen ditu, zuzenean parte hartzen dutenenak zein bestelakoak (antolatzaileak, ikusleak edo erabiltzaileak, artistak, interpretatzaileak, jotzaileak eta gainerako langileak, eta zuzenean lotuta ez dauden pertsonak, beren interesak eraginpean hartuta dauden neurrian).

Halaber, establezimendu publikoek zein ospakizun-lekuek bete beharreko betekizun eta baldintza teknikoak arautzen dira: seinaleztapena, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko baliabideak, ihes-bideak, klimatizazioa, higiene- eta osasun-zerbitzuak, irisgarritasun unibertsala eta abar.

Dena dela, baldintza material horiek, besterik gabe, ez dira nahikoak: beharrezkoak dira establezimendua edo ikuskizuna ezagutuko duten, ikuskizuna edo jarduera segurtasunez egin dadin lan egingo duten, bertaratuei ikuskizunaz bete-betean eta erosotasun-baldintza egokietan gozatzeko informazioa eta laguntza emango dieten eta larrialdi- edo ebakuazio-egoeretan lagunduko duten pertsonak. Hori dela eta, ospakizun-lekuek eta establezimendu publikoek beharrezko giza baliabideak izan beharko dituzte: onarpen-zerbitzuko langileak, segurtasun-zerbitzua, ebakuazio-laguntzaileak eta abar. Zerbitzu horiek beren funtzioak eta erantzukizunak ongi ezagutuko dituzten profesionalek bete beharko dituzte.

Halaber, larrialdi-kasuan jarraitu beharreko prozedurak, egoera horietan esku hartzen duten giza baliabideak eta baliabide materialak eta baliabide horien zereginak eta koordinazioa zehaztuko dituen autobabes-tresna bat izan beharko dute.

## Funtzioak eta eskatutako trebetasunak.

Otsailaren 5eko 17/2019 Erregelamenduan onarpen-zerbitzurako ezarritako funtzioen artean, honako hauek daude: sarbidea ez baimentzea (sarbidea ukatzeko eskubidea baliatuz, sarbidea oro har mugatzen den kasuetan, ordu-arrazoiengatik edota edukiera ez gainditzeko) eta ikuskizuna esparruaren edo establezimenduaren barruan egiten dela ziurtatzea (bide publikora edariekin irtetea debekatuta dagoela ohartaraztea, adibidez). Edonola ere, **ezin izango dituzte bete segurtasun pribatuko langileentzat ezarritako funtzioak** (jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Erregelamenduaren 62.2 artikulua). Era berean, jarduera edo ikuskizun batean ordena aldatzen den kasuan, langile horiek berehala **jakinarazi** beharko diete segurtasuneko zaintzaileei edo, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoei (63.3 artikulua).

Aurreikuspen bera egiten du Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekeo ekainaren 28ko 15/2012 Legeak ikuskizun eta jolas-jardueretako segurtasun-neurriei buruzko 65. artikuluan: “Sarrera emateko zerbitzuko langileek **ezingo dituzte bete, inola ere, segurtasun pribatuko langileentzat ezarritako eginkizunak**; segurtasun pribatuko langileek ere ezingo dituzte aldi berean bete beren eginkizunak eta sarrera emateko zerbitzuko langileei dagozkienak; dena dela, segurtasuneko zaintzaile moduan lan egiten ez dutenean, azken eginkizun horiek bete ahal izango dituzte”.

Estatuko araudiak ere aipatzen du funtzioen bereizketa hori: Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legeak berariaz salbuesten ditu bere aplikazio-esparrutik, oro har, atezainek eta gainerako antzeko langile laguntzaileek bete ohi dituzten funtzioak: informazioa eta sarbideen kontrola, ateak irekitzea eta ixtea, pertsonen eta ibilgailuen sartzen laguntzea, laguntza- edo sorospen-zeregin lagungarriak edo mendekoak, bisitariak egiaztatu eta orientatzea eta abar. Lege horrek ezartzen duenez, funtzio horiek betetzen dituzten langileek ezin izango dute bete, inola ere, segurtasun pribatuko langileei dagokien ezein funtzio, ezin izango dute eraman eta erabili armarik eta defentsa-baliabiderik, eta ezin izango dituzte erabili langile horientzat aurreikusitakoekin nahasteko moduko bereizgarri, uniforme edo baliabiderik.

Nabari denez, bete beharreko funtzio bakoitza deskribatzeko eta funtzio horiek trebetasun eta ezagutza egokiak dituzten profesionalen ardurapean jartzeko ahalegina egiten du araudiak, eta argi eta garbi bereizten ditu segurtasuneko zaintzailearen figura eta bertaratuei informazioa eta orientazioa ematen dieten langileena. Onarpen-zerbitzuko langile gisa gaitzeari buruzko ikastaroaren unitate didaktikoetako edukiak berariazko funtzio horiek kontuan hartuta landu dira.

Illo horretan, unitate didaktikoen atal nagusia ikuskizunen eta jolas-jardueren araudian ezarritako aurreikuspenei eta betekizunei buruzkoa da. Oso garrantzitsua da profesionalak bere jarduera oinarrituko eta bere jarduketaren zatirik handiena

zuzenduko duen lege-euskarria ezagutzea: ikusleen eskubideak eta betebeharrak, sarrera ukatzeko eskubidea eta sarrera emateko baldintza objektiboak, establezimenduen baldintza teknikoak, itxiera-ordutegiak, adingabeen araubide juridikoa eta abar.

Ezinbestekoa da, halaber, lokalei, ikuskizunei eta jardueri lotutako autobabes-neurriak ezagutzea, larrialdi-kasuan nola jokatu behar den eta gorabeheraren bat gertatuz gero larrialdi horri bere funtzioen esparruan aurre egiteko zer zeregin bete behar duen jakin dezan.

Baina asmoa ez da, inola ere, sarrerako langileek lokalaren ebakuazioa zuzentzea, osasun-arloko langileen funtzioak beren gain hartzea edota gertatzen diren istiluak konpontzea, hau da, beste zerbitzu batzuen eskumenak eta erantzukizunak beren gain hartzea. Aitzitik, langile horiek pertsona asko biltzen dituen ikuskizun edo lokal batek zer arrisku dituen jakitea, larrialdi bati aurrea hartzeko eta, hala badagokio, erantzuna emateko dauden sistemak ezagutzea eta berariazko zerbitzuak (osasun-zerbitzuak edo segurtasun-zerbitzuak) iritsi arte pertsonekin jokatzeko oinarritzko jarraibide batzuk izatea da asmoa. Arauan adierazten denez, onarpen-zerbitzuko langileek ikuskizuna edo jarduera behar bezala egiteko laguntza ematen dute, jendea bertan behar bezala sartzeaz eta egoteaz arduratzen dira, edukiera kontrolatzen dute eta, beharrezkoa izanez gero, jende gehiago sartzea eragozten dute.

Jendearekiko zuzeneko harreman hori dela eta, beharrezkoa da jendearekin jokatzeko eta erreakzionatzeko moduari buruzko gutxieneko ezagutza eskuratzea, gatazkak sortzen diren kasuetan, larrialdi-egoeretan eta pertsonen osotasunerako arriskutsuak diren egoeretan jarduteko. Horretarako, unitate didaktiko praktikoago batzuk ere planteatu dira: lehen laguntzak, autokontrola eta, premia biziko kasuetan, defentsa pertsonala. Hori kontuan hartuta, modulu honetan autokontrolari, gizarte-trebetasunei, gatazkak konpontzeari eta asertibitateari buruzko nozio orokorrak baino ez dira barnean hartzen. Hau da, ez da aurreikusten onarpen-zerbitzuko langileek beren funtzioak betetzean establezimendu edo ospakizun-leku baterako sarbideetan ager daitezkeen egoera guztiak konpondu behar dituztenik”.

Esku-hartze hertsatzailea behar duten egoerak agertzen badira, langileak segurtasun-zerbitzuei edo, hala badagokio, ordena publikoko indarrei eman beharko die horien berri.

Lehen laguntzei, autokontrolari eta defentsa pertsonalari lotutako edukiaren xedea ez da ikasleei muturreko egoerak arrakastaz konpontzeko tresnak ematea, jarduteko oinarritzko jarraibide batzuk izatea baizik, hala nola zauritu bati osasun-arloko langileak iritsi arte laguntzeko edota gatazka kudeatzeko (liskarra edo eraso fisikoa segurtasun pribatuko zerbitzuak edo polizia iritsi arte txikiagotu edo saihestu ahal izan dadin).

# 01

## JENDAURREKO IKUSKIZUNEI ETA JOLAS-JARDUEREI BURUZKO ARAUDIEN OINARRIZKO ALDERDIAK.

Legearen aplikazio-esparrua.

Definizioak.

Printzipio gidariak.



## 1. UNITATEA.

### JENDAURREKO IKUSKIZUNEI ETA JOLAS-JARDUEREI BURUZKO ARAUDIEN OINARRIZKO ALDERDIAK. Legearen aplikazio-esparrua. Definizioak. Printzipio gidariak.

Ikuskizunak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusiboa dira, eta, horri jarraikiz, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legea onartu zen. Ikuskizunei buruzko aurreko legea 1995ekoa da, hau da, 20 urte lehenagokoa. Harrez geroztik gertatutako aldaketen ondorioz, 2015eko lege berria onartu behar izan zen. Lege hori ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzen dituzten pertsonen, ikusleen edo erabiltzaileen eta jardueran parte hartzen ez duten eta atsedenerako eta bizikidetza normalizatu baterako eskubidea duten pertsonen sentsibiltate, eskubide eta betebeharren arteko oreka aurkitzeko asmoz sortu zen. Zehazkiago, legeak honako parametro hauei jarraitzen die:

- **Askatasun-printzipioaren eta segurtasun- eta bizikidetza-printzipioaren arteko oreka.** Herritarrek aske dira aisialdiko moduak eta dibertitzeko moduak aukeratzeko, eta ikuskizunen promotoreek askatasuna dute hainbat motatako ekitaldi-zerrenda zabala eskaintzeko, muga bakarrarekin: segurtasun, bizikidetza eta pertsonen eskubideekiko errespetuzko arrazoiengatik interes orokorrak ezartzen dituen lege-betebeharrak errespetatzea. Arrazoi horiek justifikatzen dituzte alde batetik askatasuna eta bestetik ikusle edo erabiltzaileen segurtasunerako eskubidea, herritarren arteko bizikidetza eta hirugarrenen eskubideak bateragarri egiteko lege-neurriak.
- **Herritarrei ematea protagonismoa.** Alde batetik, ziurtatu behar da arautzeak ez dituela inondik inora **murritzten** ikuskizunetan eta jolas-jardueretan gauzatzen diren **adierazpen-askatasuna eta arte-kreaziorako askatasuna**, eta ez dituela mugatzen biltzeko eta manifestatzeko eskubideak. Gainera, erabiltzaile edo ikusleen eskubide eta betebeharren karta finkatzen delako, alde batera utzi gabe kontsumoari buruzko araudi orokorraren arabera erabiltzaile eta ikusleek izan ditzaketen beste eskubide batzuk. Eta, azkenik, herritarren parte-hartze aktibo eskuzabala sustatzen duelako jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren arloko boluntario-lanetan.
- Establezimendu eta leku publikoetako **segurtasun-estandar teknikoak indartzea**; aldi berean, zailtasun edo desgaitasunen bat duten pertsonen **mugigarritasuna eta irisgarritasuna** bermatzea.



## Legearen aplikazio-esparrua:

**Euskal Autonomia Erkidegoan** garatzen diren **jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzea**, eta ezartzea **zein baldintza eta betekizun izan behar dituzten** ikuskizun edo jarduerok eskaintzen dituzten leku irekiek eta establezimendu publikoek, berdin izanik haien titular edo antolatzaileak erakunde publikoak edo pertsona fisikoak edo juridiko pribatuak diren, irabazteko asmorik duten ala ez, edo jarduera edo ikuskizunak instalazio finko, eramangarrietan edo desmontagarrietan eta etengabe edo aldi baterako antolatzen diren.

## Legearen definizioak:

- Jendaurreko ikuskizunak: arte, kultura, kirol edo antzekoekin zerikusia duen errepresentazio, erakusketa, jarduera, distrakzio edo proiektzioetan jendea biltzen duen gertakari oro, antolatzaileek eskaintzen dutena edo antolatzaileek eskatuta artista, kirolari nahiz jotzaileek eskaintzen dutena lokal itxi edo ireki batean nahiz aire zabaleko edota bide publikoko esparruren batean edota instalazio finko, eramangarri edo desmontagarrietan.
- Jolas-jarduerak: parte hartzeko asmoz edo antolatzaileek eskainitako zerbitzuak jasotzeko asmoz jendea biltzen duten jarduerak, aisiarekin, denbora-pasarekin edo dibertsioarekin lotuak.
- Establezimendu publikoak: jendearentzat irekitako edozein eraikin, lokal, esparru edo instalazio, ikuskizunak eskaintzeko edo jolas-jarduerak egiteko erabiltzen dena.
- Leku irekiak: gunek, toki edo bide publikoak, jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak gauzatzeko erabiltzen direnak, baina horretarako ez dutenak ez azpiegitura ez instalazio finkorik.
- Establezimendu publikoaren titularrak: lege honek aipatzen dituen establezimendu publikoak ustiatzen dituzten pertsonak, fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazteko asmoarekin edo asmorik gabe.
- Artistak, interpretatzaileak edo jotzaileak: ikuskizunean edo jolas-jardueran parte hartzen duten edo hura publikoari aurkezten dioten pertsonak, helburua jolasa edo entretenimendua izanik, eta parte-hartze hura ordaindua den edo ez gorabehera.
- Jendearentzat irekitako establezimendu araubide berezikoak: haien ordutegi berezia eta bestelako baldintza bereziak direla eta, erregelamenduz ezarri behar direnak, herritarren bizikidetzari, segurtasunari edo osasunari biziago eragin diezaieketen establezimenduak dira.

- Instalazioak: egitura higigarri iraunkor edo behin-behinekoak, eramangarri edo finkoak, jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egiteko egokiak.

## Printzipio gidariak

- a) Ikuskizun eta jolas-jardueretako ikusle, parte-hartzaile eta erabiltzaileen bizikidetzak baketsua eta ordenatua.
- b) Pertsonen eskubideak errespetatzea eta hirugarrenei bermatzea garatzeko eta bizikidetzak normalizatua izateko eskubidea.
- c) Establezimendu publikoetako, jendaurreko ikuskizunetako edo jolas-jardueretako ikusle, erabiltzaile edo langileen segurtasuna eta osasuna.
- d) Ekipamenduen, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren kalitatea, erosotasuna eta ingurumen-jasangarritasuna.
- e) Bermatzea betetzen direla irisgarritasunari, gizon eta emakumeen berdintasunari eta hizkuntza-eskubideei buruzko araudian jasotzen diren lege-betebeharrak.
- f) Ikuskizunetan eta jolas-jardueretan parte hartzen duten animaliak eta haien ongizatea babesteko baldintzak bermatzea.

## 1. Unitatea. GALDERAK.

### 1. Establezimendu publikoko titularrak dira:

- a. Establezimendu publikoak edo jolas-jarduerak irabazi-asmoarekin zein asmo hori gabe egiten edo sustatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak.
- b. Ikuskizunean edo jolas-jardueran parte hartzen duten edo hura jendeari aurkezten dioten pertsonak, helburua jolasa edo entretenimendua izanik, parte-hartzea ordaindua den edo ez kontuan hartu gabe.
- c. Lege honetan adierazitako establezimendu publikoak irabazi-asmoarekin zein asmo hori gabe ustiatzen dituzten pertsona juridikoak.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

### 2. Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Euskal Legearen xedea da:

- a. Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean garatzen diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzea.
- b. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako lurraldean garatzen diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzea.
- c. Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean garatzen diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzea, musikakoak izan ezik.
- d. Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean garatzen diren jendaurreko ikuskizunak eta joko-jarduerak arautzea.

### 3. Jolas-jarduerak dira:

- a. Parte hartzeko edota antolatzaile batek eskainitako zerbitzuak jasotzeko asmoz jendea biltzen duten jarduerak, aisiarekin, denbora-pasarekin edo dibertsioarekin lotuak.
- b. Parte hartzeko edota antolatzaile batek eskainitako zerbitzuak jasotzeko asmoz gehienez ere 500 pertsona biltzen dituzten jarduerak, aisiarekin, denbora-pasarekin edo dibertsioarekin lotuak.
- c. Jendaurreko ikuskizuna: antolatzaileek edota haien kontura esku hartzen duten artistek, kirolariek edo jotzaileek eskaintzen duten arte-, kultura- edo kirol-izaerako edo beste antzeko izaerako emanaldi, erakustaldi, jarduera, distrakzio edo proiektzio bat ikusteko asmoz bertaratutako jendea biltzen duen eta lokal itxi edo ireki batean, aire zabaleko esparruetan zein bide publikoan eta instalazio finko, eramangarri zein desmontagarrietan egiten den gertaera oro.
- d. Parte hartzeko edota antolatzaile batek eskainitako zerbitzuak jasotzeko asmoz jendea biltzen duten jarduerak, helburu politikoekin edo erlijio-helburuekin lotuak.

#### **4. Artistak, interpretatzaileak edo jotzaileak dira:**

- a. Ikuskizunean edo jolas-jardueran parte hartzen duten edo hura publikoari aurkezten dioten pertsonak, helburua jolasa edo entretenimendua izanik, eta parte-hartzea ordaindua den edo ez gorabehera.
- b. Normalean ikuskizunean edo jolas-jardueran ikuslerik gabe parte hartzen duten edo hura jenderik gabe aurkezten duten pertsonak.
- c. Emanaldiak jendeari aurkezten dizkioten pertsonak, helburua jolasa edo entretenimendua izanik, parte-hartzea ordaindua den edo ez kontuan hartu gabe.
- d. Lege honetan adierazitako establezimendu publikoak irabazi-asmoarekin zein asmo hori gabe ustiatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak.

#### **5. Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legearen aplikazio-esparrutik kanpo daude:**

- a. Ospakizun familiar eta sozial erabat pribatuak, jende guztiarentzat ez direnak.
- b. Biltzeko eta manifestatzeko eskubidea baliatuz egiten diren jarduerak.
- c. Erlijio-ospakizunak.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

#### **6. Indarrean dagoen jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Euskal Legea:**

- a. 2015. urtekoa da.
- b. 1995. urtekoa da.
- c. 2010. urtekoa da.
- d. 2012. urtekoa da.

#### **7. Legearen printzipio gidari bat da ekipamenduen, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren kalitatea, erosotasuna eta ingurumen-jasangarritasuna.**

- a. Egia
- b. Gezurra

#### **8. Legearen printzipio gidari bat da ikuskizun eta jolas-jardueretako ikusle, parte-hartzaile eta erabiltzaileen bizikidetza baketsua eta ordenatua.**

- a. Egia
- b. Gezurra

# 02

IKUSLEEN ETA ERABILTZAILEEN  
ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.  
OINARRIZKO ESKUBIDEAK.



## 2. UNITATEA

### IKUSLEEN ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK. OINARRIZKO ESKUBIDEAK

Ikusleen eta erabiltzaileen eskubideak abenduaren 23ko 10/2015 Legean jasota daude, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzko araudian aitortutakoei gaineratzen zaizkie.

Araudian, gainera, jarduerarekin inolako loturarik ez duten baina haren eragina jasotzen duten pertsonak hartzen dira kontuan (hala nola jarduerak berak edo bertaratuek sortutako zarategatik, ingurunearen gaineko kalteengatik eta jende- eta trafiko-pilaketengatik).

Antolatzaileek eta establezimendu publikoetako titularrek, halaber, eskubideak dituzte, eta enpresa-askatasunean kokatuta eta jarduera aurreikusitako baldintzetan egitera eta errentagarritasun ekonomikoa babestera zuzenduta daude.

#### **8. artikulua.- Ikusle eta erabiltzaileen eskubideak.**

*Kontsumitzaile eta erabiltzaileak defendatzeko araudiak aitortzen dizkien eskubideez gainera, honako eskubide hauek izango dituzte ikuskizunen eta jolas-jardueren ikusleek eta erabiltzaileek nahiz establezimendu publikoetako bezeroek:*

- a) Establezimenduan edo jendearentzat irekitako lekuan **onartua izateko** eskubidea, bertara doazen pertsona guztien baldintza objektibo beretan, enpresak sarrera ukatzeko erreserban ezarrita dituen mugen arabera. Dena den, gerta liteke ezin sartzea edukieragatik edo sarrera ukatzeko beste arrazoiren batengatik, zerikusia duelako segurtasunarekin edo ordena publikoa nahastearekin.*
- b) **Ikuskizuna ikusteko eskubidea edo jolas-jardueran parte hartzekoa**; horiek guztiak, gainera, osorik eta enpresak iragarritako moduan eta baldintzetan garatzeko eskubidea.*
- c) **Zerbitzu orokorrak erabiltzeko eskubidea**, enpresak jarraibide eta arau partikularretan ezarritako moduan eta muga berekin.*
- d) Iragarritako ikuskizuna edo jolas-jarduera funtsean aldatu edo bertan behera geratuz gero, **ordaindutako kopuruak berreskuratzeko** eskubidea, kalterik egin gabe ikuskizun edo jolas-jarduera bakoitzari aplikatu beharreko araudian aurreikusitakoari.*
- e) Jardueraren antolatzaileek **erreklamazio-orriak** emateko eskubidea, egoki iritzitako erreklamazioak jasotzeko orri horietan.*
- f) **Errespetuzko tratua** jasotzeko eskubidea: **ez arbitrarioa, ez diskriminatzailea**.*

g) Ikuskizun eta jolas-jarduerei buruz egiten den **publizitatea egiazkotasun- eta nahikotasun-printzipioen** arabera izateko eskubidea, eta publizitate horrek okerreko iritzirik edo iruzurra eragin dezakeen informaziorik ez izateko eskubidea.

#### **10. artikulua.– Jarduerekin zerikusirik ez duten beste pertsona batzuen eskubideak.**

1.– Inork bere eskubide eta berezko interesak kalteturik ikusten baditu ikuskizun eta jolas-jardueren ondorioz edota jendearentzat irekitako establezimenduen funtzionamenduaren ondorioz, honako eskubide hauek izango ditu:

a) Lege honetan aipatzen diren lizentziak emateko **prozeduretan interesdun** gisa agertzeko eskubidea.

b) Establezimenduek edo jendearentzat irekita dauden lekuek sortzen dituzten eta auzokideen elkarbizitzari eta deskantsuari eragiten dieten **eragozpenak salatze**ko eskubidea. Kasu horietan, eskubidea dute administrazio eskudunak probak egiteko, erabili beharreko baliabide teknikoak erabiliz, egiaztatze aldera ea salatutako eragozpen horiek benetakoak diren ala ez, eta eskubidea dute agintaritza eskudunek jokatzeko lortutako emaitzen arabera, eragozpenak, hala badagokio, saiheste aldera.

c) Establezimendu publikoen edo jolas-jardueren ezaugarriei buruzko informazioa eta jarduerarekin zerikusia ez duten pertsonen interes legitimoa sustengatu edo haientzat garrantzitsu izan daitekeen bestelako **informazioa izateko** eskubidea.

2.– Etxebizitzaren baten barruan entzuten diren zaratek eraginez gero aurreko paragrafoan aipatzen diren salaketak, salatzailiek baimena eman beharko diete Administrazioko ikuskatzaile eta teknikariei etxe barruan sartzeko, etxera sartu behar bada espedientea irekitzeko. Sartzeko baimenik eman ezean, jardunbideak artxibatuko dira.

#### **11. artikulua.– Titular eta antolatzaileen eskubideak.**

Enpresa-askatasunaren eskubidearen esparruan, honako eskubide hauek dituzte titularrek eta antolatzaileek:

a) Jendaurreko **ikuskizuna** edo jolas-jarduera **egiteko**, aplikatu beharreko araudian aurreikusitakoaren arabera eta, hala badagokio, baimenaren edo aldez aurreko jakinarazpenaren arabera.

b) Egoki iritzitako **neurriak hartzeko**, jendearentzat irekitako establezimenduak, ikuskizunak edo jarduerak segurtasunez eta kalitatez **funtzionatuko duela bermatzeko**.

c) Egokitzen jotzen dituzten **prezioak** jartzeko.

Ikusleek eta erabiltzaileek, eskubideak ez ezik, betebeharrak ere badituzte, eta haiek ere legean jasota daude. Betebehar horien artean, titularrak edo antolatzaileak ikuskizuna edo jarduera egiteko ezarritako baldintzak betetzeko, gainerako erabiltzaile, langile eta artistekin errespetuz jokatzeko eta, oro har, jardueran parte hartzen dutenekin zein jarduerarekin zerikusirik ez dutenekin gatazkak edo eragozpenak saihestuko dituen jarrera bat agertzeko betebeharrak daude.

### **9. artikulua.- Ikusle eta erabiltzaileen betebeharrak.**

*Honako betebehar hauek izango dituzte ikuskizun eta jolas-jardueren ikusleek edo ekitaldi horietara joaten direnek eta establezimendu publikoetako bezeroek:*

- a) Antolatzaileak **jendea sartzeko eta onartzeko** ezartzen dituen **betekizunak edo arauak** betetzea, betiere legeak finkatutako muga barruan.*
- b) **Dagokien eserlekua hartzea edo**, kasu bakoitzean, **ikusle, bezero edo erabiltzaileentzat adierazten diren guneetan egotea**; ez sartzeko beste xede batzuetako guneetan, eta ez oztopatzea ebakuazio-bide edo -ibilbideak.*
- c) Enpresak ikuskizuna edo jarduera garatzeko ezartzen dituen **jarraibide edo arau partikularrak** betetzea.*
- d) Iragarritako programa, ikuskizuna edo jarduera **bere horretan errespetatzea**, eta aldaketarik ez exijitzea.*
- e) **Ez sartzeko agertokira edo artista edo jotzaileen eremura**, salbu ikuskizunean aurreikusita dagoenean parte hartzeko aukera egongo dela.*
- f) Errespetatzea ikuskizun eta jolas-jardueretako establezimenduetan **erretzeko debekua**, horri buruz indarrean den araudian aurreikusitako baldintzetan.*
- g) **Saihestea** gainontzeko ikusleentzat edo enpresako langileentzat arriskutsua edo deserosoa izan daitekeen ezer egitea, edo ikuskizun edo jarduera burutzea eragotz dezakeen ezer egitea.*
- h) Ez eramatea inolako armarik edota indarkeria eragiteko erabil daitekeen bestelako objekturik; ez erakustea oinarritzko eskubideen kontrako ekintzarik sustatzen duen **sinbolo, jantzi edo gauzarik** eta, bereziki, arrazakeria, xenofobia edo bazterkeria sustatzen duen ezer.*
- i) **Errespetatzea** jendearentzat irekitako establezimenduetan, jendaurreko ikuskizunetan nahiz jolas-jardueretan diharduten **artista, interpretatzaile edo jotzaileak nahiz gainerako langileak**.*
- j) Errespetatzea ikuskizuna edo jarduera **hasi eta amaitzeko orduak**.*



k) Establezimenduan **sartzean edo bertatik irtetean, gizalegez jokatzeari herritarren elkarbizitza** eta jarduerarekin zerikusirik ez daukaten pertsonen **deskantsurako eskubidea bermatzeko**, baita haien arteko bizikidetzaren normalizazioa ere.

l) **Betetzea** ezarritako **segurtasun-neurriak** eta baita jardueraren antolatzaileek jarritako **autobabeserako neurriak implementa daitezen** laguntzea ere.

Betebehar horiek ez betetzeak zehapen administratiboa eragin ahal izango du. Ildo horretan, 10/2015 Legeak arau-hauste arintzat hartzen du berariaz ikusleek eta erabiltzaileek 9. artikuluan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea, betiere beste arau-hauste motaren bat ez bada.

Titularrek eta antolatzaileek ikuskizuna edo jarduera egitearen ondoriozko betebeharrak ere badituzte. Segurtasunari, osasungarritasunari eta zarataren kontrolari lotutako betebeharrak dira.

## **12. artikulua.– Titular eta antolatzaileen betebeharrak.**

1.– **Titular eta antolatzaileek beren gain hartuko dute** ikuskizuna edo jarduera burutzearen ondoriozko erantzukizuna, eta kalteengatik erantzun beharko dute beren zabarkeria edo aurreikuspen faltagatik ezer gertatuz gero.

2.– Aurreko paragrafoan ezartzen den agindua hobeto betetzeko, honako **betebehar** hauek izango ditu titular edo antolatzaileak:

a) **Segurtasun- eta osasungarritasun-arloko neurri** guztiak hartzea, baita **zaratak** neurtzeko oro har ezartzen direnak edo dagozkien lizentzia edo baimenetan berariaz ezartzen direnak ere.

b) Jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerarik eginez gero, **saihestea** eragozpenik sortzea edo zaratarik egitea establezimendu publikoetatik kanpo edo horien instalazio osagarrietatik kanpo.

c) **Funtzionatzeko egoera ezin hobean** mantentzea beti establezimendu eta instalazioak, eta indarrean den araudiaren arabera egin beharreko egiaztapenak egitea.

d) Agintaritzaren eskudunek erabakitako **ikuskapen-lanak egiten uztea eta lanak egiten laguntzea**.

e) Ikuskatze-zerbitzuei eskuratzea establezimenduaren titulartasunari buruzko **gaikuntza-agiri** guztiak.

f) Jendeari iragarritako **ikuskizun eta jolas-jarduerak beren horretan mantentzea eta eskaintzea**, salbu **halabeharrez** edo ustekabez ezinezkoa den kasuetan. Dena den, ikuskizun edo jolas-jarduera bakoitzean aplikatu beharreko araudiak aurreikusten duena bete beharko da.

- g) **Jendeari sartzen uztea**, salbu legez edo erregelamenduz zehazten diren kasuetan.
- h) Bertaratzen direnak **errespetuz eta begirunez** hartzea.
- i) **Ez baimentzea, ezta toleratzea ere**, lege honek aurreikusitako **arau-hausterik egitea**, ez ikuskizun edo jardueran parte hartzen dutenei, ez menpean dituztenei, ezta ikusle edo erabiltzaileei ere.
- j) **Autobabeserako** neurriak eta lokala bera eta bertako jendea **ebakuatzeko** neurriak hartu eta aplikatzea, indarrean den arautegiak ezartzen dizkien eginkizun eta erantzukizunez baliatuz.
- k) Aplikatu beharreko araudian jasotzen den moduan **erantzutea** dena delako ikuskizuna edo jolas-jarduera antolatu eta burutzearen ondorioz sortutako **kalte-galerengatik**.
- l) Lizentzia eta baimen edo bestelako gaikuntza-tituluen titularren identitatea eta helbidea **aldatuz** gero, **horren berri ematea administrazio** eskudunei erregelamendu bidez ezartzen den epean.
- m) **Irisgarritasun unibertsalari buruz indarrean dagoen araudian** aurreikusitako baldintzetara egokitzea establezimendu publiko, ikuskizun eta jolas-jarduerak.
- n) **Segurtasun- edo zaintza-zerbitzuak** edukitzea lege honetan ezarritakoari jarraikiz nahitaezkoa denean.
- ñ) Errespetatzea **gizon eta emakumeen berdintasunari** buruzko araudian aurreikusten diren betebeharrak.
- o) **Erreklamazio-orriak** jartzea erabiltzaileen esku, erregelamendu bidez ezartzen diren betekizunekin.
- p) Betetzea kontsumitzaile eta erabiltzaileen **hezkuntza-eskubideei** buruzko araudian ezarritako betebeharrak.
- q) **Lege honek** eta arlo honetan aplikatu beharreko **gainerako araudiak ezartzen dituen betebeharrak** guztiak betetzea.

3.– Titularrek eta antolatzaileek bete beharko dituzte **osasunari eta lan-segurtasunari** buruzko legeriak ezartzen dituen betekizunak **artista, interpretatzaile, jotzaile eta haientzat lan egiten duten gainerako langileekiko**. Orobat, ziurtatuko du parte hartzen duten boluntarioen kudeaketa zuzena.

## 2. Unitatea. GALDERAK.

### 1. Ikusleen eta erabiltzaileen eskubidea da:

- a. Ikuskizuna ikustea edo jolas-jardueran parte hartzea, eta horiek, gainera, osorik eta enpresak iragarritako moduan eta baldintzetan jasotzea.
- b. Dagokien eserlekua hartzea edo, kasu bakoitzean, ikusle, bezero edo erabiltzaileentzat adierazten diren guneeetan egotea; ez sartzea beste xede batzuetako guneeetan, eta ez oztopatzea ebakuazio-bide edo -ibilbideak.
- c. Lege honetan ezarritako lizentziak emateko prozeduretan interesdun gisa agertzea.
- d. Agintaritza eskudunek erabakitako ikuskapen-lanak egiten uztea eta lanak egiten laguntzea.

### 2. Ikusleen eta erabiltzaileen betebeharra da:

- a. Antolatzaileak jendea sartzeko eta onartzeko ezartzen dituen betekizunak edo arauak betetzea, betiere legeak finkatutako mugen barruan.
- b. Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera egitea, aplikatu beharreko araudian eta, hala badagokio, baimenean edo alde aurreko jakinarazpenean aurreikusitakoaren arabera.
- c. Jendaurreko ikuskizunik edo jolas-jarduerarik eginez gero, saihestea eragozpenik sortzea edo zaratarik egitea establezimendu publikoetatik kanpo edo horien instalazio osagarrietatik kanpo.
- d. Gizon eta emakumeen berdintasunari buruzko araudian aurreikusten diren betebeharrak errespetatzea.

### 3. Jarduerekin zerikusirik ez duten beste pertsona batzuen eskubidea da:

- a. Establezimendu publikoen edo jolas-jardueren ezaugarriei buruzko informazioa eta jarduerarekin zerikusia ez duten pertsonen interes legitimoa sostengatu dezakeen edo haientzat garrantzitsua izan daitekeen bestelako informazioa izatea.
- b. Jendaurreko ikuskizunik edo jolas-jarduerarik eginez gero, saihestea eragozpenik sortzea edo zaratarik egitea establezimendu publikoetatik kanpo edo horien instalazio osagarrietatik kanpo.
- c. Jardueraren antolatzaileek erreklamazio-orriak emateko eskubidea, egoki iritzitako erreklamazioak jasotzeko orri horietan.
- d. Iragarritako programa, ikuskizuna edo jarduera bere horretan errespetatzea, eta aldaketarik ez exijitzea.

#### 4. Titularren eta antolatzaileen eskubidea da:

- a. Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera egitea, aplikatu beharreko araudian eta, hala badagokio, baimenean edo alde aurreko jakinarazpenean aurreikusitakoaren arabera.
- b. Segurtasun- eta osasungarritasun-arloko neurri guztiak hartzea, baita zaratak neurtzeko oro har ezartzen direnak edo dagozkien lizentzia edo baimenetan berariaz ezartzen direnak ere.
- c. Autobabeserako neurriak eta lokala bera eta bertako jendea ebakutzeko neurriak hartu eta aplikatzea, indarrean dagoen araudiak ezartzen dizkien funtzioak eta erantzukizunak baliatuz.
- d. Ikuskizun eta jolas-jarduerei buruz egiten den publizitatea egiazkotasun- eta nahikotasun-printzipioen arabera izatea, eta publizitate horrek okerreko iritzia edo iruzurra eragin ditzakeen informaziorik ez izatea.

#### 5. Titularren eta antolatzaileen eskubidea da:

- a. Egoki iritzitako neurriak hartzea, jendearentzat irekitako establezimenduak, ikuskizunak edo jarduerak segurtasunez eta kalitatez funtzionatuko duela bermatzeko.
- b. Ez baimentzea, ezta toleratzea ere, lege honek aurreikusitako arau-hausterik egitea, ez ikuskizun edo jardueran parte hartzen dutenei, ez menpean dituztenei, ezta ikusle edo erabiltzaileei ere.
- c. Iragarritako programa, ikuskizuna edo jarduera bere horretan errespetatzea, eta aldaketarik ez exijitzea.
- d. Enpresak ikuskizuna edo jarduera garatzeko ezartzen dituen jarraibide edo arau partikularrak betetzea.

#### 6. Establezimenduan edo jendearentzat irekitako lekuan onartua izateko eskubidea, bertara doazen pertsona guztien baldintza objektibo beretan, enpresak sarrera ukatzeko erreserban ezarrita dituen mugen arabera (dena den, gerta liteke ezin sartzea edukieragatik edo sarrera ukatzeko beste arrazoren batengatik, zerikusia duelako segurtasunarekin edo ordena publikoa nahastearekin):

- a. Ikusleen eta erabiltzaileen eskubidea da.
- b. Titularren eta antolatzaileen eskubidea da.
- c. Jarduerekin zerikusirik ez duten beste pertsona batzuen eskubidea da.
- d. Titularren eta antolatzaileen betebeharra da.

**7. Ikusleek eta erabiltzaileek eskubidea dute ikuskizun eta jolas-jarduerei buruz egiten den publizitatea egiazkotasun- eta nahikotasun-printzipioen arabera izateko eta publizitate horrek okerreko iritziak edo iruzurra eragin ditzakeen informaziorik ez izateko.**

- a. Egia
- b. Gezurra

**8. Ikusle eta erabiltzaileek eskubidea dute zerbitzu orokorrak enpresak jarraibide eta arau partikularretan ezarritako moduan eta muga berekin erabiltzeko.**

- a. Egia
- b. Gezurra

**9. Ikusle eta erabiltzaileen betebeharra da gainontzeko ikusleentzat edo enpresako langileentzat arriskutsua edo deserosoa izan daitekeen ezer ez egitea, edo ikuskizuna edo jarduera burutzea eragotz dezakeen ezer ez egitea.**

- a. Egia
- b. Gezurra

**10. Ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileek eta establezimenduen titularrek eskubidea dute ikuskizun eta jolas-jarduerei buruz egiten den publizitatea egiazkotasun- eta nahikotasun-printzipioen arabera izateko eta publizitate horrek okerreko iritziak edo iruzurra eragin ditzakeen informaziorik ez izateko.**

- a. Egia
- b. Gezurra

# 03

**SARRERA UKATZEKO ESKUBIDEA.**  
Sarrera ukatzeko erreserba.  
Onartzeko eta bertan egoteko baldintzak.  
Onartzeko berariazko baldintzak.



### 3. UNITATEA

#### SARRERA ONARTZEKO EDO UKATZEKO ESKUBIDEA. Sartzea eta bertan egotea onartzeko baldintzak. Baldintza orokorrak. Baldintza espezifikoak.

10/2015 Legeak zehazten du “sarrera ukatzeko erreserba” kontzeptua, haren mugak eta zer betebeharrak dituen establezimenduaren titularrak edo ikuskizunaren antolatzaileak sarrera ukatzeko eskubidearen inguruan.

**Sarrera ukatzeko erreserba** da establezimendu publikoen titularren edo ikuskizun eta jolas-jardueren antolatzaileen ahalmena **jendea onartzeko eta bertan egoteko baldintza espezifikoak** ezartzeko.

Legea GARATZEKO, erregelamenduak jendea onartzeko **baldintza orokorrak** zehazten eta zabaltzen ditu. Horri jarraikiz, titularrek eta antolatzaileek **sartzeko eta egoteko aukera eragotzi beharko dute honako kasu hauetan (50. artikulua):**

- a) *Edukiera beteta badago.*
- b) *Irekitzeko ordua baino lehen edo ixteko ordua igaro eta gero.*
- c) *Zehaztutako gutxienerako adina ez badu, indarrean dauden arauen arabera.*
- d) **Sarrerarik, abonamendurik** edo sartzeko beharrezkoa den bestelako titulurik ez badu.
- e) **Arma** edo arma bezala erabiltzeko **moduko objektuak** badaramatza, non eta ez diren Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideak, bizkartzain pribatuak beren egitekoetan, edo une bakoitzean aplikatzeko den araudi espezifikoan zehaztutakoari jarraikiz horiek eramateko baimenduta dauden pertsonak.
- f) *Modu erasokorrean portatzen badira edo jokaera bortitzak azaltzen badituzte, ikusle edo erabiltzaileei enbarazu egin diezaieketenak edo ikuskizuna edo jardueraren bilakaera normala eragozten dutenak.*
- g) *Indarkeria edo gorrotoa sustatzen duten **ikurrak, jantziak edo objektuak** badaramatzate, edo oinarritzko eskubideen kontrako jardueren apologia adierazten dutenak, bereziki, arrazakeria, xenofobia edo sexuagatik, orientazio sexualagatik, genero-identitateagatik edo bestelako edozein kondizio edo inguruabar sozial edo pertsonalengatik diskriminatzea sustatzen badute.*

10/2015 Legeak, jendea onartzeko baldintza orokorrekin gain, eskubidea aitortzen dio titularrari edo antolatzaileari **jendea onartzeko eta egoteko baldintza espezifikoak** ezartzeko. Legea garatzen duen erregelamenduaren 51. artikuluan, baldintza horiek zer alderdiri lotuta dauden zehazten da: **ikuskizunean edo jardueran sartzeko eta bertatik irteteko mugak, establezimenduan edaria edo janaria kontsumitzeko mugak, aparailu elektronikoak edo bestelako objektuak sartzeko mugak,**

**animaliak sartzeko mugak eta abar.** Baldintza horiek ikuskizun edo jarduera motaren arabera izango dira.

Baldintza horiek behar bezala ezagutu beharko dira. Horregatik, **establezimendu publikoaren, instalazioaren edo espazio irekiaren sarreran**, txartelak saltzeko kanal eta saltokietan eta ikuskizunaren edo jolas-jardueraren publizitatean edo propagandan **ageriko toki batean erraz irakurtzeko moduan** agertzeko betebeharra ezartzen da. Halaber, lokala edo jarduera ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumena duen administrazioari jakinarazi beharko zaizkio. Eta inoiz ez dira diskriminatzaileak izango.

#### **51. artikulua.- Baldintza espezifikoak.**

**1.- Titularrek edo antolatzaileek behar diren neurriak hartuko dituzte, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera modu egokian garatzeko.**

**2.- Sartzeko eta egoteko muga orokorrari kalterik egin gabe, titularrek edo antolatzaileek baldintza espezifikoak ezarri ahal izango dituzte onartzeko eta egoteko, sarrera onartzeko eskubideari edo ukatzekoari jarraikiz.**

**3.- Baldintza espezifikoak hauei buruzkoak izan daitezke: onarpen-baldintzak, jarduerak hasita daudenean eta amaitu aurretik ikuskizun edo jardueran sartzeko eta irteteko mugak; janaria edo edaria kontsumitzeko eta aparailu elektronikoak edo bestelako objektuak sartzeko mugak; animaliak sartzeko eta abar. Era berean, baldintza horiek desberdinak izan daitezke ekitaldien edo jardueren arabera.**

**4.- Baldintza horiek ezartzea eta sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea, ostera, ez dira aitzakia izango diskriminaziorik egiteko erabiltzaileen jatorri edo jaioleku, arraza, sexu, erlijio, iritzi, desgaitasun, sexu-orientazio edo genero-identitatea dela eta edo erabiltzaileen egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialak direla eta.**

**5.- Titularrek edo antolatzaileek ikuskapena eta kontrola egiteko eskumena duen administrazioari komunikatu beharko dizkiote onarpen-baldintza espezifikoak, baita haietan egindako aldaketak ere.**

**6.- Establezimendu publikoaren, instalazioaren edo leku irekiaren sarreran, txartelak saltzeko kanal eta saltokietan eta ikuskizunari edo jolas-jarduerari buruzko publizitatean eta propagandan, toki ageri batean eta ondo irakurtzeko moduan jarriko da zeintzuk diren onartzeko baldintzak eta zer jarraibide ezarri den ikuskizuna edo jolas-jarduera normal garatzeko.**



### 3. Unitatea. GALDERAK.

#### 1. Zer da sarrera ukatzeko erreserba, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren legearen arabera (10/2015 Legea, abenduaren 23koa)?

- a. Establezimendu publikoen titularrek edo ikuskizun eta jolas-jardueren antolatzaileek duten ahalmena jendea onartzeko eta bertan egoteko baldintza espezifikoak ezartzeko.
- b. Pertsona jakin batzuei sarrera debekatzeko aukera.
- c. Titularrak edukiera beteta dagoenean sarrera eragozteko betebeharra.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

#### 2. Ikuskizunen eta jolas-jardueren antolatzaileek eta establezimenduen titularrek haietarako sarrera eragozteko betebeharra dute:

- a. Ikusleek edo bertaratuek gutxieneko adina ez badute, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- b. Ikusleek edo bertaratuek onartzeko baldintzei buruzko informazioa eskuragarri badute.
- c. Edukiera aurreikusitako gehienekora iritsi ez bada.
- d. Bezeroak ikuskizunaren garapena arriskuan jar dezaketen indarkeriazko jokabideak agertuko dituela aurreikusten badute.

#### 3. Ikuskizunen eta jolas-jardueren antolatzaileek eta establezimenduen titularrek haietarako sarrera eragozteko betebeharra dute:

- a. Edukiera beteta badago.
- b. Edukiera aurreikusitako gehienekora iritsi ez bada.
- c. Ikusleek edo bertaratuek onartzeko baldintzei buruzko informazioa eskuragarri badute.
- d. Bezeroak ikuskizunaren garapena arriskuan jar dezaketen indarkeriazko jokabideak agertuko dituela aurreikusten badute.

#### 4. Ixteko ordua iritsi bada, utz al dakieke pertsona gehiagori lokal, esparru, ikuskizun edo jolas-jardueran sartzen?

- a. Bai, betiere dagokion Udalak baimena eman badu.
- b. Ez, inola ere ez.
- c. Ez, establezimenduaren titularrak edo ikuskizunaren edo jardueraren antolatzaileak irekitzeko orduaren aurretik edota ixteko orduaren ondoren sartzea eta bertan egotea eragozteko betebeharra baitu.
- d. Bai, herriko jaiak badira.

### **5. Onartzeko eta bertan egoteko baldintza orokorra da:**

- a. Sarrera, abonamendua edo titulua edukitzea, beharrezkoa den kasuetan.
- b. Indarkeriara eta gorrotara bultzatzen duten edota oinarritzko eskubideen aurkako jardueren apologia adierazten duten sinboloak erakustea.
- c. Adinduna izatea.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

### **6. Onartzeko baldintzek ongi irakurtzeko moduan eta ageriko toki batean agertu behar dute establezimendu publikoaren, instalazioaren edo espazio irekiaren sarreran, txartelak saltzeko kanal eta saltokietan eta ikuskizunaren edo jolas-jardueraren publizitatean edo propagandan.**

- a. Egia
- b. Gezurra
- c. Adingabeak aipatzen dituzten baldintzak badaude.
- d. Nahikoa da establezimendu, instalazio edo espazio irekiaren sarrerako ageriko toki batean agertzearekin.

### **7. Sartzea eta bertan egotea debekatu beharko da honako kasu hauetan:**

- a. Modu erasokorrean portatzen diren, beste ikusle edo erabiltzaile batzuei enbarazu egin diezaieketen indarkeriazko portaerak agertzen dituzten edota ikuskizunaren edo jardueraren garapen normala eragozten duten pertsonen kasuan.
- b. Ikuskizuna hasi ondoren sartu nahi denean.
- c. Lokalaren titularrak erabakitzen duenean.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

### **8. Sartzea eta bertan egotea debekatu beharko da honako kasu hauetan:**

- a. Armak edo arma bezala erabiltzeko moduko objektuak eramaten badira, non eta ez diren Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideak, bizkartzain pribatuak beren egitekoetan, edo une bakoitzean aplikatzekoa den araudi espezifikoan zehaztutakoari jarraikiz horiek eramateko baimenduta dauden pertsonak.
- b. Indarkeria edo gorrotoa sustatzen duten edo oinarritzko eskubideen kontrako jardueren apologia adierazten duten ikurrak, jantziak edo objektuak eramaten badira, eta, bereziki, arrazakeria, xenofobia edo sexuagatik, orientazio sexualagatik, genero-identitateagatik edo bestelako edozein kondizio edo inguruabar sozial edo pertsonalengatik diskriminatzea sustatzen dutenak.
- c. Irekitzeko ordua iritsi baino lehen edo ixteko ordua igaro eta gero.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**9. Titularrek edo antolatzaileek onartzeko eta bertan egoteko baldintza espezifikoak ezar ditzakete sarrera ukatzeko eskubideari edo erreserbari jarraikiz.**

- a. Egia
- b. Gezurra
- c. Onartzeko baldintzak bai, baina egoteko baldintzarik ez.
- d. Egoteko baldintzak bai, bai onartzeko baldintzarik ez.

**10. Baldintza espezifikoek honako hau ezar dezakete:**

- a. Sarrera edo irteera mugatzea, jarduerak hasita daudenean eta amaitu aurretik.
- b. Sarrera adinaren arabera mugatzea.
- c. Sartzea eta egotea edukieraren arabera mugatzea.
- d. Sarrera sexu-orientazioaren arabera mugatzea.

04

ONARPEN-ZERBITZUKO LANGILEEN FUNTZIOAK.



## 4. UNITATEA

### ONARPEN-ZERBITZUKO LANGILEEN FUNTZIOAK

Funtzioak ikuskizunen eta jolas-jardueren Erregelamenduan jasota daude.

#### **61. artikulua.- Onarpen-zerbitzuko langileen funtzioak.**

1.- Onarpen-zerbitzua **behar bezala identifikatuta** dauden pertsonak osatzen dute; pertsona horiek establezimenduen **titularraren** edo jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileen **mende** egongo dira, eta funtzio espezifiko hauek dituzte:

- a) Pertsonak lokalean edo instalazioan **normaltasunez sartzen direla** ziurtatzea.
- b) Lokalaren edo instalazioaren **titularrak** edo jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileak **ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen sarrera galaraztea**, onarpen-eskubideari jarraikiz.
- c) **Ixteko muga-ordutik aurrera edota, hala dagokionean, jendaurreko ikuskizuna** edo jolas-jarduera **hasi ostean, ikus-entzuleei sartzen ez uztea**, baldintza espezifikoek jarraikiz.
- d) Bertaratutakoek **sarrera edo eserlekua erosten** dutela kontrolatzea, hala dagokionean.
- e) **Adingabeen sarrera-mugei buruzko araudia** betearaztea eta, **horretarako**, lokalera edo instalaziora sartu nahi duten **pertsonen adina egiaztatzea**, nortasun-agiri ofizialak erakutsaraziz.
- f) Baimendutako gehieneko **edukiera inoiz ere ez dela gainditzen kontrolatzea** eta, ondorioz, ikus-entzule gehiagori sartzen ez uztea.
- g) **Segurtasun pribatuko langileei, halakorik bada, berehala jakinaraztea, sarreretan gertatzen diren asalduren inguruan**. Segurtasun pribatuko zaintzailerik ez balitz, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoak ipini beharko dituzte jakinaren gainean berehala, haien eskumenen esparruan.
- h) Funtzio horiek egiten dituzten pertsonen **ikuskaritza edo erregelamenduzko kontrolak erraztea**.
- i) **Desgaitasuna dutenak** irisgarritasun-, berdintasun- eta inklusio-baldintzetan lokal edo instalaziora **sartu** eta ikuskizunez gozatzeko aukera izango dutela **bermatzea**.
- j) Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera **lokalaren edo instalazioaren barruan** egiten dela ziurtatzea, ohartaraziz debekatuta dagoela janari-edariak dituztela bide publikora irtetea.
- k) **Ate bikoitzeko atondo akustikoek** behar bezala funtzionatzen dutela zaintzea.

l) Sarrera-mugatzeko orokorreko kasuren batean dauden pertsonei **lokalean edo instalazioan sartzen ez uztea**.

2.- Titulartasun publikoko establezimenduetan herritarrak informatzeko eta instalazioak mantendu eta kontrolatzeko funtzioak bere esku dituzten **udal-langileek beteko dituzte manu honetan aurreikusitako funtzioak**, gaikuntza jasotzeko edo onarpen-zerbitzuko langile gisa erregistratzeko beharrik gabe.

## 4. Unitatea. GALDERAK.

### 1. Zein dira onarpen-zerbitzuaren funtzioak?

- a. Pertsonak lokalean edo instalazioan normaltasunez sartzen direla ziurtatzea.
- b. Establezimendurako sarbideetan sortzen diren gatazkak konpontzea.
- c. Lokalaren akustika egokia izateaz arduratzea.
- d. Bezeroei edariarekin bide publikora irteten ez uztea.

### 2. Honako hauen artean, zein da onarpen-zerbitzuaren funtzioa?

- a. Lokalaren edo instalazioaren titularrak edo jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen sarrera galaraztea, sarrera ukatzeko eskubideari jarraikiz.
- b. Udalak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen sarrera galaraztea.
- c. Armak eramaten dituzten pertsonen sarrera galaraztea.
- d. Ikuskizunaren baimen berezian ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen sarrera galaraztea.

### 3. Honako hauen artean, zein da onarpen-zerbitzuaren funtzioa?

- a. Ikus-entzuleei sarrera debekatzea, ikuskizuna hasi ondoren.
- b. Ikus-entzuleei sarrera debekatzea, ixteko muga-orduaren ondoren, baimen berezia dagoenean izan ezik.
- c. Ikus-entzuleei sarrera debekatzea, ixteko muga-ordutik aurrera edota, hala dagokionean, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera hasi ostean, baldintza espezifikoari jarraikiz.
- d. Ikus-entzuleei sarrera debekatzea, ikuskizuna bertan behera geratzen bada.

### 4. Honako hauen artean, zein da onarpen-zerbitzuaren funtzioa?

- a. Bertaratutakoek sarrera edo eserlekua erosten dutela kontrolatzea, hala dagokionean.
- b. Jendearen sarrera kontrolatzea, ikuskizuna bertan behera geratzen bada.
- c. Lokaleko dezibel-maila kontrolatzea.
- d. Bertaratuek sarrera edo eserlekua gordetzen dutela kontrolatzea.

## 5. Honako hauen artean, zein da onarpen-zerbitzuaren funtzioa?

- a. Adingabeen sarrera-mugei buruzko araudia betearaztea, eta, horretarako, lokalean edo instalazioan sartu nahi duten pertsonen adina edozein modutara egiaztatzea.
- b. Adingabeen sarrera-mugei buruzko araudia betearaztea eta, horretarako, lokalean edo instalazioan sartu nahi duten pertsonen adina egiaztatzea, nortasun-agiri ofizialak erakutsaraziz.
- c. Adingabeen sarrera-mugei buruzko araudia betearaztea, eta, horretarako, lokalean edo instalazioan sartu nahi duten pertsonen adina egiaztatzea, datu-basea kontsultatzearen bidez.
- d. Adingabeen sarrera-mugei buruzko araudia betearaztea eta, horretarako, lokalean edo instalazioan sartu nahi duten pertsonen adina egiaztatzea, edozein dokumentu mota erakutsaraziz.

## 6. Honako hauen artean, zein da onarpen-zerbitzuaren funtzioa?

- a. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz gainditzen ez dela kontrolatzea eta, horren ondorioz, sarbideak ixtea.
- b. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz gainditzen ez dela kontrolatzea eta, horren ondorioz, atak irekitzea edukiera handiagoa izan dadin.
- c. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz gainditzen ez dela kontrolatzea eta, horren ondorioz, ikus-entzule gehiagori sartzen ez uztea.
- d. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz gainditzen ez dela kontrolatzea eta, horren ondorioz, arduradunekin harremanetan jartzea, neurriak hartzeko.

## 7. Honako hauen artean, zein da onarpen-zerbitzuaren funtzioa?

- a. Segurtasun pribatuko langileei sarreretan gertatzen diren ordena-asalduren berri ematea berehala, halakorik badago. Segurtasun pribatuko zaintzailerik ez badago, haien funtzioak onarpen-zerbitzuak beteko ditu.
- b. Segurtasun pribatuko langileei sarreretan gertatzen diren ordena-asalduren berri ematea berehala (halakorik badago), baterako erantzun bat koordinatzeko.
- c. Segurtasun pribatuko langileei sarreretan gertatzen diren ordena-asalduren berri ematea berehala, halakorik badago. Segurtasun pribatuko zaintzailerik ez badago, zuzenean udaltzaingoa jarri beharko du jakinaren gainean.
- d. Segurtasun pribatuko langileei sarreretan gertatzen diren ordena-asalduren berri ematea berehala, halakorik badago. Segurtasun pribatuko zaintzailerik ez badago, zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoak jarri beharko ditu jakinaren gainean, dagozkien eskumenen esparruan.



## 8. Honako hauen artean, zein da onarpen-zerbitzuaren funtzioa?

- a. Ertzaintzari ikuskapenak eta erregelamenduzko kontrolak erraztea.
- b. Funtzio horiek egiten dituzten pertsonen ikuskapenak eta erregelamenduzko kontrolak erraztea.
- c. Ekitaldiaren antolatzaileari edo titularrari ikuskapenak eta erregelamenduzko kontrolak erraztea.
- d. Funtzio horiek egiten dituzten pertsonen ikuskapenak eta erregelamenduzko kontrolak galaraztea.

## 9. Honako hauen artean, zein da onarpen-zerbitzuaren funtzioa?

- a. Desgaitasuna duten pertsonen lokal edo instalazioan sartzeko eta ikuskizunez eta jardueraz gozatzeko erreserbatuta dituzten eserlekuak balia ditzaketela bermatzea.
- b. Desgaitasuna duten pertsonen lokal edo instalazioan sartzeko eta ikuskizunez eta jardueraz gozatzeko gainerako bertaratuen baldintza berak dituztela bermatzea.
- c. Artistek eta haien talde teknikoak lokal edo instalazioan sartzeko eta ikuskizunez eta jardueraz gozatzeko irisgarritasun-, berdintasun- eta inklusio-baldintza egokiak izango dituztela bermatzea.
- d. Desgaitasuna duten pertsonen lokal edo instalazioan sartzeko eta ikuskizunez eta jardueraz gozatzeko irisgarritasun-, berdintasun- eta inklusio-baldintza egokiak izango dituztela bermatzea.

## 10. Honako hauen artean, zein da onarpen-zerbitzuaren funtzioa?

- a. Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera lokalaren edo instalazioaren barruan egiten dela ziurtatzea, eta janari-edariekin bide publikora irtetea galaraztea.
- b. Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera lokalaren edo instalazioaren barruan egiten dela ziurtatzea, eta, horretarako, edukiera bete ondoren atea ixtea.
- c. Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera lokalaren edo instalazioaren barruan egiten dela ziurtatzea, eta, horretarako, janari-edariekin bide publikora irtetea debekatuta dagoela ohartaraztea.
- d. Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera lokalaren edo instalazioaren barruan egiten dela ziurtatzea, eta, horretarako, lokaletik irten direnei berriz sartzen ez uztea.

# 05

**ESTABLEZIMENDUETAKO SEGURTASUN-NEURRIAK  
ETA AUTOBABESARI BURUZKO ARAUDIA.**  
Establezimenduen, jendaurreko ikuskizunen  
eta jolas-jardueren baldintza teknikoak.  
Aurreikusteko moduko arriskueta-arako baliabideak.  
Edukia.



## 5. UNITATEA

**ESTABLEZIMENDUETAKO SEGURTASUN-NEURRIAK ETA AUTOBABESARI BURUZKO ARAUDIA.** Establezimenduen, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren baldintza teknikoak. Aurreikusteko moduko arriskueta arako baliabideak. Edukia.

Legeak ezartzen duenez, establezimendu publikoek, ikuskizunek eta jolas-jarduerak segurtasun, osasungarritasun, higie eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bete behar dituzte.

### **15. artikulua.- Baldintza teknikoak.**

**1.- Pertsonen eta haien ondasunen segurtasuna bermatzeko eta bertaratzen direnei eta hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko, jendaurreko ikuskizunek, jolas-jarduerak eta horiek egiten diren establezimendu edo leku publikoek bete behar dituzte bai segurtasun-, osasungarritasun- eta higie-baldintzak, bai irisgarritasun unibertsaleko baldintzak, baita arlo horretan aplikatu beharreko araudiak exijitzen dituenak ere.**

**2.- Baldintza horien artean sartzen dira lege honen garapenean eta ondoko hauei aplikatu behar zaien ordenamenduan eskatu beharrekoak:**

- a) Bertaratu, langile eta artisen **segurtasuna** eta ondasunen babesa.
- b) Egituren **sendotasuna** eta instalazioen funtzionamendu egokia.
- c) **Instalazio elektriko**en baldintzak eta bermeak.
- d) **Suteak eta** jardueraren beraren **gainerako arriskuak aurreikustea** eta haien aurkako babesa ematea eta kanpoko laguntzaren irisgarritasuna erraztea.
- e) **Osasungarritasun- eta higie-baldintzak eta baldintza akustikoak**, berariaz zehaztuta zer intsonorizazio-baldintza bete behar duten lokalek eragozpenik ez sortzeko hirugarrenei, betiere zaratei buruzko legerian ezarritakoaren arabera.
- f) Hiri eta naturako ingurunea eta historia-, arte- eta kultura-ondarea **babestea**.
- g) **Irisgarritasun unibertsaleko** baldintzak eta gozamen-baldintzak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Baldintza horiek bat etorri behar dute irisgarritasunari eta arkitektura-oztopoak kentzeari buruzko araudian ezarritakoarekin, eta ikuskizunaz benetan gozatzea ahalbidetu behar diete pertsona horiei.
- h) Indarrean dauden autobabes-arauen arabera **autobabes-plana**.
- i) Establezimendu, lokal edo instalazioaren **kapazitatea eta edukiera**.

3.- Ingurumena eta hiri-ingurunea babesteko edo historia- eta arte-ondarea zaintzeko, udalek debeku, muga edo murrizketak ezar ditzakete, ordenantza edo erregelamendu bidez, bermatzeko ez dagoela establezimendu publiko eta jolas-jarduera gehiegi batera, edo beste giza edo gizarte-jarduera batzuekin batera egin daitezkeela.

4.- Erregelamenduz, Eusko Jaurlaritzak erregulatu ahal izango du zer ezaugarri eta baldintzarekin egon daitekeen jendearentzat irekitako establezimendurik, baldin eta establezimendu horiek, ohiz kanpoko ordutegia edukitzeagatik edo beste baldintza batzuk izateagatik, araubide berezikoak badira; adibidez, irizpide hauek erregulatu ahal izango ditu: kokalekua, gutxieneko distantziak, mugikortasun-zerbitzuak edo horiek egoitzaguneetan eta gizarte- eta kultura-jardueretan duten eragina murrizten duten neurri bereziak, eta eragindako pertsonen segurtasuna eta osasuna begiratzekoak.

Edonola ere, jendearentzat irekitako araubide bereziko establezimenduak zabaltzeko, udal-lizentzia eman beharko da, Eusko Jaurlaritzan ikuskizunen arloko eskumena duen zuzendaritzak alde zurreko txostena eginda.

Erregelamenduak baldintza tekniko horiek garatzen eta zehazten ditu. Alde batetik, arau sektorialak aipatzen ditu (Eraikuntzaren Kode Teknikoa nagusiki), eta, bestetik, hainbat baldintza espezifiko ezartzen ditu erregelamenduan bertan. Haien artean, autobabes-plan baten eskakizuna zehazten du.

### **13. artikulua.- Autobabesa.**

1.- Establezimendu publikoek eta ikuskizunak eta jolas-jarduerak eskaintzen dituzten gainerako tokiek **autobabes-plana** eduki beharko dute **larrialdiei aurre egiteko**, autobabeseko betebeharrak erregulatzen dituen araudiak hala agintzen duenean.

2.- Autobabes-planak **gaikuntza-tituluan aurreikusitako jarduera guztiak bildu** beharko ditu.

3.- Autobabes-planak, nahitaez gauzatu beharrekoa bada, hauek jasoko ditu: zer suposizio erabili diren **edukiera zehazteko, zer giza baliabide behar diren eta nola jardun behar den aurreikusi daitezkeen arriskuen eta istripu-hipotesien arabera okupatzaile guztien segurtasun-baldintzak bermatu ahal izateko.**

### **Autobabes-plana. Definizioa.**

Larrialdiei aurre egiteko zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen 277/2010 Dekretuaren arabera, honako hau da autobabesa: jarduera publiko zein pribatuko titularrek hartutako ekintza- eta neurri-sistema, beren baliabideekin eta bitartekoekin, eta beren eskumenaren baitan, pertsonen eta ondasunen gaineko arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko; beharra balego, erkidegoarentzako oinarritzko zerbitzuek jarraitzeko edo berriz martxan jartzeko, larrialdiei erantzun egokia emateko eta jarduera horiek larrialdien euskal sisteman integratzen direla bermatzeko.

(Dekretu hori otsailaren 12ko 21/2019 Dekretuaren bidez aldatu da).

Autobabes-plana eta aurreikus daitezkeen arriskuetaarako baliabideak teknikari aditu batek landu eta balidatu beharreko dokumentuak dira, eta arriskuak prebenitzeko eta haiei erantzuteko eta larrialdi-egoerei erantzun egokia emateko ekintzen eta neurrien sistema islatuko dute, beren bitarteko eta baliabide propioen barruan.

### **Autobabes-planen gutxieneko edukia:**

#### **1. kapitulua.– Titularrak eta jardueraren kokagunea.**

#### **2. kapitulua.– Jardueraren eta hura egiten den ingurune fisikoaren deskripzio zehatza.**

2.1.– Planaren barruan egindako jarduera bakoitzaren deskripzioa.

2.2.– Planaren barruko jarduerak egindako zentroaren, establezimenduaren, egoitzen eta instalazioen deskripzioa.

2.3.– Erabiltzaileen sailkapena eta deskripzioa.

2.4.– Jardueraren eraikinak, instalazioak eta gunek dauden hiri-, industria- edo nagura-inguruneen deskripzioa.

2.5.– Sarbideen deskripzioa. Kanpo laguntzarako irisgarritasun-baldintzak.

#### **3. kapitulua.– Arriskuen inbentarioa, analisisa eta ebaluazioa.**

Gutxienez, sektoreko arautegien barruko arriskuek agertu beharko dute. Kapitulu honetan sartuko dira:

3.1.– Arriskua sortu edo okertu dezaketen elementu, instalazio, ekoizpen-prozesu eta abarren deskripzioa eta kokapena.

3.2.– Jarduerak berez dituen arriskuen eta kanpotik izan ditzakeen arriskuen identifikazio, azterketa eta ebaluazioa (babes zibileko planetan eta hurbileko jarduera arriskutsuen planetan aintzat hartutako arriskuak).

3.3.– Jarduera egiten den eraikin, instalazio eta gunetara sarbidea duten eta jarduerarekin lotuta edo lotu gabe dauden pertsonen identifikazioa, kuantifikazioa eta tipologia.

#### **4. kapitulua.– Autobabes-neurrien eta -baliabideen inbentarioa eta deskripzioa.**

4.1.– Detektatutako arriskuak kontrolatzeko, larrialdiei aurre egiteko eta kanpoko larrialdi-zerbitzuen esku-hartzea errazteko neurrien eta baliabideen —pertsonak nahiz tresnak— inbentarioa eta deskripzioa.

4.2.– Eskura dauden neurriak eta baliabideak —pertsonak nahiz tresnak—, segurtasunari buruzko xedapenei jarraiki.

## **5. kapitulua.– Instalazioak mantentzeko programa.**

5.1.– Arriskuzko instalazioetako prebentziozko mantentze-lanen deskripzioa, haien kontrola bermatzen duena.

5.2.– Babes-instalazioetako prebentziozko mantentze-lanen deskripzioa, haien eraginkortasuna bermatzen duena.

5.3.– Ikuskatzeak egitea.

## **6. kapitulua.– Larrialdietako jarduera-plana.**

6.1.– Larrialdien identifikazioa eta sailkapena:

- Arrisku motaren arabera.
- Larritasunaren arabera.
- Okupazioaren eta giza baliabideen arabera.

6.2.– Larrialdietan aurrean jarduteko prozedurak:

- a) Detekzioa eta alerta.
- b) Alarmarako tresnak.
  - b.1.– Abisuak emango dituen pertsonaren identifikazioa.
  - b.2.– SOS Deiak-en Ekintzak Koordinatzeko Zentroarekiko identifikazioa eta komunikatzeko moduak.
- c) Larrialdiari aurre egiteko tresnak.
- d) Ebakuazioa edo barruko babesa.
- e) Lehenengo laguntzak ematea.
- f) Kanpoko laguntzak hartzeko moduak.

6.3.– Larrialdietako jarduerak egingo dituzten pertsonen eta taldeen identifikazioa eta zereginak.

6.4.– Larrialdi Plana martxan jartzearen arduradunaren identifikazioa.

## **7. kapitulua.– Autobabes Plana goragoko plan batzuetan txertatzea.**

7.1.– Larrialdia jakinarazteko protokoloak.

7.2.– Autobabes Planaren zuzendaritzaren eta Autobabes Plana txertatzen den Babes Zibileko Planaren zuzendaritzaren arteko koordinazioa.

7.3.– Autobabes Antolaketaren eta Babes Zibileko sistema publikoaren planen eta jardueren arteko elkarlana.

## **8. kapitulua.– Autobabes Planaren ezarpena.**

- 8.1.– Planaren ezarpenaz arduratuko den pertsonaren identifikazioa.
- 8.2.– Autobabes Planean parte-hartze aktiboa duten langileak prestatzeko eta gaitzeko programa.
- 8.3.– Langile guztiak Autobabes Planaren inguruan prestatzeko eta informatzeko plana.
- 8.4.– Erabiltzaileak oro har informatzeko programa.
- 8.5.– Bisitarientzako seinaleak eta arauak.
- 8.6.– Eskuratzeko programa.

## **9. kapitulua.– Autobabes Planaren eraginkortasunari eustea eta eguneratzea.**

- 9.1.– Prestakuntza birziklatzeko programa eta informazio-programa.
- 9.2.– Baliabideak eta bitartekoak ordezkatzeko programa.
- 9.3.– Ariketa eta simulakroen programa.
- 9.4.– Autobabes Plana osatzen duen dokumentazio osoa berrikusteko eta eguneratzeko programa.
- 9.5.– Auditoretzen eta ikuskapenen programa.

## **I. gehigarria.– Komunikazioen direktorioa.**

- 1.– Larrialdietako pertsonalaren telefonoak.
- 2.– Kanpoko laguntzaren telefonoak.
- 3.– Komunikatzeko beste modu batzuk.

## **Aurreikus daitezkeen Arriskuetaarako Baliabidea**

Autobabes-plan sinplifikatu bat da, dinamikoagoa, malguagoa eta aplikatzen erraza, antolatzaileentzat zein administrazioarentzat. Egiten direnean agortzen diren ekitaldi puntualetarako erabiltzen da. Edukieraren arabera eskatuko da aurreikus daitezkeen arriskuen baliabidea edo autobabes-plana.

| <b>Egiten den lekua</b>     | <b>AdAB*</b>  | <b>AP**</b> |
|-----------------------------|---------------|-------------|
| Gune irekiak                | 10.000-20.000 | >20.000     |
| Gune ireki mugatuak         | 700-20.000    | >20.000     |
| Esparru itxiak              | 300-2.000     | >2.000      |
| Behin-behineko instalazioak | 300-2.500     | >2.500      |

\* Aurreikus daitezkeen Arriskuetaarako Baliabidea

\*\* Autobabes Plana

Aurreikus daitezkeen Arriskuetaarako Baliabidearen gutxieneko edukia honako hau da, otsailaren 12ko 21/2019 Dekretuaren II bis Eranskinaren arabera:

### **1.- Jardueraren titularren eta kokapenaren identifikazioa.**

- Jardueraren izena, jardueraren kokapenaren posta-helbidea. Telefonoa eta helbide elektronikoa.
- Jardueraren titularrak. Izena edo sozietatearen izena, posta-helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.
- Aurreikusteko moduko arriskuetaarako baliabidea aplikatzearen arduradunaren izena, posta-helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.

### **2.- Deskripzioa: jarduera, erabiltzaile mota, jarduera garatzen den eremu fisikoa, sarbideak eta larrialdi-zerbitzuetaarako irisgarritasuna (haiei buruzko dokumentazio grafikoarekin).**

### **3.- Arriskuen azterketa.**

### **4.- Erakundeak zer autobabes-neurri eta -bitarteko dituen (gizatiarrak zein materialak) arriskuak kontrolatu, larrialdiei aurre egin eta larrialdietako kanpoko zerbitzuen esku-hartzea errazteko.**

### **5.- Larrialdietan jarduteko prozedurak, honako hauek sartuta: detekzioa, SOS-Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari alerta ematea, larrialdiari aurre egiteko tresnak, ebakuazioa edo barruko babes (konfinamendua), lehenengo laguntzak ematea, kanpoko laguntzak jasotzea, eta babes zibileko planekiko eta agintariekin integrazioa eta lankidetzak.**



**6.– Larrialdiei aurre egiteko jardun-plana, honako hauek zehaztuta: izan daitezkeen istripuak eta gertaerak, eta haiei dagozkien larrialdi-egoerak,** bai eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko jarduketa-prozedurak ere. Larrialdiei aurre egiteko jardute-plana abian jartzeko arduraduna identifikatuko da.

**7.– Baliabidea ezarri eta ebaluatzeko programa,** baliabidean aktiboki parte hartzen duten langileak prestatu eta gaitzea barne, eta erabiltzaileentzako informazio-programa, seinaleztapena eta bisitariarentzako jardute-arauak barne.

## AUTOBABES-PLANAREN ADIBIDEA

Adibide gisa, autobabes-plan baten barruan onarpen-zerbitzuko langileen funtzioekin loturarik handiena duten puntuak aurkeztuko ditugu ondoren, hau da, larrialdien aurrean jarduteko planari dagozkionak. Gogoan izan behar da autobabes-dokumentuak establezimenduaren, ikuskizunaren edo jardueraren konfigurazioari, titularren identifikazioari, arriskuen inbentarioari eta analisiari, goragoko autobabes-planetan integratzeari eta autobabes-planaren ezarpenari buruzko xehetasunak biltzen dituela. Ez da beharrezkoa guzti-guztietan sakontzea, baina beharrezkoa da sarrerako langileek jakitea zein den beren zeregina larrialdi baten kasuan, non dauden irteerak eta elkarguneak, eta zer larrialdi-protokolo, koordinazio eta baliabide dituzten.

Beraz, ondoren emango ditugun adibideetan ez daude islatuta autobabes-plan baten kapitulu guztiak. Aitzitik, onarpen-zerbitzuko langileentzat garrantzitsuak direnak baino ez dira agertzen:

- Autobabes-plan baten aurkibidearen adibidea.
- 2. kapituluaren adibidea (Jardueraren eta hura egiten den ingurune fisikoaren deskripzio zehatza).
- 3. kapituluaren adibidea (Arriskuen inbentarioa, analisia eta ebaluazioa).
- 4. kapituluaren adibidea (Autobabes-neurrien eta -baliabideen inbentarioa eta deskripzioa).
- 6. kapituluaren adibidea (Larrialdietako jarduera-plana).
- **Autobabes-planaren aurkibidearen adibidea.**

Autobabesari buruzko araudiak finkatutako puntu guztiak biltzen ditu: jardueraren titularren eta kokalekuaren identifikazioa; instalazioaren eta hura egiten den ingurune fisikoaren deskribapena, arriskuen inbentarioa, azterketa eta ebaluazioa, autobabeserako baliabideen inbentarioa eta deskribapena, instalazioak mantentzeko programa, larrialdi-plana, plana goragoko beste plan batzuetan txertatzea, autobabes-planaren ezarpena eta planaren eraginkortasunari eustea eta eguneratzea. Eranskinean, establezimenduaren planoak daude. Plano horietan, establezimenduaren ezaugarriak, kokapena, ingurunea, barne-antolamendua, larrialdietarako bitartekoak, ebakuazio-bideak, arrisku-elementuak eta abar daude islatuta.

Alderdi horien guztien ezagutzari eta bilketari esker, erantzun ordenatua eta eraginkorra eman ahal izango da larrialdi-kasuan: autobabes-baliabideek behar bezala funtzionatuko dute eta langileek nola eta non kokatu eta jokatu behar duten jakingo dute.

## AURKIBIDEA

### Sarrera

1. Planaren xedea
2. Planaren egilea
3. Proiektuaren faseak
4. Arauzko justifikazioa

### 1. DOKUMENTUA: Jardueraren titularren eta kokalekuaren identifikazioa

1. Establezimenduari buruzko datuak
2. Jardueraren titularrei buruzko datuak
3. Autobabes-planaren titularrei buruzko datuak

### 2. DOKUMENTUA: Instalazioaren eta jarduera egiten den ingurune fisikoaren deskribapena

1. Jardueren deskribapena
2. Establezimenduaren deskribapena
  - 2.1. Behin-behineko harmailen eraikuntza-ezaugarriak
  - 2.2. Establezimenduko ekipamendu/instalazioen deskribapen fisikoa
3. Erabiltzaileen sailkapena eta deskribapena
4. Ingurunearen deskribapena
5. Sarbideen deskribapena

### 3. DOKUMENTUA: Arriskuen inbentarioa, azterketa eta ebaluazioa

1. Arriskuan dauden lokalen edo eremuen inbentarioa
2. Larrialdi-arriskuen identifikazioa, azterketa eta ebaluazioa
  - 2.1. Larrialdi-arriskuen ebaluazioa
3. Eraikinean sar daitezkeen pertsonen identifikazioa, kuantifikazioa eta tipologia

### 4. DOKUMENTUA: Autobabes-baliabideen inbentarioa eta deskribapena

1. Larrialdietarako baliabide teknikoak
  - 1.1. Suteak itzaltzeko baliabideak
  - 1.2. Ebakuazio-bideak
  - 1.3. Larrialdietako argiteria
  - 1.4. Lehen laguntzetarako materiala
2. Larrialdietarako giza baliabideak
  - 2.1. Larrialdietako taldeen erantzukizunak

### 5. DOKUMENTUA: Instalazioak mantentzeko programa

1. Arrisku-instalazioen prebentziozko mantentze-lanak
2. Babes-instalazioen prebentziozko mantentze-lanak
3. Aldizkako ikuskapenak

**6. DOKUMENTUA: Larrialdi-plana**

1. Larrialdien identifikazioa eta sailkapena
2. Larrialdien aurrean jarduteko prozedura
  - 2.1. Larrialdi baten aurrean jarduteko modua
  - 2.2. Baldintza normalen berrezarpena
3. Esku hartzeko taldeen identifikazioa eta funtzioak
4. Kanpoko baliabideekiko identifikazioa eta komunikatzeko metodoak

**7. DOKUMENTUA: Autobabes-plana goragoko beste plan batzuetan txertatzea.**  
(Dokumentu hau ez da aplikagarria establezimendu honetan).**8. DOKUMENTUA: Autobabes-planaren ezarpena**

1. Plana ezartzeaz arduratutako pertsonaren identifikazioa
2. Langileak prestatzeko eta trebatzeko programa
3. Bitarteko materialez eta baliabideez hornitzeko eta haiek egokitze programa

**9. DOKUMENTUA: Autobabes-planaren eraginkortasunari eustea eta eguneratzea**

1. Prestakuntza birziklatzeko eta informatzeko programa
2. Bitartekoak eta baliabideak ordezteko programa
3. Ariketa eta simulakroen programa
4. Ezbeharren ikerketa
5. Autobabes-planari eusteko eta eguneratzeko programa

**ERANSKINAK:**

- I. Eranskina: Kokapen- eta komunikazio-planoak (200 m-ko eta 50 m-ko eskala)
- II. Eranskina: Instalazioaren deskribapen-planoak
  - I. faseko (iparraldeko behin-behineko harmailak) deskribapen-planoa
  - II. faseko (ipar-mendebaldeko behin-behineko harmailak) deskribapen-planoa
  - III. faseko (hego-mendebaldeko behin-behineko harmailak) deskribapen-planoa
- III. Eranskina: Arrisku-elementuen edo arrisku-instalazioen kokapen-planoa
- IV. Eranskina: Larrialdietarako baliabideen kokapen-planoa
  - I. faseko (Iparraldeko behin-behineko harmailak) larrialdietarako baliabideak
  - II. faseko (ipar-mendebaldeko behin-behineko harmailak) larrialdietarako baliabideak
  - III. faseko (hego-mendebaldeko behin-behineko harmailak) larrialdietarako baliabideak
  - I., II. eta III. faseetako ebakuazio-planoa
- V. Eranskina: Mantentze-programa
- VI. Eranskina: Teknikari adituen egiaztapena

- **Autobabes-plan baten 2. puntuaren** adibideak: jardueraren eta hura egiten den ingurune fisikoaren deskripzio zehatza: establezimenduaren, erabiltzaile moten, hiri-ingurunearen eta sarbideen deskribapena.

## 2. ESTABLEZIMENDUAREN DESKRIBAPENA

Futbol-zelaiak honako kale hauek ditu mugakide:

- Futbol-zelaiako iparraldeko tribuna kale Nagusiarekin eta kale Txikiarekin paralelo dago.
- Mendebaldeko tribuna futbol-zelaiaren barruan dago, eta fatxadak San Juan komentura eta erantsitako zelaira bertara ematen du. Harmailak zein futbol-zelaia bera Gerra Zibilaren ondoriozko hondakinen gainean eraiki ziren.

Iparraldeko tribuna harrizko euste-horma batean bermatuta dago, eta tribunaren egitura nagusia zein mendebaldeko tribunarena hormigoi armatuzkoak dira.

Iparraldeko tribunaren hiri-fatxada ageriko hormigoizko eta xafla sinplezko bloke batez eta harrizko euste-hormaz osatuta dago. Mendebaldeko tribunak ez du hiri-fatxadarik

Bi tribunetako estalkiek habeez, zutabeez eta kontragoiabeez osatutako egitura metaliko bat eta xafla lisoko estaldura dute.

Iparraldeko tribunaren egungo edukiera 720 eserlekukoa da, eta mendebaldeko tribunarena, berriz, 1.272 eserlekukoa.

## 3. ERABILTZAILEEN SAILKAPENA ETA DESKRIBAPENA.

Iparraldeko behin-behineko harmailetara joango diren erabiltzaileen kopurua oso aldakorra da, baina esan dezakegu kopururik handiena kirol- edo kultura-ekitaldietan lortuko dela.

Erabiltzaileak honela sailka daitezke:

- Klubeko langileak
- Klubeko segurtasuneko langileak
  - Klubeko laguntzaileak
  - Segurtasun pribatua
- Kanpoko pertsonak:
  - Erabiltzaileak (adina eta izaera oso desberdina izan daiteke: haurrak, minusbaliatuak, adinekoak eta abar)
  - Instalazioetan lanak egiten dituzten kontrata edo azpikontratetako langileak (garbiketa-lanak, mantentze-lanak eta abar)

Gaur egun, desgaitasuna duten pertsonak futbol-zelaiaren hegoaldeko tribunan daude, eta, beraz, iparraldeko eta mendebaldeko tribunetan ez da desgaitasuna duen pertsonarik egongo.

Okupazioaren kalkuluak Autobabes Plan honen III. kapituluan deskribatuta daude.

#### 4. INGURUNEAREN DESKRIBAPENA.

Behin-behineko harmailak kokatuko diren futbol-zelaia hiri-lurzoruan kokatuta dago, eta honako kale hauek ditu mugakide hiru aldetan: iparraldean, kale Nagusia eta kale Txikia, eta ekialdean eta hegoaldean, berriz, kale Ertaina. Mendebaldean, erantsitako zelaia dago, eta, ondoren, San Juan erlijio-zentroa.

Futbol-zelaiko iparraldeko tribuna kale Nagusiarekin eta kale Txikiarekin paralelo dago. Mendebaldeko tribuna futbol-zelaiaren barruan dago, eta fatxadak San Juan komentura eta erantsitako zelaira bertara ematen du. Harmailak zein futbol-zelaia bera Gerra Zibilaren ondoriozko hondakinen gainean eraiki ziren.

Iparaldeko tribunaren egungo edukiera 720 eserlekukoa da, eta mendebaldeko tribunarena, berriz, 1.272 eserlekukoa.

Autobabes Plan honi erantsitako planoetan, eraikinaren kokapen zehatza eta ingurunearen deskribapen grafikoa agertzen dira.

#### 5. SARBIDEEN DESKRIBAPENA

Ikusleentzako zein kanpoko baliabideentzako sarbideen deskribapenari dagokionez, hurbilketa-bideak dira kanpoko larrialdi-zerbitzuak iristeko egokiak.

Harmailen behin-behineko instalazioetarako sarbideak honako hauek dira:

##### I. FASEA: Iparraldeko behin-behineko harmailak

Behin-behineko harmailetarako sarbidea ate-bide batzuek ematen dute, eta gaitutako tunel batera irten behar da. Tunel horretara, esparruaren barnetik iristen da, eta kalearen beste aldeko espaloian kokatutako 2,00 m-ko zabalerako eskaileretara irteten da.

Korridoreko zoladura zurezkoa da, hiru geruzatan, eta akabera taula fenolikoarekin eginda dago.

##### II. FASEA: Ipar-mendebaldeko behin-behineko harmailak

Ipar-mendebaldeko harmailetarako sarbidea iparraldeko tribunara mendebaldetik doan eskaileraren tranpalean kokatutako tronadura batek ematen du. Mendebaldeko tribuna ebakuatu ahal izateko, 2,45 m-ko altuera libreko pasabide bat dago ipar-mendebaldeko behin-behineko harmailaren azpian. Pasabide horretatik, futbol-zelaiaren ipar-mendebaldean kokatutako eskaileretara iristen da.

- **3. kapituluaren** adibidea: arriskuen inbentarioa, analisia eta ebaluazioa. Arrisku-instalazioak edo arrisku-eremuak (bai establezimenduan bertan daudenak –kaxa elektrikoak, sorgailuak eta abar–, bai ikuskizunaren edo jardueraren berezkoak –piroteknia, adibidez–) eta kanpoko arriskuak (hala nola fenomeno meteorologikoak) deskribatzen dira.

## 1. ARRISKUAN DAUDEN LOKALEN EDO EREMUEN INBENTARIOA

Atal honen xedea da larrialdi-egoera bat eragin dezaketen edo larrialdi-egoera baten garapenean okerreko eragina izan dezaketen elementuak, instalazioak edo lokalak deskribatzea.

Arestian adierazi dugunez, behin-behineko harmailetan ez dago lokal edo eremu arriskutsurik, baina klubeko instalazio orokorren barruan daudenez gero, instalazio horiek zelaiazen gainerako zatian dauden instalazioen edo lokalen eragina jaso dezakete.

Hona hemen lokal edo eremu arriskutsuen zerrenda:

|                                       |                                                                                                                                                            |
|---------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Harmaila nagusietako sotoa            | Galdara-gela; unitate elektrogenoa; ureztatzeko ur-depositua; biltegia; makina-gela (zelaiko dorreen instalazioa, instalazio elektrikoak, ur-kontagailuak) |
| Harmaila nagusietako behe-oina        | Informatika-gela                                                                                                                                           |
| Iparraldeko harmailetakoko behe-oina  | Transformazio-zentroa eta kaxa elektriko orokorra                                                                                                          |
| Mendebaldeko harmailetakoko behe-oina | Materialaren biltegia                                                                                                                                      |

Lokal horietarako sarrera mugatuta dago. Baimenduta dauden langileak eta eraikineko langile lan-kontratudunak baino ezin dira sartu.

## 2. LARRIALDI-ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA, AZTERKETA ETA EBALUAZIOA

Klubeko kirol-instalazioetan (behin-behineko harmailak barne), larrialdi-egoerak honako hiru arrazoi mota hauengatik ager daitezke:

- **Arrisku naturalak:** naturako fenomenoak, hala nola: uholdeak, tximistak, luiziak, elurteak eta abar (jatorria klubarekin zerikusirik ez duenean).
- **Arrisku sozialak:** giro sozialean sortuak: lehergailu-mehatxuak, jende-oldeak, zelaiazen inbasioa, intrusismoaren arriskua...
- **Arrisku teknologikoak:** Instalazioen, egituren eta bertan (barruan zein kanpoan) egindako jardueren ondorioz sortzen diren arriskuak (suteak, leherketak, gas-ihesak eta abar).


Eraikinen eta hurbileko ingurunearen ezaugarriak ezagutu ondoren, larrialdi-egoerak sor ditzaketen eta, horren ondorioz, pertsonengan, instalazioetan eta ingurumenean kalteak eragin ditzaketen egoera aurreikusgarriak zehaztea izango da hurrengo urratsa.

Hona hemen sor daitezkeen larrialdi-egoerak:

| LARRIALDI-EGOERAK   | ARRISKUAREN JATORRIA |
|---------------------|----------------------|
| Sutea               | Jardueraren berezkoa |
| Leherketa           | Jardueraren berezkoa |
| Gas-ihesa           | Jardueraren berezkoa |
| Lehergailu-mehatxua | Jardueratik kanpokoa |
| Uholdeak            | Jardueratik kanpokoa |
| Egoera sozialak     | Jardueratik kanpokoa |

- **4. kapituluaren** adibidea: autobabes-neurrien eta -baliabideen inbentarioa eta deskripzioa.

Ondoren, larrialdi-organigrama baten adibidea ikusiko dugu. Bertan, eremu bakoitzean nolako giza baliabideak eta zenbat egon behar duten deskribatzen da.



Klubak ezarritakoaren arabera, larrialdietarako giza baliabideak honako hauek dira:

| LARRIALDI-TALDEAK            |                                                                                                                                    |
|------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| LARRIALDIETAKO BURUA<br>(LB) | Titularra: Klubeko<br>SEGURTASUN EKO BURUA                                                                                         |
|                              | Ordezkoa: Administrazioa                                                                                                           |
| KONTROL-ZENTROA              | KOU                                                                                                                                |
| ESKU HARTZEKO TALDEA         | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Klubeko laguntzaileak: 20 pertsona</li> <li>• Segurtasun pribatua: 16 pertsona</li> </ul> |



Larrialdietan, giza baliabideak honela banatuko dira zelaian:

| IPARRALDEKO<br>HARMAILAK                              | EKIALDEKO<br>HARMAILAK                                | HARMAILA NAGUSIAK                                     | MENDEBALDEKO<br>HARMAILAK                             |
|-------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------|
| • Laguntzaileak: 4<br>• Segurtasuneko zaintzaileak: 2 | • Laguntzaileak: 4<br>• Segurtasuneko zaintzaileak: 2 | • Laguntzaileak: 8<br>• Segurtasuneko zaintzaileak: 4 | • Laguntzaileak: 4<br>• Segurtasuneko zaintzaileak: 2 |

Gainera, segurtasun pribatuko zaintzaileak egongo dira honako leku hauetan:

- Aldageletako pasabidean: 2
- Zelaian bertan: 2
- Laguntzeko: 2

Larrialdietako taldeko kide bakoitzak prestakuntza jaso beharko du aurrez, eta hori ere autobabes-planean adierazita dago.

### 3. LARRIALDIETARAKO GIZA BALIABIDEAK

Larrialdietarako giza zerbitzu bat eduki behar da, eta haren dimentsioa instalazioetan egiten den jardueraren arabera izango da. Ezbehar baten kasuan, zerbitzu horren eginkizun nagusia ezbehar hori bere jarduketaren bidez neutralizatzea eta, ebakuazioaren kasuan, pertsonak arriskuan jarri gabe antolatzea izango da.

Larrialdietarako taldeak eraikinaren barruan agertzen diren larrialdi-egoerak prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko bereziki trebatuta eta antolatuta dauden pertsonen multzoaz osatuta daude.

Talde horien funtsezko eginkizuna da larrialdi-egoera bat sor dezaketen baldintzak ez betetzeko neurriak hartzea.

Horretarako, taldeetako kide bakoitzak honako betebeharrak izango ditu:

- Instalazioek duten arrisku orokorraren eta bereziaren jakitun izatea.
- Dauden baliabide materialak ezagutzea eta erabiltzen jakitea.
- Gaitasuna izatea edozein anomalia eragin dezaketen arrazoiak beldurrik gabe desagerrarazteko, honako hauen bidez:
  - Zeharkako ekintzak: larrialdi-planean izendatutako pertsonak ohartaraztea
  - Zuzeneko ekintza bizkorra: korrante elektrikoa etetea eta abar.
- Suteari aurre egitea, eta, horretarako:
  - Alarma jotzea
  - Larrialdi-planeko kontsignak aplikatzea
  - Suteari lehen esku-hartzeko baliabideekin aurre egitea, laguntza iritsi arte
- Istripua izan duten pertsonen lehen mailako laguntzak ematea.
- Beste talde batzuekin koordinatzea, istripuen ondorioak desagerrarazteko edo ahalik eta neurririk handienean murrizteko.

Giza baliabideen deskribapenean, halaber, larrialdietako taldeen arteko ardura-banaketa biltzen da.

### 3.1. LARRIALDIETAKO TALDEEN ERANTZUNKIZUNAK

Klubeko Zuzendaritza. Enpresaren segurtasunari lotutako orotan, zuzendariak edo hark eskuordetzen duen pertsonak honako funtzio hauek bete beharko ditu:

- Larrialdietako burua eta taldea izendatzea.
- Esku hartzeko taldearen prestakuntza ematea.
- Enpresaren segurtasunaren zuzeneko erantzulea eta administrazio publikoaren aurrean jardungo duen bozeramailea izatea.
- Larrialdi-plana ongi ezagutzea eta plan hori eguneratuta edukitzeaz arduratzea.
- Larrialdietako taldeko kideek zein enpresako gainerako langileek segurtasun-arloan jaso behar duten prestakuntza zehaztea.

**Segurtasuneko burua eta/edo larrialdietako burua:** honako erantzukizun hauek ditu:

- Enpresak dituen segurtasun-elementu guztien eta gorabeheraren bat sorraz dezaketen instalazioen egoeraren eta funtzionamenduaren berri izatea.
- Simulatutako larrialdi-arietak (simulakroak) prestatzen eta egiten esku hartzea.
- Zentroaren kategoriarako ezagutza tekniko egokiak izatea eta sute-itzalketa, detekzio eta alarmako sistemen inguruko ezagutzak izatea.
- Zentroak dituen gainerako instalazioen (elektrizitatea, klimatizazioa, iturgintza eta abar) eta ixteko giltzen inguruko ezagutzak eta lehen mailako laguntzei eta zaurituak ebakutzeko moduei buruzko oinarritzko ezagutzak izatea.

**Esku hartzeko taldea.** Honako erantzukizun hauek ditu:

- Larrialdietako buruari zentroan gertatzen diren arazo guztien berri ematea.
- Eraikinaren eremu guztietan dauden segurtasun-sistemen funtzionamendua eta erabilera ezagutzea.
- Larrialdi Plana ezagutzea.
- Simulatutako larrialdi-arietak prestatzen eta egiten esku hartzea.
- Zentroaren kategoriarako ezagutza tekniko egokiak izatea eta sute-itzalketa, detekzio eta alarmako sistemen inguruko ezagutzak izatea.
- Zentroak dituen gainerako instalazioen (elektrizitatea, klimatizazioa, gasa, galdarak eta abar) eta ixteko giltzen inguruko ezagutzak eta lehen mailako laguntzei eta zaurituak ebakutzeko moduei buruzko oinarritzko ezagutzak izatea.
- Taldekideek instalazioak dituen arriskueta edozeinen oinarritzko erasoaren inguruko prestakuntza espezifiko izan behar dute.

**Koordinazio operatiboko unitateko (KOU) operadorea:** honako erantzukizun hauek ditu:

- KOUan dauden instalazio guztien funtzionamendua ezagutzea.
- Larrialdi Plana ezagutzea.
- Simulatutako larrialdi-arietak (simulakroak) prestatzen eta egiten esku hartzea.
- Zentroaren kategoriarako ezagutza tekniko egokiak izatea eta sute-itzalketa, detekzio eta alarmako sistemen inguruko ezagutzak izatea.
- Taldekideek instalazioak dituen arriskueta dozeinen oinarritzko erasoaren inguruko prestakuntza espezifikoa izan behar dute.


- **6. kapituluaren** adibidea: larrialdietako jarduera-plana.

Establezimendu publikoko langile guztiek eta ikuskizun edo jolas-jarduera baten antolaketan eta garapenean esku hartzen duten langileek larrialdi-kasuetan nola jokatu behar den jakin behar dute. Autobabes-planek larrialdi-kasuetarako jarduketa orokorreko diagrama bat izan ohi dute.

Gainera, larrialdietako taldeak aurre egin beharreko arrisku motaren arabera (sutea, uholdea, leherketa, lehergailu-abisua eta abar) jarduteko moduak aurreikusten dira. Hau da, kontuan hartu diren arriskuen arabera, arrisku horiek txikiagotzeko edo desagerrarazteko hainbat jarduketa-modu pentsatu beharko dira.

Era berean, larrialdietako taldeko kide bakoitzak egin beharreko zereginak deskribatzen dira.

Larrialdi-kasuan jarduteko moduaren diagrama.



### Leherketa-kasuan jarduteko moduaren adibidea

| JARDUKETA LEHERKETA-KASUAN                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                    |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Neurri orokorrak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                    |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Gas- eta elektrizitate-hornidura etetea</li> <li>Galdarak edo gasa izan dezaketen instalazioak itzaltzea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>Sugarrak itzaltzea, su-iturriak saihestea</li> <li>Lurrunak ez arnasten saiatzea</li> </ul> |
| Jarduketa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                    |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Alferrik ez arriskatzea.</li> <li>Biktimak eta zaurituak izanez gero, eremu seguru batera ebakutzea.</li> <li>Leherketa gehiago egongo direla aurreikusten bada, eremua ebakutzea.</li> <li>Jaurtigaiez eta hedatze-uhinez babestutako leku seguru batean babestea.</li> <li>Leherketaren ondoriozko egoerei arreta berezia jartzea (isurketa edo ihes toxikoak, suteak eta abar).</li> <li>Produktu sukoiari jarria edo ihesa edota sutea gertatuz gero, dagokion jarduketa-prozedurari jarraitzea.</li> <li>Larrialdia kontrolatu ondoren, larrialdietako buruak gertaeraren berri emango dio zentroko Zuzendaritzari.</li> </ul> |                                                                                                                                    |

### Lehen laguntzen kasuan jarduteko moduaren adibidea

| JARDUKETA LEHEN LAGUNTZEN KASUAN                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |  |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
| Neurri orokorrak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |  |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Eremua babestea (istripua eragin zuen arriskuaz babestea).</li> <li>Barneko edo kanpoko zerbitzuei jakinaraztea.</li> <li>Sorostea, lehen laguntzak aplikatzea. Egiten dakien lehen laguntzak baino ez egitea eta istripua izan duen langilearen osasuna arriskuan ez jartzea.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |  |
| Jarduketa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |  |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Istripuaren lekua eta zauritua babestea, eta esku hartzen ez duten langileak kanporatzea.</li> <li>Berehala medikuntza-zerbitzuak ohartaraztea, istripuaren lekura joan daitezen.</li> <li>Jarrera lasaia eta segurua hartu behar da eta zauritua lasaitzen saiatu behar da.</li> <li>Sorotsi; eman soilik egiten dakizkizun laguntzak. Lehen laguntzak ematearen helburua ez da bizitzak salbatzea, bizi-konstanteei eustea baizik.</li> <li>Lesioen norainokoa zehaztea (hasierako ebaluazioa): <ul style="list-style-type: none"> <li>Kontzientzia</li> <li>Aire-bidea kontrolatzea (ahoa eta sudurrean buxadurarik ez dagoela egiaztatzea)</li> <li>Arnasa baloratzea</li> <li>Zirkulazioa baloratzea</li> <li>Mugikortasuna baloratzea (bihurrituak, hausturak eta abar)</li> <li>Odol-jarioen kontrola (ebaketak eta abar)</li> </ul> </li> <li>Zauritua ez mugitzea, istripuaren ondoriozko kalte handiagoak saihesteko beharrezkoa denean izan ezik. <ul style="list-style-type: none"> <li>Pertsona batek gas toxikoa arnasten badu, aire freskoa dagoen leku batera eramanez behar da.</li> </ul> </li> </ul> |  |

- Istripua izan duenak inpaktu edo hedatze-uhin baten ondorioak jasan baditu, barne-lesioetan arreta jartzea.
- Biktimak jantziak sutan baditu:
  - Korrika egin ez dezan saiatzea.
  - Suaren kontrako tapaki batekin edo antzeko batekin estaltzea, sugarrak itzaltzeko; biktima estaltzeko materialik izan ezean, etzanda eduki beharko da, eta bueltak emango zaizkio bere ardatzaren inguruan, poliki-poliki.
- Istripua izan duena bero eta gelditu edukitzea.
- Konortea galdu duen inori edaririk ez ematea.
- Arnasa hartzeko zailtasunaren edo bihotz-biriketako geldialdiaren kasuan, arnasa artifiziale eta/edo bihotz-biriketako masajea ematea.
- Beharrezkoa izanez gero, kanpoko ospitale batera eramatea.

Establezimenduko langileek larrialdi-kasuan egin beharreko zereginen adibidea: larrialdietako burua, esku hartzeko taldea eta gainerako langileak.

| LARRIALDIETAKO BURUA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>LARRIALDIAREN JAKINARAZPENA</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| Larrialdiaren berri izatean, esku hartzeko taldearen bilgunera joan behar du, egin beharreko jarduketak kontrolatzeko eta antolatzeko.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <b>BARNEKO ESKU-HARTZEA</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Larrialdiaren berri ematen diotenean, agintea hartzen du bere gain eta larrialdietako taldeen bilgunera joaten da.</li> <li>• Larrialdiaren abisua eman ondoren, mantentze-zerbitzuari ematen dio abisua, larrialdiaren lekura laguntzera joan dadin (eta, beharrezkoa izanez gero, instalazio elektrikoa, gasarena, urarena eta abar eten ditzan).</li> <li>• Abian jarri beharreko larrialdi-maila erabakitzen du. Abian jartzen du larrialdi partziala edo larrialdi orokorra.</li> <li>• Esku hartzeko taldeen bilgunean geratzen da, eta bertan erabakitzen ditu egin beharreko jarduketak.</li> <li>• Larrialdi-lanak koordinatzen ditu esku hartzeko taldeekin, gertatutako larrialdia arintzeko edo kontrolatzeko.</li> <li>• Kanpoko zerbitzuei (112) abisua eman behar zaie eta ebakuazioa agindu behar den erabakitzen du. Kasu horretan, horren berri emango zaie eraikin mugakideei eta zentroko zuzendariari.</li> <li>• Ebakuazioa agindu ondoren, ebakuatu beharreko eremuak esleituko dizkio esku hartzeko taldeari. Eremu horiek zehatz-mehatz miatuko dira, langilerik geratzen ez dela egiaztatzeko.</li> <li>• Kanpoaldean (elkargunean), kanpoko baliabideen zain geratzen da, eta iristen direnean larrialdietako karpeta ematen die.</li> </ul> |
| <b>KANPOKO ZERBITZUEI ZUZENDUTAKO ABISUAK</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kanpoko zerbitzuei (112) abisua emateko erabakia hartzen du. Kasu horretan, abisu horren berri emango zaio gerentziari.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |

#### KANPOKO ESKU-HARTZEA

- Kanpoko zerbitzuak iristen direnean, larrialdiaren egoerari eta ezaugarriei buruzko bidezko argibideak ematen dizkie.
- Kanpoko zerbitzuekin lankidetzan dihardu.

#### LARRIALDIAREN AMAIERA

- Larrialdiaren amaiera ezartzen du behin betiko kontrolatu eta txikiagotu ondoren.
- Gertakariaren berri ematen dio zentroko zuzendaritzari.
- Eraginpean hartutako eremua ikuskatzeko lanetan laguntzen du larrialdiaren ondoren.
- Larrialdian egindako ekintzei buruzko txostena idazten laguntzen du, larrialdiaren ikerketarako.

#### ESKU HARTZEKO TALDEA

##### LARRIALDIAREN JAKINARAZPENA

Larrialdiaren berri izatean, esku hartzeko taldeen bilgunean agertu behar du.

##### BARNEKO ESKU-HARTZEA

- Esku hartzeko taldeen bilgunera joaten da. Ezinezkoa bada, larrialdietako buruari jakinarazten dio, arrazoiak jakin ditzan.
- Larrialdia kontrolatzen du, larrialdietako buruak emandako argibideen arabera.
- Larrialdien aurrean jarduteko prozedurei jarraikiz eta inplikaturako substantzien arabera jokatzeko du. (Jarduteko prozeduren jarraibideen arabera jokatzeko).
- Larrialdia arintzeko beharrezko babes-baliabideak erabiltzen ditu.
- Larrialdietako buruak ebakuazio orokorra agintzen badu, larrialdietako buruak berak ebakutzeko adierazitako eremura joan behar du eta instalazioaren barruan inor geratzen ez dela kontrolatu beharko du. Ebakutu behar duen eremuaren arabera, dokumentazioa edo botika-kutxa atera beharko du.

##### KANPOKO ZERBITZUEI ZUZENDUTAKO ABISUAK

- Ezbeharra kontrolatzea kanpoko zerbitzuak iristen diren bitartean (ikus suteen kasuetako esku-hartzeari, lehen laguntzei eta abarri buruzko fitxak).

##### EBAKUAZIOA

- Larrialdietako buruarekin lankidetzan jardutea pertsona guztiak ebakutzeko, ebakuazio-biderik egokienei buruzko argibideak ematea eta bidezko miaketak egitea.

##### KANPOKO ESKU-HARTZEA

- Kanpoko zerbitzuekin lankidetzan jardutea.

##### LARRIALDIAREN AMAIERA

- Larrialdiaren amaiera ezarri ondoren, egoera normalizatzea eta instalazioek jardueraren funtzionamendu egokirako duten egoera egiaztatzea.

| GAINERAKO LANGILEAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| LARRIALDIAREN JAKINARAZPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| Larrialdiren bat detektatzen denean, berehala klubeko langileei jakinaraztea eta eremuan geratzea kontrakoa adierazten zaien arte.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| BARNEKO ESKU-HARTZEA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Larrialdi-eremuan ez badaude, beren lekuan geratu behar dute, aginduen zain.</li> <li>Larrialdietako jarduketan inguruko ezagutzak dituzten kasuan soilik, larrialdia kontrolatzea (sutea, lehen laguntzak eta abar), esku hartzeko taldea iritsi arte. Ezagutza horiek izan ezean, hobe da ezer ez egitea eta arriskutik kanpo geratzea.</li> <li>Esku hartzeko taldea iristen denean, talde horri jarduten uztea eta haren argibideei jarraitzea.</li> <li>Larrialdietako buruaren edo esku hartzeko taldearen jarraibideen zain geratzea.</li> <li>Instalazioetatik ez joatea ebakuazio-seinalea ematen ez bada.</li> </ul> |
| EBAKUAZIOA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Ebakuazioa ezartzen denean, lekutik alde egitea, erabiltzen ari diren ekipamenduak deskonektatzea eta era ordenatuan eta korrika egin gabe bilgunera joatea, seinalizatuta dauden ebakuazio-bideetatik (ebakuazio-taldeen beste bide bat adierazten dutenean izan ezik).</li> <li>Bilgunera joatea eta bertan geratzea ebakuazio-taldeak kontaketa egin edota kanpoko baliabideek adierazi arte.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                    |
| KANPOKO ESKU-HARTZEA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Kanpoko zerbitzuak iristen direnean, lekua hustea eta haiei jarduten uztea, molestatu gabe.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| LARRIALDIAREN AMAIERA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Larrialdiaren amaiera ezarri ondoren, egoera normalizatzea, instalazioek jardueraren funtzionamendu egokirako duten egoera egiaztatzea eta sortu den edozein anomaliaren berri ematea.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |



Autobabes-plan orok komunikazio-direktorio bat izan behar du.

#### 4. KANPOKO BALIABIDEEKIKO IDENTIFIKAZIOA ETA KOMUNIKATZEKO METODOAK

Larrialdietako telefonoen direktorio bat eduki behar da.

Zerrenda hori telefonoaren eta instalazioaren planoen ondoan kokatuta dago.

Hona hemen telefonoen indarreko zerrenda:

| TELEFONOEN ZERREDA                                | TELEFONOA   |
|---------------------------------------------------|-------------|
| LARRIALDI OROKORRA                                | 112         |
| KLUBEKO SEGURTASUNEN BURUA                        | XXX XXX XXX |
| SEGURTASUNEN KONTSEILARI DELEGATUA                | XXX XXX XXX |
| ADMINISTRAZIOA (larrialdietako buruaren ordezkoa) | XXX XXX XXX |
| KOU                                               | XXX XXX XXX |
| UDALTZAINGOA                                      | XXX XXX XXX |
| SUHILTZAILEAK                                     | XXX XXX XXX |
| OSPITALEA                                         | XXX XXX XXX |

Beharrezkoa izanez gero, goian adierazitako larrialdietako kanpoko zerbitzuei abisua emango zaie. Larrialdietako buruak edo haren ordezkioak eman beharko die abisua kanpoko zerbitzuei, eta harrera egingo die, larrialdiaren egoerari eta ezaugarriei buruzko bidezko argibideak emateko.

Klubeko langile guztiek kanpoko baliabideen argibideei jarraitu beharko diete.

Autobabes-planek alderdi gehiago biltzen dituzte, baina ez dira adibidean sartu, ez baita beharrezkotzat hartzen plan horien alderdi guzti-guztiak sakonean ezagutzea. Garrantzitsua da, nolahi ere, onarpen-zerbitzuko langileek establezimenduaren ezaugarriak eta tipologia ezagutzea eta ebakuazio-bideak non dauden (beren eremura ematen dutenak bederen), larrialdiaren edo arrisku-egoeraren arabera lan bakoitza nork egin behar duen, norengana jo behar duten edo jarraibideak norengandik jaso behar dituzten jakitea. Hau da, larrialdi edo arrisku-egoera batean zer funtzio bete behar duten jakitea eta horren arabera jokatzeko.

## 5. Unitatea. GALDERAK.

### 1. Zer dira establezimendu publikoek, ikuskizunek eta jolas-jarduerek bete beharreko baldintza teknikoak?

- a. Jendaurreko ikuskizunek, jolas-jarduerek eta horiek egiten diren establezimendu publiko edo espazioek bete beharreko segurtasun-, osasungarritasun- eta higiene-baldintzak eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak.
- b. Lokalean sartzeko baldintzak.
- c. Lokalean sartzeko bete beharreko segurtasun-baldintzak.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

### 2. Establezimendu publikoek, ikuskizunek eta jolas-jarduerek bete beharreko baldintza teknikoak honako hauen arloan eskatuko dira:

- a. Bertaratuen, langileen eta artisten segurtasuna eta ondasunen babesa.
- b. Bertaratuentzako eta langileentzako sanitatea.
- c. Sarreren iruzurrezko birsalmenta saihesteko segurtasuna.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

### 3. Establezimendu publikoek, ikuskizunek eta jolas-jarduerek bete beharreko baldintza teknikoak honako hauen arloan eskatuko dira:

- a. Egituren sendotasuna eta instalazioen funtzionamendu egokia.
- b. Babestutako ondasunen sendotasuna.
- c. Ondasunen babesaren sendotasuna.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

### 4. Establezimendu publikoek, ikuskizunek eta jolas-jarduerek bete beharreko baldintza teknikoak honako hauen arloan eskatuko dira:

- a. Instalazio elektrikoek baldintzak eta bermeak.
- b. Instalazio batzuen baldintzak.
- c. Ondasunen galeraren kasurako bermeak
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

**5. Establezimendu publikoek, ikuskizunek eta jolas-jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak honako hauen arloan eskatuko dira:**

- a. Suteak eta jardueraren beraren gainerako arriskuak aurreikustea eta haien aurkako babesa ematea eta kanpoko laguntzaren irisgarritasuna erraztea.
- b. Suteen aurkako babesa baino ez.
- c. Ondasunen galeraren prebentzioa.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**6. Establezimendu publikoek, ikuskizunek eta jolas-jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak honako hauen arloan eskatuko dira:**

- a. Osasungarritasun- eta higiene-baldintzak eta baldintza akustikoak, berariaz zehaztuta zer intsonorizazio-baldintza bete behar duten lokalek hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko, betiere zaratei buruzko legerian ezarritakoaren arabera.
- b. Osasungarritasun- eta higiene-baldintzak, beharrezkoak izanez gero.
- c. Onartzeko baldintzak.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**7. Establezimendu publikoek, ikuskizunek eta jolas-jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak honako hauen arloan eskatuko dira:**

- a. Hiri eta naturako ingurunea eta historia-, arte- eta kultura-ondarea babestea.
- b. Suteen aurkako babesa baino ez.
- c. Ondasunen galeraren prebentzioa.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**8. Establezimendu publikoek, ikuskizunek eta jolas-jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak honako hauen arloan eskatuko dira:**

- a. Irisgarritasun unibertsaleko baldintzak eta gozamen-baldintzak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, ikuskizunaz benetan gozatzea ahalbidetuko dutenak.
- b. Irisgarritasun-baldintza berdinak ikus-entzule guztientzat.
- c. Irisgarritasun-baldintzak gaitz bat izan dezaketen pertsonentzat.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

## **9. Udalek debekuak, mugak edo murrizketak ezar ditzakete ordenantza edo erregelamendu bidez.**

- a. Bai, baina establezimenduen kontzentrazioa saihesteko baino ez.
- b. Establezimendu publikoen eta jolas-jardueren kontzentrazio handiegia saihesteko edo beste giza edo gizarte-jarduera batzuekin batera egin daitezkeela bermatzeko.
- c. Udalek ez dute eskumenik.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

## **10. Autobabes-plana:**

- a. Establezimendu publikoek eta ekitaldiak egiteko gainerako lekuek larrialdi-egoerei aurre egiteko eduki behar duten plana da.
- b. Suteak saihesteko erabiltzen den plana da.
- c. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- d. Larrialdi-kasuan establezimendu publikoek baino erabiltzen ez duten plana da.

## **11. Autobabes-plana:**

- a. Autobabes-planak gaikuntza-tituluan aurreikusitako jarduera guztiak bildu beharko ditu.
- b. Autobabes-planak ez du bilduko establezimenduaren lizentzia.
- c. Autobabes-plana lantzea aukerakoa da establezimenduaren titularrarentzat.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

## **12. Autobabes-planak edukiera zehazteko erabilitako suposizioak, beharrezkoak diren giza baliabideak eta jarduteko modua jasoko ditu.**

- a. Egia
- b. Gezurra

## **13. Autobabes-planak:**

- a. Segurtasun-baldintzak aurreikus daitezkeen arriskuen arabera bermatu ahal izateko nola jokatu behar den jasotzen du.
- b. Ikuskizunaren osasungarritasun-baldintzak jasotzen ditu.
- c. Arriskuen balorazio ekonomiko bat jasotzen du.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

#### **14. Autobabes-planak:**

- a. Arriskuaren kasuan segurtasun-baldintzak bermatzeko giza baliabideak eta jarduketa-plana jasotzen ditu.
- b. Udalerrriak suteak itzaltzeko dituen baliabideak jasotzen ditu.
- c. Arriskuen balorazio ekonomiko bat jasotzen du.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

#### **15. Autobabes-planak:**

- a. Establezimenduaren edukiera zehazteko erabilitako suposizioak jasotzen ditu.
- b. Udalerrriak suteak itzaltzeko dituen baliabideak jasotzen ditu.
- c. Arriskuen balorazio ekonomiko bat jasotzen du.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

# 06

**IXTEKO ORDUTEGIAK.**

**Ordutegi orokorra.**

**Ordutegi bereziak.**

**Ordutegiak luzatzea.**

**Amaiera eta irtenaraztea.**

**Nahitaez itxita egoteko denbora**

**Lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzea.**



## 6. UNITATEA

**IXTEKO ORDUTEGIAK. Ordutegi orokorra. Ordutegi bereziak. Ordutegiak luzatzea. Amaiera eta irtenaraztea. Nahitaez itxita egoteko denbora Lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzea.**

Ixteko ordutegiak Euskal Autonomia Erkidegoan jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituen abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuan araututa zeuden (1998ko eta 2014ko aldaketekin). Dekretu hori indargabetu egin zen, ordutegien erregulazioa Ikuskizunen Erregelamenduan txertatu ondoren.

4 ordutegi-talde daude, eta katalogoko establezimendu publiko bakoitzak talde bat du esleituta. Dekretuak oinarrizko ordutegi orokor bat ezartzen du, luzapen automatiko eta metagarriekin data eta egun jakin batzuetan. Horrez gain, beste ordutegi-luzapen eta ordutegi berezi batzuk ere aurreikusten dira.

Dekretuak, gainera, ordutegiari lotutako beste alderdi batzuk arautzen ditu: nahitaez itxita edukitzeko aldia, establezimenduetatik kanpoko terrazak eta kontsumizioak, ordutegi murriztuak, itxiera eta kanporatzea eta abar.

### **32. artikulua.- Ordutegi orokorra.**

**1.- Iragarritako moduan hasi eta burutu behar dira jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak, eta kartel, programa edo iragarkietan **aurreikusitako denboran**, salbu eta **ustekabeko arrazoiek** horiek aldatzea justifikatzen badute, eta aldaketok behar besteko aurrerapenarekin jakinarazten bazaizkio jendeari.**

**2.- Ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko establezimenduak eta tokiak ixteko **ordutegi orokorra** hau izango da:**

#### **a) 1. taldea: 23:00.**

- Zezen-plazak eta aire zabaleko establezimendu kultural eta artistikoak, hala nola udako zinemak edo aire zabalekoak, autozinemak, aire zabaleko antzokiak eta auditoriumak eta abar.
- Jolas-establezimenduak
- Aire zabaleko jolas-atrakzioetarako establezimenduak.
- Aire zabaleko kirol-establezimenduak
- Jarduera zoologiko, botaniko eta geologikoko establezimenduak.
- Dastalekuak, txokolategiak, izozki-dendak, te-aretoak, zuku-dendak, croissant-dendak, ogitarteko-dendak eta parekoak.
- Taberna-kioskoak.

**b) II. taldea: 01:00.**

- Kontzertu-aretoak.
- Zirkuak eta lokal itxietako bestelako establezimendu kultural eta artistikoak.
- I. taldean sartzen ez diren kirol-establezimenduak.
- Lokal itxietako jolas-atrakzioetako establezimenduak.
- Ferietako eta herriko dantzaldietako esparruak.
- Azoka-pabiloiak.
- I. edo III. taldeetan sartzen ez diren ostalaritzako establezimenduak.
- Txokoak eta elkarte gastronomikoak.
- Erretzaileen elkarte pribatuak.
- Gazteen lokalak.

**c) III. taldea: 2:30.**

- Pubak eta taberna bereziak.
- Aisialdi erotikoko establezimenduak.

**d) IV. taldea: 4:30.**

- Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak, adingabeentzako edo gazteentzako saioetarako ezarritakoari kalterik egin gabe.

3.- Joko-establezimenduak ixteko ordu orokorra ondorengo izango da. Luzapen automatikoak beste edozein establezimendu publikotan bezala aplikatuko dira.

**II. taldea: 01:00.** Joko-aretoak, apustu-etxeak, hipodromoak, kanodromoak.

**III. taldea: 3:30.** Bingo-aretoak

**IV. taldea: 4:30.** Joko-kasinoak.

**Ordutegien luzapen automatikoak eta metagarriak honako hauek dira:**

Establezimenduen eta bestelako ikuskizun eta jardueren amaiera-ordu orokorra **metatuz luzatuko da**, honako kasu hauetan:

**a) Ordu eta erdi ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan.**

**b) Ordu-erdi ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.**

**c) Gehienez ere bi ordu udal-baimenagatik, Dekretu honen 37. artikuluan zehaztu bezala.**



Ondorengo koadroan, ordutegi-luzapen automatikoak agertzen dira, baita udalak bere eskumenen barruko ordutegi-luzapen bat ematen duen kasuan establezimendu bakoitzak izango duen gehieneko ordutegiaren adibide bat ere.

|             | Negua<br>(urtarrilak 1 - maiatzak 31 /<br>urriak 1 – abenduak 31) |                                                             | Uda<br>(ekainak 1 – irailak 30)                             |                                                             | Udalaren<br>ordutegi-<br>luzapena<br>(+2 ordu) |
|-------------|-------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|------------------------------------------------|
|             | Igandea-<br>osteguna<br>(ordutegi<br>orokorra)                    | Ostiralak,<br>larunbatak eta<br>jai-bezperak (+1,5<br>ordu) | Igandea-<br>osteguna<br>(ordutegi<br>orokorra +0,5<br>ordu) | Ostiralak,<br>larunbatak eta<br>jai-bezperak<br>(+1,5 ordu) | Izan dezaketen<br>ordutegirik<br>luzeena       |
| I. TALDEA   | 23:00                                                             | 00:30                                                       | 23:30                                                       | 01:00                                                       | 03:00                                          |
| II. TALDEA  | 01:00                                                             | 02:30                                                       | 01:30                                                       | 03:00                                                       | 05:00                                          |
| III. TALDEA | 02:30                                                             | 04:00                                                       | 03:00                                                       | 04:30                                                       | 06:30                                          |
| IV. TALDEA  | 04:30                                                             | 06:00                                                       | 05:00                                                       | 06:30                                                       | 08:30                                          |

### Amaiera eta jendea kanporatzea

Ixteko ordutik aurrera, 30 minutu emango dira lokala husteko. Ixteko ordua iristen denean, musika edo edozein ikuskizun, emanaldi, erakustaldi, edo proiektzio etengo da, baita ikusleei edo erabiltzaileei eskainitako edozein soinu-iturri ere; makinak itzali egingo dira (joko-makinetan jokaldia amaitzen utziko da), eta ateak itxiko dira. Lokala husteko 30 minutu horien ondoren, establezimendua egokitzeaz eta garbitzeaz arduratutako pertsonak baino ezin izango dira egon barruan.

### 33. artikulua. Amaiera eta irtenaraztea

1.- Establezimendu edo instalazio iraunkorra zein aldi batekoa ixteko ordua, edo jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera amaitzekoa, iristen denean, honako neurri hauek hartuko dira lokalaren titularren ardurapean:

- Musika, ikuskizuna, errepresentazioa, emanaldia, proiektzioa edo jarduna amaitzea, baita** lokalean izan litekeen **edozer soinu-iturri** eta erabiltzaileentzako zerbitzu amaitzea ere.
- Edozein eratako makina, aparatu edo joko-sistemaren **funzionamendua geratzea**. Hala ere, jokalaria agortu ahal izango ditu ixteko orduaren aurretik zeuzkan **joko-kredituak**. Era berean, jokorako lokaletan ezingo da partida edo jokorik hasi.
- Lokalean sartzeko **ateak ixtea** eta erabiltzaile potentzialei **sartzen ez uztea**.
- Lokalean geratzen diren erabiltzaileak ateratzea**, lokalerako, instalaziorako, ikuskizunerako edo jolas-jarduerarako aurreikusitako itxiera-ordutik kontatzen hasi eta

**30 minutura beranduenez.** Une horretatik aurrera, **lokala egokitzen eta garbitzen dihardutenak** bakarrik geratu ahal izango dira.

2. **Baimena behar duten lokal itxietan egindako ikuskizunek eta jarduerak** artikuluko honen 1. apartatuko c) letran aurreikusitako **denbora izango dute lokala husteko**, baldintza berberekin. Baimendutako gehieneko edukierak hala gomendatzen duenean, baimenak berak zehaztu ahal izango du husteko denbora egokia.

3. Artikulu honetako 1. apartatuko b) letran zehaztutakoa kasinoen araudiko zirkulujokoetarako xedatutakoari kalterik egin gabe ulertuko da.

**Itxita edukitzeko gutxieneko aldia:** III. eta IV. taldeetako establezimenduetan, itxita edukitzeko 3 orduko nahitaezko aldi bat egongo da (lehen 6 ordukoa zen).

*“Lokaletarako edo III. eta IV. taldeetan jasotako jardueretarako ezarritako amaiera edo itxiera-orduaren –benetan bete edo ez– eta irekitzeko edo hasteko orduaren artean **gutxienez hiru ordu** igaro beharko dira”.*

*Debekatuta dago eragozpenak sor ditzaketen ikus-entzunezko aparatuak 11:00ak baino lehen erabiltzea.*

***“Debekatuta dago ikus-entzunezko edo musikako ekipoen funtzionamendua, baita emanaldiak, dantzako pistak eta tankerakoak ere, eta, oro har, zarata gogaikarriak eragin ditzakeen edozer jarduera 11:00ak baino lehen”.***

**Lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzeari dagokionez:** debekatuta dago lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzea 23:00etatik aurrera (ordutegi orokorraren luzapenei kalterik egin gabe). Udalak muga handiagoak ezar ditzake.

Terrazen ordutegia udalak lizentzian edo gaikuntza-tituluan emandakoa izango da.

Baimendutako ordutik aurrera bezeroak edariekin kalera irtetea eragozteko betebeharra izango du establezimenduaren titularrak. **Onarpen-zerbitzuko langileen funtzioetako bat da** bezeroei edariarekin kanpora irteterik ez dagoela jakinaraztea.

### **35. artikulua.- Lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzea.**

1. Debekatuta dago lokalen kanpoan edariak kontsumitzea **23:00etatik** aurrera, 37. artikuluko 6. paragrafoan aurreikusitako ordutegi orokorraren luzapenei kalterik egin gabe. Hala ere, udal bakoitzak ezarri ahal izango ditu **muga zorrotzagoak, udal-ordenantzen bidez.**

2. Terrazak eta antzekoak ixteko **ordua gaikuntza-tituluan ezarritakoa izango da**, tokiko ordenantzek xedatutakoaren arabera. Berariaz ezartzen ez bada, aurreko paragrafoan zehaztutakoa aplikatuko da.

3. Establezimenduen titularrek, **aurreko erregelen arabera dagokien ordutik aurrera, erabiltzaileek edariak** lokaletik kanpora **ateratzea galaraziko dute; horrek ez ditu erabiltzaile horiek salbuetsiko ateraz gero izango luketen erantzukizunetik.**

Eusko Jaurlaritzak **ordutegi bereziak** baimendu ahal izango ditu, udalari kontsulta egin ondoren eta baldintza horiek betetzen dituzten lokaletan, betiere jarduerak edo ikuskizunak beste ordutegi bat justifikatzen badu, honako kasu hauetan:

- Hirigunetik kanpo edo errepideetan dauden lokalak edo instalazioak
- Aireportu, portu, tren-geltoki eta autobus-geltokietan dauden lokalak eta instalazioak, eta langileen zerbitzura daudenak eta bidaiarien eta gaueko edo goizaldeko ordutegiak dituztenak.
- Ordutegi desberdina justifikatzen duten jolas-jarduerak, ikuskizunak, jarduerak eta gertaerak.

### **Ordutegi bereziak.**

1.- **Establezimendu, ikuskizun edo jolas-jardueraren ezaugarriak direla eta justifikatuta dagoenean ordutegi berezia jartzea**, ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak baimena eman ahal izango du ordutegi orokorra luzatzeko, honako kasu hauetan:

- a) Udalerrietako **herrigunetik kanpo** edo errepideetan dauden lokalak edo instalazioak.
- b) **Aireportu, portu, tren-geltoki, autobus-geltoki eta tankerakoetan** dauden lokalak eta instalazioak, eta nagusiki bidaiarien eta langileen zerbitzura daudenak eta gauparteko zein goizaldeko ordutegiak dituztenak.
- c) Ezaugarri espezifikoak edo ezohikoak kontuan izanda **ordutegi desberdindua ezartzea justifikatzen duten** jolas-jarduerak eta bestelako ikuskizunak.

2.- Ordutegi berezia baimentzeko prozedura alderdi interesdunak edo dagokion udalak eskatuta hasiko da. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe horretan ebazpenaren jakinarazpenik jasotzen ez bada, interesdunak ulertu ahal izango du eman diotela eskatutako baimena.

3.- Ebazpenaren aurretik, dagokion **udalari txostena eskatuko zaio**, eskatutako ordutegi-luzapenak inguru horretan izan dezakeen eraginari buruz.

4.- Baimena emateko ebazpena **baldintzatu ahal izango da zuzenketa-neurri gehigarri batzuk bete behar izatera**, bizilagunei eragozpenik ez egiteko, eta ebazpena ezezkoa izango da baldin eta ordutegia zabaltzeak segurtasun-arazoak, bizikidetzakoak, osasun publikoko arriskuak edota hirugarrenentzako eragozpenak eragiten baditu.

5.- Ordutegi bereziaren baimena **ez da metatuko** udalek dekretu honen arabera eman ditzaketen beste ordutegi-luzapen batzuekin; prekarioan emango da, eta errebokatu egin ahal izango da baimena emateko kontuan izandako inguruabarrak aldatzen badira.

**Udalek, gainera, gehienez ere bi ordutan luzatu ahal izango dute ordutegia,** honako hauek direla eta:

- Udalak edo Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunak jai-giroko edo interes turistikoko gisa kalifikatutako ekitaldiak: ospakizun publikoak, auzoetako jaiak, azoka- edo gizarte-izaerako gertaerak, lehiaketak, erakusketak eta abar.
- Herriko jaiak.
- Aste Santuko ostegunetik astelehenera, inauterietako ostegunetik asteartera, eta, gabonetan, abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra.

Halaber, gerora etorritako salbuespenezko inguruabarrengatik luzatu ahal izango da ordutegia (herriko futbol-taldea Champions League-ko finalerako sailkatzen den kasuan, adibidez).

1.- Udal-agintariak **gehienez ere bi orduz** luzatu ahal izango dute ixteko ordua, honako ekitaldietakoren bat dela eta:

- a) **Udalak berak edo Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunak jai-giroko edo interes turistikoko** sailkatutako ekitaldiak, hala nola ospakizun publikoak, auzoetako jaiak, gizarte- edo azoka-izaerako gertaerak, lehiaketak, erakusketak eta tankerako bestelakoak, urte naturaleko gehienez ere hamabost eguneko mugarekin.
- b) **Herriko festak**, udal bakoitzak bere udal-mugarterako ofizialki ezarrita dauzkatenak.
- c) **Aste Santuko ostegunetik astelehenera, inauterietako ostegunetik asteartera, eta, gabonetan, abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra.**

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, era berean, ordutegi orokorra luzatu ahal izango dute gehienez ere bi orduz eta **urte naturaleko hamabost eguneko** gehieneko mugarekin, artikulua honen 1. apartatuko a) letran aurreikusitakoen tankerako inguruabar aparteko eta ezohiko gerora sortutakoen arabera.

3.- **Auzoetako jaien** edota udal-mugartean definitutako lurralde-eremu baten barruan mugatutako bestelako gertaeren kasuan, udalak zehaztu ahal izango du ordutegi berezia udalerriko lurralde-eremu jakin horretarako dela.

4.- Ordutegiak luzatzeko aurreikusitako prozedura ofizioz hasi ahal izango da, edota establezimenduen titularrek edota interesak biltzen dituzten enpresa-elkarteek eskatuta.

*Alderdi baten eskariz hasten bada artikulu honetako 1. apartatuko kasuetan ordutegiak zabaltzeko prozedura, ebazpena eman eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da. Artikulu honetako 2. apartatuak aipatzen dituen kasuetan, eskaera gutxienez luzapena eskatzen den data baino hamar egun lehenago egin beharko da, eta luzapenaren eskaerari buruzko ebazpena indarrean jartzeko eskatutako data baino 72 ordu lehenago eman eta jakinarazi beharko da.*

*Epe horretan ebazpenaren jakinarazpenik jasotzen ez bada, interesdunak eskaera baietsi egin diotela ulertu ahal izango du.*

*5.- Litekeena da ordutegiak luzatzeko udal-ebazpenak lokalei hainbat zuzenketa-neurri berezi ezartzea, hala nola zarata-maila edo gehiegizko bibrazioak kontrolatzeko, arintzeko edota ezabatzeko gailuak instalatzeko betebeharra.*

*Baimena emateko ebazpenaren publizitatea egingo zaie herritarrei, eta ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzari komunikatuko zaio.*

*6.- Udalak baimendutako lokalen kanpoaldeko terrazen eta tankerakoen ordutegia udalak instalazio horietarako ezarritakoa izango da, betiere Dekretu honetan ezarritako muga barruan.*

*7.- Herriko edo auzoko festak direnean, udalak ezarri ahal izango ditu txosna herrikoien eta establezimenduen kanpo-megafonian onartuko diren gehieneko soinu-mailak, orduaren eta zonaren arabera. Era berean, udalek erabaki ahal izango dute jarduera horiek segitu ahal izango duten megafoniarik gabe.*

Kontuan hartu behar da ordutegien araubide orokorra dela hori. Baliteke udal-ordenantza sektorial batzuek ordutegi **murritzailleagoak** sartzea: ostalaritzako ordenantzak, merkataritza-ordutegienak, zaratenak edo kutsadura akustikoarenak eta abar. Kasu horietan, udal-araudiari jarraitu beharko zaio.

## 6. Unitatea. GALDERAK.

### 1. Non daude araututa jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak?

- a. Abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuan.
- b. Ikuskizunen Erregelamenduan.
- c. Ikuskizunetarako poliziaren Erregelamendua.
- d. Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan (Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretua).

### 2. Ixteko ordutegi orokorrari dagokionez, honako establezimendu hauek I. taldekoak dira:

- a. Zezen-plazak eta aire zabaleko kirol-establezimenduak.
- b. Kontzertu-aretoak eta erretzaileen klub pribatuak.
- c. Gazteen lokalak eta txokoak.
- d. Pubak eta taberna bereziak.

### 3. Ixteko ordutegi orokorrari dagokionez, honako establezimendu hauek II. taldekoak dira:

- a. Aire zabaleko jolas-atrakzioetarako establezimenduak eta taberna-kioskoak.
- b. Dastalekuak.
- c. Azoka-pabiloiak, ferietako eta herriko dantzaldietako esparruak.
- d. Aisialdi erotikoko establezimenduak.

### 4. Ixteko ordutegi orokorrari dagokionez, honako establezimendu hauek III. taldekoak dira:

- a. Jarduera zoologiko, botaniko eta geologikoko establezimenduak.
- b. Pubak eta taberna bereziak.
- c. Zirkuak eta lokal itxietako bestelako establezimendu kultural eta artistikoak.
- d. Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak.

### 5. Ixteko ordutegi orokorrari dagokionez, honako establezimendu hauek IV. taldekoak dira:

- a. Jarduera zoologiko, botaniko eta geologikoko establezimenduak.
- b. I. eta III. taldeetakoak ez diren ostalaritza-establezimenduak.
- c. Aisialdi erotikoko establezimenduak.
- d. Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak.

## 6. Zein da joko-areto bat ixteko ordua?

- a. Kasino baten ordu bera.
- b. 01:00ak, II. taldekoa baita.
- c. 23:00ak, I. taldekoa baita.
- d. Udalak ixteko egokitzen hartzen duen ordua jar dezake.

## 7. Zein da joko-areto bat ixteko ordua?

- a. Apustu-etxe baten ordu bera.
- b. Joko-lokal guztiek ordu bera dute.
- c. 04:00ak, II. taldekoa baita.
- d. Ordua lokalak dituen makinen kopuruaren arabera izango da.

## 8. Zein da bingo bat ixteko ordua?

- a. Kasino baten ordu bera.
- b. 03:30.
- c. 02:30a, II. taldekoa baita.
- d. Kartoiak amaitzen direnean.

## 9. Noiz luzatzen da establezimenduak ixteko eta beste ikuskizun edo jarduera batzuk amaitzeko ordua?

- a. Ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan.
- b. Pintxo-potea dagoen egunetan.
- c. Udalak eskatzen edo erabakitzen duenean baino ez.
- d. Inoiz ez.

## 10. 32.8 artikulua establezimenduak ixteko eta beste ikuskizun batzuk amaitzeko ordutegi orokorra luzatzea baimentzen du, honako kasu hauetan:

- a. Ordu eta erdi ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan.
- b. Herriko jaien kasuan, ordu-erdi gehiago.
- c. Ezin da ordutegia luzatu Udalaren baimenik gabe.
- d. Ezin da ordutegi orokorra aldatu.

**11. 32.8 artikulua establezimenduak ixteko eta beste ikuskizun batzuk amaitzeko ordutegi orokorra luzatzea baimentzen du, honako kasu hauek:**

- a. Ordu-erdi ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.
- b. Ordu eta erdi ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.
- c. Bi ordu gutxienez.
- d. Ezin da ordutegia luzatu Udalaren baimenik gabe.

**12. 32.8 artikulua establezimenduak ixteko eta beste ikuskizun batzuk amaitzeko ordutegi orokorra luzatzea baimentzen du, honako kasu hauek:**

- a. Bi ordu gehienez, udal-baimenarekin eta jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren dekretuan aurreikusitako baldintzetan.
- b. Ordu-erdi irailaren 30etik ekainaren 1era bitartean.
- c. Bi ordu gutxienez, udal-agintaritzak esku hartu ondoren.
- d. Ezin da ixteko ordutegi orokorra luzatu.

**13. Establezimendua ixteko ordua iristean:**

- a. Musikak, ikuskizunak, emankizunak, erakustaldiak, proiektzioak, saioak edo lokalean dagoen beste edozein soinu-iturrik amaitu egin behar du.
- b. Bertaratuak berehala irtenarazi behar dira.
- c. Kaleko atea itxi behar da.
- d. Edonola ere, makinak itzali egin behar dira.

**14. Establezimendua ixteko ordua iristean:**

- a. Musikak amaitu egin behar du, baina ikuskizuna amaitzen utziko da.
- b. Lokalean geratzen diren erabiltzaileak irtenaraziko dira, 30 minutuko epean beranduenez.
- c. 15 minututan hustuko da.
- d. Edaria amaitzen ari diren erabiltzaileei geratzen utziko zaie.



**15. Establezimendua ixteko ordua iristean:**

- a. Makinen, aparatuen edo joko-sistemen funtzionamendua gelditu beharko da, baina jokalariai agortu ahal izango ditu ixteko orduaren aurretik zeuzkan joko-kredituak.
- b. Makinen, aparatuen edo joko-sistemen funtzionamendua gelditu beharko da.
- c. Atea ireki ahal izango da kredituak oraindik amaitu ez dituen bezeroak hori eskatzen badu.
- d. Makina piztuta eduki ahal izango da establezimenduaren lizentzian hori jasota badago.

**16. Zer ordutik aurrera dago debekatuta edariak lokalen kanpoaldean kontsumitzea?**

- a. 23:00etatik aurrera, ordutegi orokorraren luzapenak galarazi gabe.
- b. 22:00etatik aurrera, ordutegi orokorraren luzapenak galarazi gabe.
- c. 22:30etik aurrera.
- d. 23:00etatik aurrera.

**17. Zein da terrazak ixteko ordua?**

- a. Gaikuntza-tituluan ezarritakoa, tokiko ordenantzek xedatutakoaren arabera.
- b. Dagokion tabernaren ordu bera.
- c. 17/2019 Dekretuan finkatutakoa.
- d. 23:00ak.

**18. Zer kasutan baimendu ditzake ordutegi bereziak Eusko Jaurlaritzak?**

- a. Lokala edo instalazioa herrigunetik kanpo edo errepideetan badago, bidaiarien eta gaueko zein goizaldeko ordutegiak dituzten langileen zerbitzurako leku batean kokatuta badago edota ordutegi desberdindua ezartzea justifikatzen duen joko-jarduera, ikuskizun, jarduera edo gertaera bat bada.
- b. Lokala geltoki, portu edo aireportu batetik hurbil badago.
- c. Lokala III. taldekoa edo IV. taldekoa bada.
- d. Dagokion udalak eskatzen badu.

## 19. Zer kasutan luza dezake ordutegia Udalak?

- a. Jai-giroko edo interes turistikokotzat hartutako ekitaldien, herriko edo auzoko jaien eta gerora sortutako ezohiko inguruabarren kasuan.
- b. Herri-aldarrikapen bidez jaitzat hartutako ekitaldien kasuan.
- c. Udalak ezin du ordutegia ezein kasutan luzatu.
- d. Jai-girokotzat edo interes turistikokotzat hartutako ekitaldien kasuan, baina III. eta IV. taldeetako establezimenduetan baino ez.

## 20. Udalek honako ordutegi-luzapen berezi hau ezar dezakete:

- a. Bi ordu gehienez.
- b. Hiru ordu gehienez.
- c. Ordubete gutxienez.
- d. Ez du mugarik.

# 07

ADINGABEEN ARAUBIDE JURIDIKOA.  
Sartzeko mugak eta debekuak.  
Salbuespenak.  
Adinaren arabeko sailkapena.



## 7. UNITATEA

### ADINGABEEN ARAUBIDE JURIDIKOA. Sartzeko mugak eta debekuak. Salbuespenak. Adinaren arabera sailkapena.

Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak adingabeen babesa ezartzen du, eta jendaurreko ikuskizun, jolas-jarduera eta establezimendu publiko jakin batzuetarako sarrera mugatzen die. Halaber, ahalmena ematen dio establezimenduaren titularrari edo jendaurreko ikuskizunaren edo jolas-jardueraren antolatzaileari nortasun-agiri nazionala edo antzekoa eskatzeko eta, era horretan, adina egiaztatzeko. Ikuskizunak adingabeen nortasuna edo prestakuntza behar bezala garatzeko arriskuren bat izan dezaketela uste baldin bada, adinaren arabera kalifikatu beharko dira.

#### 19. artikulua.- Adingabeak babestea.

1.- Haurrak eta nerabeak babesteko, artikulua honetan aurreikusitako mugak ezartzen dira adingabeak jendaurreko ikuskizunetan, jolas-jardueretan eta establezimendu publikoetan sartzeko eta haietan egoteko.

2.- **Adingabeak ezin izango dira establezimenduetan sartu edo egon, baldin eta adingabeentzat desagokitzat jotako jarduerarik edo erakusketarik egiten bada establezimenduan, edo adingabeentzat material edo informazio desagokia zabaltzen bada edozein bitartekoz. Bereziki debekatuta dago:**

a) Hemezortzi urtetik beherakoak sartzea edo egotea lege honetako katalogoan azaltzen diren **erakusketa-areto berezietan**, baldin eta proiektzioak, **erakusketak edo zuzeneko emanaldiak pornografikoak badira, muturreko biolentzia erakusten badute** edo, edukian erreparatuta, **adin nagusikoentzat** badira.

b) Adingabeak **joko-establezimenduetan eta -lokaletan** sartzea eta egotea; betiere berariazko araudiaren arabera.

c) **Adingabeak dantzalekuetan, dantza-aretoetan eta diskoteketan** sartzea eta egotea, kalterik egin gabe **adingabeentzako saioak** egiteko baimena duten dantza-areto edo diskotekei buruz edota **gazte-aretoei** buruz xedatutakoari.

d) **Hamasei urtetik beherakoak taberna berezietan, pub eta disko-tabernetan sartzea eta egotea, salbu adin nagusikoekin daudenean, alkoholik kontsumitu barik eta 22:00ak arte.**

3.- Antolatzaileek adinaren arabera sailkatu eta mailakatu beharko dute sartzea, **erregelamenduz ezartzen den moduan**, baldin eta antolatzen dituzten jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak **arriskutsuak izan badaitezke adingabeen nortasuna garatzeko edo haiek prestatzeko**. Sailkapen hori, berriz, ondo ikusteko moduan azaldu beharko da kanpoko karteletan, publizitatean eta sarreretan.

4.- Establezimendu eta instalazioek bezeroei Interneteko sarbidea eskainiz gero, **edukiak murriztu, eta kautelak ezarri beharko dituzte adingabeak sartu ez daitezen** nortasunaren garapenean eta prestakuntzan kalte egin diezaiekeen informazioan. Edonola ere, **debekatuta dago adingabeak ziberkafetegietan sartzea, baldin eta Interneteko informatika-sareetako konexioek ez badiote** erabiltzaileen **adinari inolako mugarik jartzen**.

5.- Dantza-areto edo diskotekek **adingabeentzako saioak** prestatu ditzakete, zeinetan onartuko baita **hamalau eta hemezortzi urte bitarteko gazteak** sartzea eta bertan egotea. Horretarako, gutxienez, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Adingabeentzako saioei buruz establezimendu horiek egiten duten publizitateak ez du adingabeentzako erreferentzia edo mezu desagokirik eduki edo aipatuko, ez zuzenean, ez zeharka.

b) **Debekatuta** dago edari **alkoholdunik edo tabakorik** ematea edo saltzea.

c) Establezimendu publiko horiek irekita daudenean, **ezin da ustiatu** zorizko jolas-makinarik edo -sistematik.

d) Establezimendua ezin izango da itxi erregelamenduz ezarritako ordua baino beranduago. Dena den, ordubete pasatu eta gero, lokala berriro ireki ahal izango da, baina ez zaie hemezortzi urtetik beherakoei sartzen utziko.

e) Ezin izango da ikuskizunik egin, apaingarririk jarri edo propagandarik egin adingabeen osotasun fisiko, psikiko edo morala arriskuan jartzen badute.

6.- **Bertaratzen den jendearen adina egiaztatzeko, nortasun-agiri nazionala edo agiri horren baliokidea erakusteko eska dezakete establezimendu publikoen edo instalazioen titularrek eta jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileek, zuzenean edo beren zerbitzura dauzkaten langileen bitartez. Ez diete sartzen utziko** adina dokumentu bidez **egiaztatzen ez** dutenei edo, lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako, adinaren eskakizuna betetzen ez dutenei; barruan egonez gero, **irtenaraziko** dituzte, zuzenean edo beren zerbitzura dauzkaten langileen bitartez.

7.- Adingabeei **ezin izango zaie edari alkoholdunik edo tabakorik saldu edo eman** jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak antolatzen dituzten establezimenduetan edo instalazioetan sartzen direnean, eta gai horiei buruz indarrean dagoen legeria beteko da.

Erregelamenduak puntu hori garatu eta zehaztu egiten du.

## **52. artikulua.- Adingabeei sartzea eta egotea galaraztea.**

1.- Hemezortzi urtetik beherakoak ezingo dira sartu eta egon, ez bakarrik eta ezta adin nagusikoek lagunduta ere, honako hauetan:

a) **Exhibizio-areto bereziak, baldin eta proiektzioak, exhibizioak edo zuzeneko aktuzioak pornografikoak badira, muturreko biolentzia erakusten badute edo, edukiari erreparatuta, adin nagusikoentzat bakarrik badira.**

- b) **Aisialdi erotikoko** establezimenduak.
- c) **Jokorako** establezimendu eta **lokalak**, bertako araudi espezifikoak debekatzen badu.
- d) **Dantzarako eta dibertsiorako** establezimenduak, artikuluko honetako hirugarren paragrafoan aurreikusitakoa baztertu gabe eta adingabeentzako saioak edo gazte-aretoak izan ezik.
- e) **Eduki pornografiko edo erotiko esplizitua**, errepikakorra edo bisualki xehetasun handikoa duten **ikuskizun edo jolas-jarduerak**.
- f) **Indarkeriaren apologia argi eta garbi egiten duten ikuskizunak edo jolas-jarduerak**. Bereziki, muturreko indarkeriako eta pertsonen edo animalien kalte fisiko larria modu krudel eta laidogarrian egiten zaien eszenen deskripzio bisual xehea, errepikatua edo guztiz akritikoa dutenak.
- g) **Muturreko indarkeria duten borroka edo konbateko kirol-jardueren** lehiaketa edo exhibizioak, **Nazioarteko Batzorde Olimpikoak** edota Estatuko zein Autonomia Erkidegoko kirol-federazioek **onartu gabeak** badira.
- h) Antolatzaileak **hemezortzi urtetik beherakoentzat desegokitzen jotzen dituen** gainerako ikuskizun edo jolas-jarduerak.

2.- Hamasei urtetik beherakoak ezingo dira sartu eta egon **edari alkoholikoen zerbitzatzen dituzten establezimendu publiko itxietan**, nola eta ez dauden gurasoekin edo pertsona arduradunarekin. Hamasei urtetik beherakoak **22:00ak arte** sartu eta egon ahal izango dira taberna berezietan, pub-etan eta disko-tabernetan.

3.- Dantzarako eta dibertsiorako establezimendu diren kontzertu-aretoetan kontzertuak izanez gero, **kontzertu-jarduera ondo bereizita egongo da dantza- eta dibertsio-jardueratik**, bai jardueraren hasierari bai amaierari dagokienez, eta **kontzertua amaitutakoan hemezortzi urtetik beherako guztiak irten egingo dira**.

## 55. artikulua.- Sailkapena adinaren arabera.

1.- **Antolatzaileak jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera sailkatu beharko du, adingabeen nortasuna edo prestakuntza egokiro garatzeko arriskurik izan litekeenean, eta sarrera adinaren arabera** mailakatuko du, honako kategoria hauen arabera:

- a) Ez da gomendatzen zazpi urtetik beherakoentzat.
- b) Ez da gomendatzen hamabi urtetik beherakoentzat.
- c) Ez da gomendatzen hamasei urtetik beherakoentzat.
- d) Ez da gomendatzen hemezortzi urtetik beherakoentzat.

2.- Antolatzaileak, era berean, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera haurrentzat gomendatua edo ikus-entzule ororentzat egokia den zehaztu ahal izango du.

3.- Jendaurreko ikuskizunaren edo jolas-jardueraren publizitatean, kanpoko karteletan eta sarreretan, **adinen arabera sailkapena ipini beharko du, halakorik izanez gero.**

4.- Zinemagintzako eta ikus-entzunezko obren kalifikazioa egiteko, horretarako araudi espezifikoa jarraituko zaio.

Laburbilduz, honako hauek dira 18 urtetik beherako gazteak establezimendu edo ikuskizun jakin batzuetan sartzeari lotutako alderdirik garrantzitsuenak, edo eztabaidatuenak bederen:

- Ezin izango dira sartu, nahiz eta lagunduta joan, adingabeentzat ez-egoki gisa sailkatutako ikuskizunetan, izaera pornografikoko edo muturreko indarkeriako proiektzio, erakustaldi edo emanaldietan, aisialdi erotikoko establezimenduetan, joko-lokaletan, indarkeriaren apologia argi eta garbi egiten duten ikuskizun edo jolas-jardueretan eta federazio batek edo Nazioarteko Olinpiar Batzordeak aitortu gabeko muturreko indarkeriako borroka edo konbateko txapelketa edo erakustaldietan.
- Ezin izango dira dantzarako eta dibertsiorako establezimenduetan sartu, adingabeen eta gazteen saioetarako xedatutakoaren kasuan izan ezik. Beste salbuespen bat egongo da dantzarako eta dibertsiorako establezimendua kontzertu-aretoa ere badenean: adingabeek sartzeko aukera izango dute kontzertu-jarduera dantza- eta dibertsio-jardueratik guztiz bereizita dagoenean, bai jardueraren hasieran, bai amaieran. Eta kontzertua amaitu ondoren, 18 urtetik beherako guztiak irtenarazi beharko dituzte.
- 16 urtetik beherakoak ezin izango dira sartu edari alkoholodunak zerbitzatzen dituzten establezimendu publiko itxietan, gurasoekin edo beren arduradunekin joaten direnean izan ezik. Eta denbora-muga bat izango dute taberna berezien, puben eta disko-tabernen kasuan: 22:00ak.

### **Adingabeentzako saioak eta gazteentzako saioak.**

Adingabeentzako saioak hamalau urtetik hemezortzira bitarteko pertsonen zuzendutakoak dira, Erregelamenduan ezarritako baldintzetan (56. Artikulua):

- 12:00etan hasi eta I. taldeko establezimenduen amaiera-ordura arte funtzionatu ahal izango dute.
- Gutxieneko adina 14 urtekoa izango da.
- Debekatuta dago edari alkoholodunak saltzea, kontsumitzea, zerbitzatzea edo erakustea.
- Debekatuta dago tabakoaren produktuak saltzea eta makinak piztuta edukitzea.
- Saioak egingo direla iragartzeko kartel bat jarri behar da kanpoaldean, ikusteko moduko tokian.



- Publizitateak ezin izango du saioen edukiari eta saioak egiteko baldintzei buruz egiazkoa ez den mezu edo ideiarik jaso edo iradoki.
- Debekatuta dago edozein joko- edo apustu-modalitate egitea. Makinarik izanez gero, itzalita egongo dira.
- Ezin izango da adingabeen osotasun fisiko, psikiko edo morala arriskuan jartzen duen ikuskizunik egin eta apaingarririk jarri.

Gazteentzako saioak dantza- eta dibertsio-establezimenduetan pertsonen talde homogeneoetarako egiten diren ezohiko saioak dira, betiere ez badago sarreraren banaketa komertzialik. Hamasei urtetik gorako adin-taldeentzako saioak dira, baina ez dira adingabeentzat soilik. Aitzitik, adindunentzat ere irekita daude, baina kontuan hartu behar da pertsonen talde homogeneoak izan behar dutela, hau da, pertsonen adinek antzekoak izan behar dutela. (Batez ere jai akademikoetarako pentsatuta dagoen figura da. Jai horietan, ikasketa-maila bereko pertsonak elkartzen dira beren guneak partekatu ahal izateko, eta batzuek hemezortzi urteak beteta dituzte eta beste batzuek ez).

Saio horien ordutegia bat etorriko da II. ordutegi-taldeko establezimenduetarako agindutakoarekin (mugako ordua: 01:00ak).

Halaber, kontuan hartu behar da hemezortzi urtetik beherako gazteei aplikatu beharreko gainerako murrizketak.

## **56. artikulua.- Adingabeentzako saioak.**

*1. Dantzarako eta dibertsiorako ostalaritza-establezimenduek hamalau urtetik gorako eta hemezortzi urtetik beherakoei zuzendutako saioak egin ahal izango dituzte, baldin eta saio horiek honako baldintza hauek errespetatzen badituzte:*

- a) 12:00etan hasi eta I. ordutegi-taldeko establezimenduen amaiera-ordura arte funtzionatu ahal izango dute. Adingabeentzako saioaren amaieraren eta establezimenduaren ohiko jardueraren hasieraren bitartean gutxienez ordubete igaro behar da.*
- b) Gutxieneko adina hamalau urte beteta edukitzea izango da.*
- c) Adingabeentzako saioetan debekatuta dago edari alkoholduak saltzea, kontsumitzea, zerbitzatzea edo erakustea.*
- d) Debekatuta dago tabakoaren produktuak saltzea. Tabakoa saltzeko makinak deskonektatuta egongo dira.*
- e) Kartel bat jarri behar da, ikusteko moduko tokian eta kanpotik irakur daitekeena, saioak egingo direla iragartzeko.*



*f) Publizitateak edo propagandak ezingo du adingabeentzako saioen edukiari eta ospakizun-baldintzei buruzko mezu edo ideia engainagarriarik edo egiazkoa ez denik ipini.*

*g) Debekatuta dago edozer joko- edo apustu-modalitate egitea adingabeentzako saioetan. Establezimenduan jokorako makina edo sistemarik izanez gero, itzalita egongo dira saioetan.*

*h) Ezin izango da adingabeen osotasun fisiko, psikiko edo morala arriskuan jartzen duen ikuskizunik edo jolas-jarduerarik egin edo apaingarririk jarri.*

*2.- Udalek, ezohiko inguruabarrak kontuan izanda, urtean gehienez ere 15 egun ezarri ahal izango dituzte adingabeentzako saio hauetarako, artikulua honetan ezarritako ordutegiez bestelakoekin.*

### **57. artikulua.- Gazteentzako saioak.**

*1.- Hamasei urtetik gorakoak dantzarako eta dibertsiorako establezimenduetara sartu ahal izango dira, pertsona talde homogeneoetarako ezohiko saioak egiten direnean, baldin eta ez badago sarreren banaketa komertzialik.*

*2.- Saioen ordutegia II. taldeko establezimenduetarako zehaztutakoa izango da, eta kontuan izan beharko dira aurreko artikuluan hemezortzi urtetik beherakoentzat ezarritako gainerako mugak.*

## 7. Unitatea. GALDERAK.

### 1. Adingabeak EZIN dira sartu:

- a. Exhibizio-areto berezietan, proiektzioak, exhibizioak edo zuzeneko emanaldiak pornografikoak direnean edo muturreko indarkeria erakusten dutenean.
- b. Zinema-aretoetan, hamarretatik aurrera hasten diren saioen kasuan.
- c. III. taldeko lokaletan.
- d. II. taldeko lokaletan.

### 2. Adingabeak EZIN dira sartu:

- a. Dantzalekuetan eta diskoteketan.
- b. Adingabeentzako saioak egiten dituzten dantzaleku edo diskoteketan.
- c. I. taldeko lokaletan.
- d. Arte martzialetako borrokak egiten diren lokaletan.

### 3. 16 urtetik beherakoak honako kasu hauetan sar daitezke pubetan eta taberna berezietan: (Erantzun bakarra da baliozkoa).

- a. Adindunekin daudenean, alkoholik kontsumitu gabe eta 22:00ak arte.
- b. Inoiz ezin dira pubetan eta taberna berezietan sartu.
- c. Adindunekin daudenean, 22:00ak arte.
- d. Gurasoekin daudenean.

### 4. Zenbat urte eduki behar dira dantzaleku edo diskoteketan adingabeentzako saioetara joan ahal izateko?

- a. 18 urte baino gehiago.
- b. 18 urte baino gutxiago.
- c. Berdin da, betiere adindunen batekin badaude.
- d. Hamalau urte baino gehiago eta hemezortzi baino gutxiago eduki behar dira.

### 5. Gazteentzako saioak (Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Erregelamenduaren 57. artikulua):

- a. Pertsona talde homogeneoentzako ezohiko saioak dira, eta 16 urtetik gorako gazteak joan daitezke.
- b. Adindunak ezin dira joan.
- c. Ordu-mugarik gabeko ezohiko saioak dira.
- d. Senide arduradun batek egon beharko du beti.

## 6. Gazteentzako saioetan:

- a. Debekatuta dago edozein joko- edo apustu-modalitate egitea.
- b. Ez da beharrezkoa makinak itzaltzea.
- c. Alkohola edan daiteke adinduna izanez gero.
- d. Ezin da erre, baina alkohola edan daiteke.

## 7. Adingabeentzako saioen ordutegia:

- a. I. taldeko establezimenduetan bezala amaituko da.
- b. 12:00etan amaituko da.
- c. Dantza- eta dibertsio-establezimenduetako ordutegi bera izango da.
- d. II. taldeko establezimenduetan bezala amaituko da.

## 8. Gazteentzako saioen ordutegia:

- a. I. taldeko establezimenduetan bezala amaituko da.
- b. 12:00etan amaituko da.
- c. Dantza- eta dibertsio-establezimenduetako ordutegi bera izango da.
- d. II. taldeko establezimenduetan bezala amaituko da.

## 9. Adingabeak ezin dira sartu:

- a. Ziberkafetegietan.
- b. Joko-makinak dituzten ziberkafetegietan.
- c. Ziberkafetegietan, Interneteko informatika-sareetako konexioek erabiltzaileen adinaren inguruko inolako mugarik ez badute.
- d. Ziberkafetegietan, informatika-konexioak mugatuta ez daudenean.

## 10. Adingabeak honako hauetan sar daitezke:

- a. Joko-lokaletan, kontzertu bat badago.
- b. Kontzertuak eskaintzen dituzten dantza- eta dibertsio-establezimenduetan.
- c. Dantza- eta dibertsio-establezimenduetan, kontzertu-jarduera dantza- eta dibertsio-jardueratik ongi berezita badago, bai jardueraren hasieran, bai amaieran.
- d. Alterne-lokaletan, kontzertu bat badago.

## LEHEN LAGUNTZEN INGURUKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Lehen laguntzak.  
Politraumatismoak.  
Zauri larriak.  
Odoljario larriak eta shocka.



OINARRIZKO BIHOTZ-BIRIKETAKO BIZKORTZEA.  
HELDUAK ETA PEDIATRIA-ADINAK.  
KDA MANEATZEA.  
GORPUTZ ARROTZ BATEK ARNASBIDEA  
BUXATU DUENEAN EGIN BEHARREKOA.



## LEHEN LAGUNTZEN INGURUKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Ondoren garatuko dugun arloa pertsona bat edo batzuk gaixorik edo lesionatuta dauden edo istripu bat izan duten kasuan aplikatu beharreko hainbat kontzeptu eta teknikan eta jarraitu beharreko protokoloetan datza. Eduki honen helburua ez da lehen sorospenak emateko profesionalak prestatzea, baizik eta, establezimendu publiko bateko onarpen-zerbitzuaz arduratzen den pertsona bati eskatzen zaion prestakuntzaren esparruan, oinarrizko kontzeptuak ematea (pertsona horrek, behar izanez gero, behar bezala jardun ahal izan dezan) eta, batez ere, ezjakintasunaren ondoriozko jokaera okerrak saihestea, egoera larriagotu egin baitezakete, konpondu ordez.

Asmoa ez da onarpen-zerbitzuko langileek osasun-zerbitzuei dagozkien zereginak beren gain hartzea, ezta sarbideetan osasun-arloko profesional bat edukitzea ere. Ondorengo edukiak eskematikoki deskribatzen ditu premia duen pertsona abandonatuta ez uzteko eta osasun-arloko profesionalak lagundu ahal izan arte haren egoera okerragotuko ez duen zerbitu egin ahal izateko jarraitu beharreko teknikak eta protokoloak.

Ikastaroa amaitzeak eta onarpen-zerbitzuko langileak gaitzeko azterketa gainditzeak ez dakar lehen laguntzak emateko lanbide-trebakuntzarik edo ziurtagiri ofizialik.

Nolanahi ere, edozein arrisku-egoeratan, gogoan hartu behar dira norberaren eta ingurunearen segurtasuna, besteei laguntzeko ekintzaren bat hasi aurretik. Lehen urratsa da larrialdi-egoera orotan. Jarraitu beharreko jarduketa-sekuentzia **BAS jokabidea da: Babestu, Abisatu eta Sorotsi.**

**BABESTU:** istripua izan duen pertsonaren zein laguntzen dion pertsonaren segurtasuna bermatu behar da, istripu gehiagorik gerta ez dadin. Ez da biktimarengana hurbildu behar egoera aztertu eta ingurunea segurua dela jakin arte.

**ABISATU:** enpresak istripuaren kasuan jarduteko aurreikusita dituen baliabideak jakinaren gainean jartzea eta 112 zenbakira deitzea. Ahalik eta datu gehien bildu behar da, baliabide egokiak abian jar daitezen errazteko.

**SOROTSI:** istripuaren lekua babestu eta larrialdi-zerbitzuari abisatu ondoren, biktimak sorosten dira gertakarien lekuan bertan, osasun-arloko langileak iritsi arte.

Lehen laguntzei buruzko unitate honetan, honako gai hauek lantzen dira:

1. Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea. Helduak eta adin pediatrikoak. Kanpoko desfibriladore erdiautomatikoaren erabilera. Gorputz arrotz batek aire-bidean eragindako buxaduren kasuan jokatzeko modua.
2. Traumatizatuaren protokoloa.
3. Odoljarioak eta shocka.
4. Zauri larriak.

Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren 605. eta 1.062. prebentzio-ohar teknikoak gaineratu dira (Lehen laguntzak: ebaluazio primarioa eta oinarrizko bizi-euskarria); jardunbide egokien gida bat da, ikasleak arloan sakondu nahi izango balu ere.

## DEFINIZIOAK (*lehen laguntzak*)

**BBG:** bihotz-biriketako geldialdia.

**BBB:** bihotz-biriketako bizkortzea.

**DEEA:** desfibriladore erdiautomatikoa.

**ABGAA:** gorputz arrotz batek aire-bidean eragindako buxadura.

**Mobilizazio/immobilizazio osoa:** paziente politraumatizatua bizkarrezurreko traumatismoak izan ditzakeenean mugitzeko erabiltzen den prozedura da, lerrokadura zuzenari eustea ahalbidetzen duena, eta kontu handia eduki behar da, lesio gehiago ez eragiteko.

**BEA. Bizi-euskarri aurreratua.** Pazientearen egoera ebaluatzeko, kasu bakoitzean beharrezko medikazioa emateko eta desfibrilazioa emateko alde aurretik gaitutako osasun-profesionalek eskaintzen duten arreta medikoa da; aire-bidearen tratamendu aurreratua ematen da, eta egonkortasun hemodinamikoa bermatzen da, ospitalera eraman aurretik eta ospitalera eraman bitartean.

**Eztul ez-eraginkorra/ez-emankorra:** espektoraziorik eragiten ez duena. Eztul eraginkorra edo emankorra: espektorazioa eta muki-jariatzeen eta metatutako beste substantzia batzuen kanporatzea eragiten dituen.

**Triaiea:** Pazienteak arretaren premiaren arabera sailkatzeko erabilitako metodo bat da. Metodo horri esker, dauden baliabideen eta pazienteen premien arabera antola daiteke pertsonen arreta.

**Oinarrizko triaiea** oinarrizko bizi-euskarriaren arloan prestatuta dauden pertsonen egindako sailkapena da. Salbamendu-eremuan egiten da, hasierako arreta lehenesteko eta biktimak osasun-postu aurreratura eramateko.

**Guedel-en hodia:** Material plastikozko hodi kurbatu eta erdizurrun bat da, biktimaren ahoan sartuta arnasbidea irekita mantentzen duena, mingainak eta faringeko muskulaturak airearen bidea buxatu ez dezaten.

**Betetze kapilarra:** Hodi kapilar batek konprimatu ondoren bere kolorea berreskuratzeko behar duen denbora.

**Ohe ungeala:** Azazkalaren azpian dagoen ehun konektibo itsaskorra da, hatzarekin konektatua.

**Pultsu erradiala:** Eskumuturren aurrealdean eta atzealdean kokatua.

**Karotida-pultsua:** Lepoan kokatua, karotida arterian. Karotida arteria leunki ukitu behar da, eta biak ez dira aldi berean ukitu behar.

**Pneumotoraxa:** Pleura-espazioan biltzen den airea, birika-kolapsoa eragiten duena, hau da, birikaren zati bat edo birika osoa hustea.

**Hemotoraxa:** Odolaren metaketa toraxeko paretaren eta birikaren artean.

**Taula gisako abdomena:** Abdomen mota patologiko bat da, eta abdomeneko

paretako muskuluen kanpoko uzkurdura du ezaugarri bereizgarri. Abdomena haztatzeak abdomeneko muskuluen uzkurdura edo espasmo ez-borondatezkoa eragiten du, eta abdomeneko pareta gogortu egiten da.

**Arantza-apofisia:** Ornoen laminen atzealdean sortzen diren hezur-prominentziak edo proiektzioak. Bizkarrezur-muina biltzen duen muin-kanala babesten dute aurretik.

**Astenia:** Ahultasun edo neke orokorra, pertsona bati baldintza normaletan erraz egin ditzakeen zereginak egitea zailtzen edo eragozten diona.

**Iskemia:** Eremu jakin bateko arterietako odol-zirkulazioaren gelditzea edo gutxitzea, eraginpean hartutako aldean oxigenorik eta gai nutritiborik ezaren ondoriozko zelula-sufrimendua eragiten duena.

**Shocka:** Hilgarria izan daitekeen afekzio bat da, gorputza odol-jario nahikoa jasotzen ari ez denean agertzen dena. Odol-fluxurik ezak esan nahi du zelulek eta organoek ez dituztela jasotzen behar bezala funtzionatzeko behar dituzten oxigenoa eta mantenugaiak.

**Shock hipobolemikoa:** Bihotza ez da gai gorputzera behar adina odol ponpatzeko.

**Shock septikoa:** Gorputz osoko infekzio batek tentsio arterial baxua eragiten duenean gertatzen da.

**Shock kardiogenikoa:** Bihotza kaltetuta dago eta ez da gai odola gorputzaren gainerako organoetara bidaltzeko.

**Shock neurogenikoa:** Nerbio-sistemak jasandako kalte batek eragindakoa da.

**Shock anafilaktikoa:** Erreakzio anafilaktiko progresibo bizkor bat gertatzen da, eta tentsio arterialak behera egiten du, bizia arriskuan jarritz. (Anafilaxia hipersentikortasun-erreakzio orokor edo sistemiko larria da).

**BEA:** Pazientearen egoera ebaluatzeko, kasu bakoitzean beharrezko medikazioa emateko eta desfibrilazioa emateko aldeztu aurretik gaitutako osasun-profesionalek eskaintzen duten arreta medikoa da; gainera, aire-bidearen tratamendu aurreratua ematen da, eta egonkortasun hemodinamikoa bermatzeko ahaleginak egiten dira, ospitalera eraman aurretik nahiz ospitalearen barruan.

**Zauri kapilarra:** Hodi odolduak ezin dira bistaratu.

#### NTP 605ra esteka

[https://www.insst.es/documents/94886/326775/ntp\\_605.pdf/d0f8bb76-d86e-4f68-9e71-76bc46893966](https://www.insst.es/documents/94886/326775/ntp_605.pdf/d0f8bb76-d86e-4f68-9e71-76bc46893966)

#### NTP 1062ra esteka

<https://www.insst.es/documents/94886/329558/ntp-1062w.pdf/714f2285-3984-4378-bbe2-4e3d90be90b8>




## 1. OINARRIZKO BBB

### 1.1. ZER DA BIHOTZ-BIRIKETAKO BIZKORTZEA

BIHOTZ-BIRIKEN GELDIALDIA (BBG) berezko arnasketaren eta zirkulazioaren bat-bateko etetea da, potentzialki itzuligarria. Bihotz-biriken geldialdiaren ondorioz, organoek jasotzen duten oxigenoak behera egiten du eta geldialdiari agudo egiten ez bazaio aurre, heriotza itzulezina gertatuko da minutu gutxi igaro eta gero.

Garuna da oxigeno ezaren aurrean tolerantziarik txikiena duen organoa. Oxigenorik gabe laupabost minutu igaro eta gero, garuneko kalteak agertzen hasten dira eta zortzi-hamar minutu igarota, garun-heriotza itzulezina gertatuko da.

BBB edo BIHOTZ-BIRIKETAKO BIZKORTZEA bihotz-biriken geldialdia tratatzea xede duten maniobren multzoa da.



### 1.2. BIZIRAUPEN-KATEA

Pausu erraz batzuk jarraituz gero, biziak salba ditzakegu:

- Bihotz-biriken geldialdiaren (BBG) edo bizia arriskuan jarri duen egoeraren detekzio azkarra** eta larrialdiei aurre egiteko sistema aktibatzea (112). Biziraupen-katearen lehen katebegia da.
- BBB goiztiarra, lekukoaren eskutik:** BBGren lekuko izan direnek eginiko BBB goiztiar -edo berehalako- batek bizia salbatzeko aukerak bikoiztu edo laukoiztu ditzake. Horretarako gai badira, BBBri buruzko prestakuntza dutenek torax-konpresioak eta bentilazioak konbinatu beharko lituzkete.

112 telefonora deitu duenak BBBri buruzko **prestakuntzarik ez badu**, osasun-larrialdietako telefono-operadoreak jarraibideak eman beharko dizkio **torax-konpresio hutsez** osaturiko BBB egin dezan, laguntza profesionala iristen den arte.


3. **Desfibrilazio azkarra:** Geldialdia gertatu eta hurrengo hiru-bost minututan eginiko desfibrilaziodun BBB batek % 50 eta 75 bitartean handi ditzake bizirik irauteko aukerak, bihotz-taupadak berrabiaraziko baitira. Horretarako, **kanpoko desfibrilagailu erdi-automatikoak (KDA)** erabiliko ditugu. Publikoarentzat eskuragarri egongo dira, tokian bertan. Desfibrilazioa hasi aurretik galdutako minutu bakoitzak bizirik irauteko aukerak % 10-15ean murriztuko ditu.
4. **Bizi-euskarri Aurreratua eta bizkortzearen ondoko zaintzak.** Lehen berpizte-ahaleginak arrakastarik lortu ez badute, arnasbideak artatu, botikak aplikatu eta geldialdiaren jatorrian eragin dezakeen Bizi-euskarri aurreratua beharrezkoa izan daiteke. Bizkortzearen ondoko zaintzen xedea da bizi-funtzioak mantentzea, funtzio kardiakoa eta garun-funtzioa gehienbat.

## BIZIA SALBATU

|                                                                                    |                                                                                    |                                                                                     |                                                                                      |
|------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|
|  |  |  |  |
| <b>112 deitu</b>                                                                   | <b>Bihotz-masajea</b>                                                              | <b>Desfibrilazioa</b>                                                               | <b>BEA</b>                                                                           |
| BBG azkar detektatu eta 112 telefonora deitu                                       | Lekukoek eginiko BBB goiztiarra                                                    | Desfibrilazio goiztiarra                                                            | Bizi-euskarri Aurreratua eta BBBren ondoko zaintzak                                  |

## 1.3. OBEREN ALGORITMOA / KDA HELDUAK

|   |                                                                |
|---|----------------------------------------------------------------|
| 1 | Eszena segurua dela egiaztatu.                                 |
| 2 | Ez du erantzuten?                                              |
| 3 | Laguntza eskatu.                                               |
| 4 | Arnasbidea ireki.                                              |
| 5 | Ez du arnasa normaltasunez hartzen?                            |
| 6 | 112 telefonora deitu.                                          |
| 7 | 30 konpresio / 2 bentilazio.                                   |
| 8 | KDA iritsi denean: piztu ezazu eta jarraibideak jarrai itzazu. |



1. Segurtasuna: Lehenik eta behin, norberaren eta biktimaren segurtasuna baieztatuko dugu.
2. Estimuluei erantzuten ote dien egiaztatuko dugu.
3. Ez badu erantzuten. Hasteko, OIHU EGIN EZAZU LAGUNTZA ESKATUZ. Biktima BBB posizioan jar ezazu berehala.
4. ARNASBIDEA IREKI EZAZU, kopeta-kokotsa maniobraren bitartez.
5. Biktimak arnasa hartzen ote duen egiazta ezazu: IKUSI, ENTZUN eta SENTITU. Horretarako, sorosleak bere aurpegia biktimaren ahotik eta sudurretik gertu jarri eta bularrerantz begiratuko du. Arnasketa normala delaz seguru ez bagaude, arnasarik hartzen EZ duela pentsatuko dugu egin beharrekoa erabakitzeko.
6. 112 telefonora dei ezazu edo beste norbaiti eska iezaiozu deia egiteko. Biktimaren alboan manten zaitez deian zehar eta telefonoaren esku libreko sistema aktiba ezazu. Beste norbait bidal ezazu KDA gailua hartzera.
7. Toraxa desestaltu ezazu eta has zitez torax-konpresioak egiten. Prestakuntza eduki eta gai sentitzen bazara: torax-konpresioak salbamendu-bentilazioekin konbina itzazu.
8. Desfibrilagailua piztu. Adabakiak jar itzazu. Mezueto Jarraibideak jarrai itzazu.

#### 1.4. OBEREN SEKUENTZIA HELDUAK



##### **Segurtasuna**

Itxuraz konortea galdu duen pertsona baten aurrean, estimuluei erantzuten ote dien egiaztatuko dugu lehenik eta behin.



##### **Egiaztatu erantzuten duen**


Lehenik eta behin, norberaren eta biktimaren segurtasuna baieztatuko dugu.

#### 1.4.1. Erantzuten badu:

- Posizio horretan utziko dugu, beti ere arriskurik ez badago, eta zer gertatu zaion galdetuko diogu.
- Beharrezkoa bada, 112 telefonora deituko dugu.
- Lehen mailako balorazioa.

#### 1.4.2. Ez badu erantzuten:

- Laguntza eskatu.
- BBB posizioan jarri eta ARNASBIDEA irekiko dugu: KOPETA-KOKOTSA MANIOBRA.



### ARNASKETA BALORATU

KOPETA-KOKOTSA maniobra mantenduz.

Masailezurra igo, Hiperluzapen eraginkorra lortu arte.

#### “IKUSI, ENTZUN eta SENTITU”

- 10 segundo gehienez.
- Zalantzarik badugu, normala EZ den arnasketatzat joko dugu.
- AGONIAZKO BAFADAK BIHOTZ-GELDIALDIAREN ADIERAZLE DIRA.


Toraxa mugitzen ote duen **IKUSI**.

Biktimaren arnasketa **ENTZUN**.


Biktimaren airea masailean **SENTITU**.

#### 1.4.2.1. Arnasa hartzen badu:

##### Arnasa hartzen jarraitzen duela egiaztatu



##### Segurtasunezko edo suspertze posizioa



#### MUINEKO LESIO BATEN SUSMOAK BADITUGU:

- Inmobilizazioa eta Baterako mobilizazioa.
- Politraumatizatuaren protokoloa.



## 1.5. BBB HELDUAK

Arnasketa normalik ez badu: bihotz-masajearekin hasiko gara. 30 konpresio egingo ditugu:

- **Helduentzako bihotz-masajea**

- Belauniko jar zaitez, biktimaren alboan. Toraxa desestali eta eskuko orpoa toraxaren erdian (bularrezurraren beheko aldea) jar ezazu. Abdomenaren goialdea eta bularrezurraren beheko muturra ekidin itzazu.



- Beste eskuko orpoa lehenaren gainean jar ezazu. Behatzak elkartu eta presioa biktimaren saihetsetan egingo ez dela egiazta ezazu. Toraxaren gainean jar zaitez, besoak zuzen jarriz.
- Bularrezurra 5 cm inguru estutu ezazu (inoiz ez 6 cm baino gehiago).
- Konpresio bakoitzaren ostean, torax-paretaren hedapena ahalbidetu beharko dugu. Eragiketa behin eta berriz errepika ezazu, minutuko 100-120 konpresioko maiztasunarekin. Denbora berdina utz ezazu konpresio eta deskonpresiorako.

- 30 konpresio egin ondoren, baina beti ere prestakuntza baduzu eta gai sentitzen bazara:
- arnasbidea berriz ireki ezazu.
- 2 salbamendu-bentilazio ("ahoz ahokoa") egin itzazu.
- 30 konpresio / 2 bentilazio.



## 2 sorosle badaude:

- **Lehen sorosleak:** 30 bihotz-konpresio egin eta bentilazioen eraginkortasuna egiaztatuko du.
- **Bigarren sorosleak** 2 bentilazioak egin eta konpresioen eraginkortasuna egiaztatuko du.
- 30:2 zikloa 5 aldiz errepikatu ondoren **(BI MINUTU)**, txanda aldatu.

## Bentilazioak egiteko gai ez bazara

Prestakuntzarik ez baduzu edo salbamendu-bentilazioak egiteko gai sentitzen ez bazara:

- BBB EGITEN JARRAI EZAZU, KONPRESIO HUTSAK EGINAZ.
- Torax-konpresioen maiztasuna 100-120 ingurukoa izango da minutuko.

## BBB ondoko kasuetan geldituko dugu:

- KDA iristen denean.
- Laguntza profesionala iristen denean.
- Biktima normaltasunez arnasa hartzen berriz hasten denean.
- Neka-neka eginda gaudenean.

## Gomendioak:

Ez egin 10 segundotik gorako etenaldirik konpresioetan bi bentilazioak egiteko.

### 1.6. BBB HAURRAK

|   |                                                                                 |
|---|---------------------------------------------------------------------------------|
| 1 | Ez du erantzuten?                                                               |
| 2 | Laguntza eskatu                                                                 |
| 3 | Arnasbidea ireki                                                                |
| 4 | Ez du arnasa normal hartzen?                                                    |
| 5 | 5 salbamendu-bentilazio                                                         |
| 6 | Ez dago bizi-zantzurik?                                                         |
| 7 | 30 konpresio / 2 bentilazio                                                     |
| 8 | Soroslea bakarrik badago, 112ra deituko du BBB egiten minutu bat igaro ondoren. |

### HELDUENTZAKO PROTOKOLOAREKIKO ALDEAK:

- BBB egiten minutu bat igaro ondoren, laguntza eskatu (bakarrik bazaude). Helduen kasuan berdin.
- Arnasarik hartzen EZ duela egiaztatu ondoren, 4 salbamendu-bentilazio. Helduen kasuan berdin.
- Arnasbidea urte batetik beherakoei irekitzeko: burua posizio neutroan mantendu. Adin horretatik gora, helduei egiten zaien bezalaxe.

## Bihotz-masajea haurren kasuan.

Adin pediatrikoetan, bihotz-masajea honela egiten da:

\* **Bularreko haurrak:** Bi behatz jarri bular-arteko lineatik behera eta bularrezurraren gainean. 4 cm inguru (edo torax-diametroaren 1/3 bat) estutu. 100-120 inguruko maiztasunarekin egin.

\* **Urte batetik gorako haurrak;** esku bateko edo bi eskuetako orpoarekin, bularrezurraren behealdean estutu toraxak 4-5 cm egin dezan behera. 100-120 inguruko maiztasunarekin egin.

**Bularreko haurra** (0-1 urte; edo 10 kg-tik beherako pisua).

**Haurra** Urte batetik gora, pubertarora arte.

## 2. KDA MANEATZEA

### 2.1. MOTAK

#### SKDAren NAZIOARTEKO IKURRA



#### KDAren eskuragarritasuna Euskadiko osasun-eremutik kanpo





## 2.2. DESFIBRILAZIOA



### JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA KDA GAILUREN BAT DUGUNEAN

- Norberaren, biktimaren eta balizko oinezkoen segurtasuna.
- BBG detektatzea.
- 112 telefonora deitu eta eskuragarri dagoen KDA ekartzeko eskatuko diogu norbaiti.
- KDA iristen den bitartean, sorosleak suspertze-maniobrak egingo ditu.




### KDA iritsi denean:


- Batek BBB egiten duen bitartean;
- Besteak: KDA piztu, elektrodoak jarri eta elektrodoen konektorea KDAko larakoan sartuko du.
- Gailuaren ikus-entzunezko jarraibideak jarraituko ditugu.

### Elektrodoen posizioa:

Elektrodoak irudian ikus daitekeen bezala jarri beharko dira.




### 2.3. KDA HAURRETAN




### 3. ARNASBIDEAREN BUXADURA GORPUTZ ARROTZ BATEN ALDETIK.

#### 3.1. ABGAA



#### 3.2. ABGAA BERE KORDERAN DAGOEN PERTSONA

##### 1. KOLPEAK BIZKARREAN



Buxadura mantentzen bada, bigarren maniobrarekin saiaturiko dugu.

## 2. KONPRESIOAK ABDOMENEAN – HEIMLICHEN MANIOBRA



Aipatu maniobra **ONDOKOEI EZ ZAIE EGINGO:**

- Bularreko haurrak.
- Abdomen irtena (bularreko haurrek dutenaren antzekoa) duten adin txikiko haurrak.
- Haurdunak.
- Obesoak.

Kasu horietan **torax-konpresioak** egingo dira, bihotz-masajeko konpresioetarako erabili den teknika berbera aplikatuz.


**Konortea galdu badu.**

### 3.3. ABGAA KONORTEA GALDU DUEN PERTSONA

Buxadurak konortea galdu duten pertsonetan askatzeko maniobrek berezko BBB-protokoloa dute adinaren arabera. Kontuan izan beti aho barruan begiratu beharra dagoela aire-emateak egin aurretik.


Buxadura LARRIA KONORTERIK GABE:

- Biktima lurrean jarri.
- 112 telefonora deitu.
- BBB HASI.



### 3.4. ABGAA PEDIATRIA

#### ABGAA PEDIATRIA-ADINETAN TRATATZEA



**POLITRAUMATIZATUAREN PROTOKOLOA.  
LEHEN MAILAKO ETA BIGARREN  
MAILAKO BALORAZIOA PAZIENTE TRAUMATIKOAN**




## 1. PAZIENTE POLITRAUMATIZATUA

### SARRERA

**Lesio-mekanismo garrantzitsu bat agertzen duen biktima politraumatizatu orok muineko lesio bat dauka, horrelakorik ez duela baieztatzen den arte.**

Potentzialki larri dauden zauritutako politraumatizatuen lesioek ondoko jatorrietako bat dute:

- Ibilgailuen, motorren talkak
- Harrapatzeak: oinezko edo txirrindulari bati.
- Zamapeko harrapatzea edo zapaltzea.
- 3 metrotik gorako altuera batetik izandako erorikoa.
- Arrisku handiko kirolak egiten dituztenen istripuak.
- Laneko istripuak
- Sakonera txikiko edo harkaitzez jositako uretan murgiltzea.
- Arma zurien edo suzko armen ondoriozko zauriak.
- Beste osagai batzuen ondoriozko zauriak.



### 1.1. ESKU-HARTZEA - URREZKO ORDUA

Gure xedea hilkortasuna murriztea da eta, horretarako, **“Urrezko Ordua”** delakoan esku hartuko dugu: jazoera gertatu eta hurrengo hirurogei minutuetan, protokolo bidezko laguntza egoki baten bitartez lehenera ditzakegun lesio horiek artatuko ditugu.



## 2. LAGUNTZA-FASEAK

### SARRERA

Zauritutakoak behar bezala artatu ahal izateko, ahoz gorako etzaneran egon beharko dute. Biktimarengana gerturatu den lehen pertsonak askotan ez du eskarmentu edo bitarteko nahikorik zauritutakoa posizio horretan jartzeko. Horrexegatik, **muineko lesioren bat izan dezakeela uste badu eta egoerak hori egitea ahalbidetzen badu, aurkitu duen posizioan artatuko du biktima, MUGITU GABE**, eta biktimaren mugimenduak ahalik eta gehien murriztuz. Ahoz gora etzan badago, burua-lepoa-bizkarrezurra ardatza lerrokatua mantentzen saiatuko gara. Horren xedea da muineko lesioak -edo horien larriagotzea- saihestea.



**Politraumatizatuari eskaini beharreko laguntzak 4 fase ditu:**

### 2.1. ABISUA AZTERTZEA

- Leku eta ordu zehatza, istripu mota.
- Zauritutakoak zenbat izan daitezkeen, eta beren larritasuna baieztatzea.
- Inplikaturiko ibilgailuen kopurua.
- **Balizko beste arrisku batzuk:**
  - Likido sukoien isurketak.
  - Ezegonkor dauden ibilgailuak.
  - Linea elektrikoak.
  - Salgai arriskutsuen presentzia.
- Beste batzuk: klimatologia, errepidearen egoera eta sarbide hobeak.




## 2.2. ESZENA AZTERTU (BAL)

- **BABESTU:** Eszenaren segurtasuna aztertzea. o Norberaren burua babestea,
  - Istripua seinalizatzea,
  - Arriskuak identifikatzea.
- **ABISATU:** Informazioa egiaztatzea, osatzea eta zure operazio-zentrora (edo 112 telefonora) transmititzea.
- **LAGUNDU:**
  - GERTURATU.
  - PROTOKOLOA: Lehen mailako eta bigarren mailako balorazioa.
  - Biktima ugari badira: OINARRIZKO TRIAJEA.

## 2.3. BIKTIMARENGANA GERTURATZEA:

**Ez igaro bere gainetik.** Biktima inguratu beti, estropezu egin eta bere gainean erori ez gaitezen.

Biktimarengana iritsi bezain pronto, **bere burua blokeatuko dugu.**



### Bere konorte-maila egiaztatzea

Bere konorte-maila egiaztatuko dugu, **AHMEE** eskala erabiliz:

- **A Alerta.** Biktima alerta dago, esna, hitz egiteko gai da. Gertatutakoa gogoratzen du.
- **H Hitzezkoa.** Ahotsari erantzuten dio baino ez ditu begiak berez ireki.
- **M Mina.** Min estimuluei erantzuten die bakarrik.
- **EE Ez du erantzuten.** Konortea galdu du eta ez dio inolako estimuluri erantzuten.

**Burua eskuz egonkortu:** Biktimaren burua bi eskuekin hartuko dugu. Gure erpuuek bere begietarantz joko dute. Aldi berean, trakzio txiki bat egingo dugu (10 kg inguru) gure gorputzerantz. Honela, burua biratu eta posizio neutroan jarriko dugu, bizkarrezurrarekin lerrokatua.

Zurruntasuna detektatuz edo minak gora egin duela detektatuz gero, egonkortu beharrean blokeatu egingo dugu burua. Lerrokadura uneoro mantendu beharko dugu, biktima bizkarrezurreko taula batean edo antzeko gailuren batean erabat immobilizatzen dugun arte.



## 2.4. PROTOKOLOA

Xedea da portaera berbera izatea beti, aurrean dugun egoera dena dela. Honela, zauritutakoaren bizitza arriskuan jar dezaketen lesioez ohartu egingo baikara beti. Bi balorazio biltzen ditu: lehen mailakoa eta bigarren mailakoa.

## 3. LEHEN MAILAKO BALORAZIOA

| Lehen mailako Balorazioa                                                                                                                                                                                                     | Lehen mailako balorazioa                                                                                                                                                                                                                                       |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>A - Arnasbidearen maneiua</b></li> <li>• <b>B - Bentilazioa</b></li> <li>• <b>Z - Zirkulazioa</b></li> <li>• <b>D - Desgaitasuna</b></li> <li>• <b>E - Esposizioa</b></li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Arnas gelditzea.</b></li> <li>• <b>Bihotz-biriken gelditzea.</b></li> <li>• <b>Arnasbidearen buxadura.</b></li> <li>• <b>Odoljario larria, kontrolaezina.</b></li> <li>• <b>Eszena oso arriskutsua.</b></li> </ul> |

**STOP**


### A - ARNASBIDEAREN MANEIUA:

- **Bere korderan dago:** arnasbide iragazkorra.
- **Konortea galdu du:**
  - **Arnasbidea iragazkortu:** Kopeta-Kokotsa maniobra eta gorputz arrotzak ateratzea.
  - **Arnasketa egiaztatzea:**
    - **Ez du arnasarik hartzen: BBB.**
    - **Arnasa hartzen du:** Eskura badugu, Guedelen kanula sartuko diogu.
- **Garondo-immobilizazioa:** garondo-lepokoa.




### B - BENTILAZIOA:

- Oxigenazio egokia lortu.
- **TORAXA AZTERTU**, bizia arriskuan jar dezakeen edozein torax-lesio baztertzeko.
- **Neumotorax irekia zuzendu; baloratu beharrekoak:**
  - Arnas maiztasuna.
  - Torax-simetria.
  - Arnas zailtasuna.



## Z - ZIRKULAZIOA:

- **Kanpoko odoljario garrantzitsuak kontrolatzea.**
- **Biktima shock-egoeran ote dagoen egiaztatzea:**
  - **Pultsu periferikoak:** Bere korderan badago, pultsu erradiala bilatuko zaio. Konortea galdu badu, karotida-pultsua. Takikardia shock-egoeraren adierazleetako bat da.
  - **Kapilarraren betetzea:** Shock-egoeretan, kapilarra ez da behar bezala betetzen ohandze ungealean.
  - **Azalaren kolorea eta Temperatura:** Azal zurbil eta hotz bat shock-egoeraren lehen adierazleetako bat da.
  - Pultsurik eza/Gorabeherak konorte-egoeran.
  - **ESTALI.**



## D - DESGAITASUNA:

- **Konorte-maila baloratzea.** Beste behin, AHMEE eskala erraza erabiliko dugu.
- **Muineko lesioaren seinaleak ote dauden baloratuko dugu:**
  - Aldaketak sentiberatasunean (inurritzea, inurridurak) eta
  - Paralisia: hankak mugitzeko gai ote den egiaztatu.

## E - ESPOSIZIOA:

- Lesio-esposizioa egiterakoan biktima hozten ez dela bermatuko dugu.
- Osasun-langileek egin beharko lukete, anbulantziaren barruan.

## 4. BIGARREN MAILAKO BALORAZIOA

| Bigarren mailako balorazioa                                                                                                    | Bigarren mailako balorazioa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>Helburuak:</b> <b>STOP</b></p> <p><b>Data jakin batzuk agudo biltzea.</b></p> <p><b>Biktimaren miaketa orokorra.</b></p> | <p>Ondokoak gertatuko balira, bigarren mailako ebaluazioa eten eta biktima ahalik eta azkarren eraman beharko da ospitalera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• KONORTE MAILAK BEHERA EGIN DU</li> <li>• ARNAS ZAILTASUNAK</li> <li>• SHOCK-EGOERAREN ADIERAZLEAK</li> <li>• ABDOMEN-DEFENTSA EDO MINA</li> <li>• PELBIS EZEGONKORRA EDO MINGARRIA</li> <li>• IZTER-HEZURRAREN ALDEBIKO HAUSTURA DUELAREN SUSMOAK</li> <li>• HIRU HEZUR MOTZEN HAUSTURA DUELAREN SUSMOA</li> </ul> |



### 4.1. GALDEKETA

- Z** Zer gertatu da?
- AP** Aurrekari Pertsonalak.
- J** Azken jatordua.
- M** Ohiko medikazioa.
- A** Alergiak.

### 4.2. MIAKETA


#### **Burua Baloratzea:**

- **Burezurra eta aurpegia haztatzea:** hausturak bilatzea.
- Zeharkako haustura-seinaleak bilatzea.
- **Lepoan egiaztatu beharrekoak:**
  - Trakea okerra
  - Puztutako jugularrak.



***Toraxa Baloratzea:*****HAZTATUZ:**

Hausturak bilatu (saihets-hezurak, lepauztaia).

***Abdomena baloratzea:*****ZAURIAK BILATUZ:**

- Zauri itxiak: Abdomen-defentsaren seinalea (Taula moduko Abdomena).
- Zauri irekiak.



### ***Pelbisa baloratzea:***

- Beherantz eta barrurantz.
- Pelbisa ahalik eta gutxien maneiaturiko dugu, hausturaren bat badago asko handi baitezake odolustea.



Mina eta ezegonkortasuna

### ***Gorputz-adarrak Baloratzea:***

#### **ONDOKOAK BILATUKO DITUGU:**

- Zauriak.
- Forma-anormaltasunak.
- Hematomak.



### ***Bizkarra:***

#### **Bizkarrezurreko taulan immobilizatu aurretik:**

Arantza-apofisiak haztatuko ditugu, gune mingarriak eta forma-anormaltasunak bilatuz.

ZAURI LARRIEN SOROSPENA





## 1. ZAURIAK

### 1.1. ERAGILEAREN ARABERA



#### **Ebakidun zauriak:**

Osagai ebakitzailer batek sortuak, zauriaren ertzak garbiak dira, erregularrak; ez dute zoko-mokorik, ezta zimurdurarik ere. Odola darien zauriak dira.



#### **Zauri makatuak:**

Ertzik edo puntarik ez duen osagai kamuts batek sortuak. Ertz irregularrak dituzte eta aterako den odol-bolumena txikiagoa da aurreko zauriekin alderatuta. Gorputz arrotzak har ditzaketen zoko-mokoak dituzte.



#### **Ziztako zauriak:**

Osagai puntazorrotz eta luze batek sortuak. Sakontasuna da beren ezaugarri nagusia.



#### **Erauzte ondoriozko zauriak:**

Trakzio- edo tenkatze-gailu batek sortuak, banantze eta irregulartasun handia agertzen dute eta ertzak aldentuta dituzte ere.

### 1.2. ITXURAREN ARABERA

#### **Lerro-formako zauriak:**

Lerro bat (zuzena, makurra, izar itxurakoa, etab.) agertzen duten horiek dira.

#### **Zirdindun zauriak:**

Azalaren zati baten bereizte partziala dakarten horiek dira. Zati hori pedikulu (azal-ehuneko zati meharra) baten bitartez dago lotua gorputzari.

#### **Substantziaren galera dakarten zauriak:**

Azalaren zati bat erabat bereiziko da gorputzetik.

### 1.3. LARRITASUNAREN ARABERA

#### **Zauri larria:**

- Handi eta sakona da.
- Gorputz arrotzak ditu.
- Odoljario larria.
- Infektatua dago (bero, gorri, puztua).
- Aurpegi, abdomen, garezur eta toraxean dago.
- Hozkada baten ondoriozko zauriak.

#### **Zauri arina:**

- Azaleko ebaki eta zauriak dira.
- Ez dute eraginik organo edo hodi garrantzitsuetan.

### 1.4. ZAURI BATEN SEINALEAK

#### **Mina: Ondokoen mende dago:**

- Sentiberatasuna
- Zauriaren sorrera.
- Nerbioen banaketa.

#### **Odoljarioa**

#### **Ertzen bereiztea**

## 2. TRATAMENDUA

### 2.1. LEHENTASUNAK

#### Lehen sorospena zauri baten aurrean:

- **Lehentasunak:** odoljariora gelditzea eta infekzioa ekiditea (zauria garbitzea).
- **Lehen mailako eta bigarren mailako balorazioa.**
- **Zauria baloratzea:**
  - Zauria sortu denetik igaron den denbora, bere jatorria eta zaurian gorputz arrotzak dauden ala ez jakitea.
  - Zauri arinak edo azaleko zauriak izan daitezke; edo zauri larriak.

### 2.2. ASEPSIA

#### Asepsia mantentzea

Gure esku-hartzean zauria kutsatuko ez dugula bermatzeko neurri-multzoa.



## 2.3. ZAURI ARINAK:

### Zauri arinen tratamendua:

- Eskuak ura eta xaboiarekin garbitu.
- Eskularruak erabili.
- Zauria "zurrustaka" garbitu ur garbi edo serum fisiologikoarekin, balizko gorputz arrotzak (lur-hondarkinak...) herrestan botatzeko.
- Egokia da azaleko zauriak ur eta xaboiarekin garbitzea.
- Zauria gaza esteril bat erabiliz garbitu, erditik kanpoaldera.
- Narritatzen ez duen desinfektatzailea aplikatu zauriaren inguruan.
- Iododun pobidona aukera egokia da tamaina txikiko azaleko zaurientzat.
- **Odoletan badago**, apositu esteril bat aplikatuz estaliko dugu. Exudazio ugaria agertzen duten zauriak (odoljario kapilarra):
  - Tul koipetsua aplikatu eta jarraian estali; edo
  - Serum fisiologikoa duten gaza esterilak aplikatu.
- Odoletan ez badago eta zauria oso azalekoa bada, ez estali.
- Kotoirik edo alkoholik EZ.

## 2.4. ZAURI LARRIAK

### Zauri larrien tratamendua:

- **Berehalako osasun-arreta eskatzen dute. BEA (Bizi-euskarri Aurreratua) bat eskatu.**
- **Ingurunearen segurtasuna baloratu.**
- **Biktimaren lehen mailako eta bigarren mailako balorazioa egin.**
- **Odoljarioa kontrolatu eta shocka prebenitu**, zauritutako pertsona zauriaren kokapenaren arabera aproposena den posizioan jarriz.
- **Kaltetutako gunea estali, apositu esterilak aplikatuz.** Toraxean eta abdomenean dauden zaurientzat apositu bereziak erabiliko dira.
- **EZ ATERA** iltzatutako edozein gorputz:
- Finkatu egingo dugu, zauritutakoaren garraioan mugi ez dadin eta kalte berriak sor ez ditzan. Gorputz arrotzaren inguruan, tolestatutako gasez edo eskuoihalez osatutako eta esparatrapu-zerrenda luzeen bitartez eutsitako pardelak jarriko ditugu, gorpuz edo objektu hori mugi ez dadin.
- **Zauritutakoa ahalik eta azkarren ebakuatuko dugu ospitale batera.**

### 3. ZAURI BEREZIAK

#### 3.1. ZAURIAK BURUAN

- Zati bigunetan soilik: Scalp zauriak edo ile-larruaren askatzea.
- Zati bigunak + haustura.
- Garuneko lesio batekin konbinatuta.

#### Tratamendua:

- (Zauri larriei dagokienez arestian aipatutakoaz gain).
- Ez ukitu edo garbitu zauria.
- Estali.
- Zauritutakoa ahalik eta azkarren ebakuatu.

#### 3.2. ZAURIAK TORAXEAN

##### Zauri perforatzaileak toraxean:

##### Lesioaren eraginak ondokoak izan daitezke:

- Barrunbe torazikoko ehun bigunak ukitu soilik.
- **NEUMOTORAXA** (airea metatzen da pleura-barrunbean, errai-pleura eta pareta-pleuraren artean); **edo HEMOTORAXA** (odola metatzen da aipatu pleura-barrunbean). Larritasun-maila ezberdinekoak izan daitezke biak.
- Kalibre handiko hodiak edo bihotza kalte ditzake eta lesioaren bilakaerak heriotza ekar dezake oso denbora motzean.

#### Tratamendua:

(Zauri larriei dagokienez arestian aipatutakoaz gain)

- **Zauria airearen igarotzea ekiditen duten adabakiak erabiliz estaliko dugu:**

- 1.- **Horrelakorik badugu**, erositako **apositu torazikoak jarriko ditugu**: esaterako, **BCS** edo **HYFINVENT TwinPack**; edo **ACS** adabakia.



- 2.- **Apositu bat inprobisatuko dugu:** airearen igarotzea ekiditen duen edozein material erabiliko dugu (plastiko zati bat, adibidez). Alde bat libre utziko dugu, airea atera dadin.



- 3.- **Gure eskua erabiliko dugu:**


- Zauritutakoa shockaren aurkako posizioan jarriko dugu.



### 3.3. ZAURIAK ABDOMENEAN

#### Ohiko zauriak abdomenean:

- Barruko eta/edo kanpoko odoljarioria.
- Shock hemorragikoaren edo hipobolemikoaren sintomak.
- Mina abdomenean.
- Distentsioa edo zurruntasuna abdomenean.



### Tratamendua:

(Zauri larriei dagokienez arestian aipatutakoaz gain).

- Ez diogu jaten edo edaten emango zauritutakoari.
- Hesteak irten bazaizkio.
  - Ez gara hesteak sartzen saiatuko.
  - Zauria oihal edo gaza busti handi bat aplikatuz estaliko dugu.
- Ahoz gora jarriko dugu, hankak tolestuta dituela.




### 3.4. EBAKITZEAK

Gorputz-adarren bat -edo bere zatiren bat- gorputzetik erabat bereizi bada.

### Tratamendua:

(Zauri larriei dagokienez arestian aipatutakoaz gain).

- Odoljariora eten egingo dugu, tornikete bat aplikatuz.
- Ebakitako gorputz-adarra kontserbatuko dugu.



ODOLJARIO LARRIAK ETA SHOCKA





## 1. ODOLJARIOAK

### 1.1. SAILKAPENA

**Jatorri baskularraren arabera:**



**Arteriala**

Aldizkako zurrustetan irteten da.  
Odola: gorri bizia.



**Zainetakoa**

Etenik gabe irteten da.  
Odola: gorri iluna.



**Kapilarra**

Oso odol gutxi irteten da.

**Jomugaren arabera:**

**Barrukoak:**

Ez dira ikusten kanpotik. Odola edozein organotik atera daiteke, traumatismo zuzen baten zein gaixotasun baten ondorioz.

**Kanpokoak:**

Kanpora irteten dira zuzenean. Zauri batekin batera agertzen dira beti. Lehen Sorospenen bitartez tratatzen dira.


### 1.2. SINTOMAK

**Lokalak:**

Kanpokoetan soilik, odola irteten ikus daitekeenez, bere kantitatea eta irtetzeko abiadura balora daitezke.

**Orokorrak:**

- Azala hotz eta zurbil agertzen da.
- Hipotentsioa; edo presio arterialaren beherakada.
- Pultsu ahul eta azkarra.
- Arnasketa azkarra eta azalekoa.
- Izerdi hotz eta eranskorra.
- Kapilarra betetzeko denbora luzea (bi segundotik gora).
- Zorabioak, ikusmen lausoa, konortetik eza ere.
- Egarria.
- Astenia, nekea.



### 1.3. TRATAMENDUA

#### Lehentasunak:

Lehenik eta behin, zuen eta zauritutakoaren/en **segurtasuna**; ondoren, **bizia arriskuan jar dezaketen odoljarioak kontrolatzea**.


Ahal bada, latexko edo antzeko eskularruak erabiliko dira zauria/odola tratatzerakoan, gaixotasunen transmisioa ekiditeko.



Odoljarioak kontrolatzeko mekanismoak ondokoak dira:

#### 1.3.1. Presio Zuzena:

Eskuzko konpresioa edo Konpresio-hesgailuak.




#### 1.3.2. Apositu Hemostatikoak

Odoljarioa presio zuzena eginaz kontrolatzerik ez dagoenean.

Bi eta bost minutu bitartean egongo gara presioa egiten, aposituak zaurian jarri ondoren. Aposituak, halaber, zauriaren azalera osoa estali beharko du. Zauriaren tamaina ikusita beharrezkoa balitz, bigarren apositu bat erabiliko da.

Noiz erabili:

- Presio zuzena nahikoa ez denean kanpoko odoljario larri bat kontrolatzeko.
- Zauriaren kokapenaren (lepo, abdomen edo iztaia) ondorioz ez dagoenean presio zuzena egiteko aukerarik.



Apositu hemostatikoek berehala geratzen dituzte kanpoko odoljario larriak. Eta zauri konplexu eta/edo sakonak tratatzen laguntzen dute.

### 1.3.3. Torniketea:

Odoljarioa presio zuzena eginaz kontrolatzerik ez dagoenean.

#### Torniketea egiteko jarraibideak:

- Gorputz-adar baten ebakitze traumatikoa eta zapaltze-sindromea.
- Zauritu ugariko jazoerak.
- Presio zuzena nahikoa ez denean gorputz-adar baten odoljario larria kontrolatzeko.
- Gorputz-adarren odoljario larri/arina, etsai-ingurunetan.
- Gorputz-adarren odoljario larri/arina salbatzetan edo zailtasun handiko egoeretan.

**Azken aukera izango da beti, eta ZAURITUAREN BIZIA ARRISKUAN BADAGO SOILIK**, betirako kalteak sor baititzake nerbio, gihar eta odol-hodietan.


#### Bere aplikazioak ondoko konplikazioak ekar ditzake:

- Iskemia eta gorputz-adarraren gangrena.
- Gorputz-adarraren paralisia nerbioaren lesio baten ondorioz.
- Gorputz-adarra galtzea kirurgia-ebakitze baten ondorioz.
- Askatutako endotoxinek organoetan sor ditzaketen lesioak.

Konplikazio gehienak bi iturri dituzte: torniketea **denbora gehiegiz** jarrita egon da edo gailua oker jarri izan da.

### Torniketea behar bezala egiteko:


- Ahal dela, **erositako tornikete** bat erabiliko da, CAT ®U torniketea esaterako.
- Erositako torniketerik ez badugu, tornikete bat inprobisatuko dugu:
  - Material bigun, sendo eta malgu bat (ez da oso elastikoa izango) erabiliko dugu. Luzera nahikoa izango du kaltetutako gorputz-adarra inguratuz lotu ahal izateko: zapi, lepoko, larruzko gerriko, motxila edo poltsa baten tirak, kotoiko alkandora edo galtzerdi luze bat.
  - Azalean egingo den mozketak minimizatzeke, inprobisatutako torniketeak 2,5 eta 5 cm bitarteko zabalera izango du. Horrexegatik, **ez dugu kordoi, alanbre edo antzekorik erabiliko.**
- Torniketea kaltetutako **gorputz-adarraren inguruan jarri**, gorputz-adar horren erroan, zauri irekiaren eta bihotzaren artean, zauriaren ertzetik 5-10 cm ingurura. **Ez jarri, inola ere**, belaunaren edo ukondoaren azpitik.
- Estutu, odoljariora eteten den arte.
- Behin jarri ondoren ez dugu arinduko, ezta lekutik aldatuko ere (koaguluak eta endotoxinak askatuko lirатеke zirkulazio-fluxura). Argi eta garbi seinalatuko dugu (jarri izan den ordua adieraziz).



Inprobisatutako torniketea



CAT torniketea



## 2. SHOCKA

### 2.1. JATORRIAK

- Odoljarioak.
- Erredura larriak.
- Hausturak.
- Zapaltzeak.
- Bihotzekoak.
- Intoxikazioak.
- Kirurgia-ebakuntzak.



**Minak eta beldurrak areagotu dezakete.**

### 2.2. SINTOMATOLOGIA

- Zurbiltasuna eta izerdi hotza.
- Gorputz-adarren hoztea.
- **Arnasketa azkarra eta azalekoa.** Arina hasieran, hogeita eta hogeita hamar arnasketa inguru minutuko; aireztatze azkarragoak eta zailagoak datoz gero, gihar-neke osora iritsi arte.
- **Pultsu ahul eta azkarra.**
  - Bi segundotik gora kapilarra betetzeko.
  - Zianosia (kolore urdinxka) mukosa eta ezpainetan.
  - Gutxiago egiten da txiza; edo txiza egiteari utzi zaio.
- **Tentsio arterialaren beherakada.** Pultsu erradialik ez egoteak esan nahi du tentsio arterial sistolikoa 80 mmHg-tik behera dagoela.
- **Buruko egoera:** Shockak aurrera egin ahala biktimak ondoko egoerak igaroko ditu: larritasuna, asaldura, harridura, koma eta heriotza.

## Sintomatologia, galdutako odol-bolumenaren arabera

|                             | 1. MOTA               | 2. MOTA             | 3. MOTA                       | 4. MOTA                 |
|-----------------------------|-----------------------|---------------------|-------------------------------|-------------------------|
| Galdutako odol-bolumena     | 15eraino 750 ml-raino | % 15-30 artean      | Del 30 al 40% 1.500-2.000 ml. | 40% o más >= 2.000 ml.  |
| Bihotz-maiztasuna           | ARRUNTA <100 minutu   | AZKARRA 100/120 min | OSO AZKARRA 12-140 min        | OSO AZKARRA >140 minutu |
| Pultsu-maila                | INDARTSUA             | AHULA               | OSO AHULA                     | OSO AHULA               |
| Kapilarra betetzeko denbora | BEREHALA              | <2 segundo          | 2-4 segundo                   | >4 segundo              |
| Arnas-maiztasuna            | ARRUNTA 14/20 minutu  | ALTUA 20-30 min     | OSO ALTUA 30-40 min           | OSO ALTUA >40 min       |
| Konorte-maila               | URDURI HANDIA         | LARRI OSO HANDIA    | NAHASIA OSO HANDIA            | LETARGIA-OBNUBILATUA    |

**1. MOTA:**  
Odoljario oso arina

**2. MOTA:**  
Odoljario arina

**3. MOTA:**  
Odoljario larria

**4. MOTA:**  
Odoljario oso larria

## Shock mota ezberdinen arteko aldeak

|                             | HIPOBOLEMIKOA<br>SEPTIKOA<br>KARDIOGENIKOA | NEUROGENOA<br>ANAFILAKTIKOA |
|-----------------------------|--------------------------------------------|-----------------------------|
| AZALAREN TENPERATURA        | Hotz eta izerditsua                        | Bero eta idorra             |
| AZALAREN KOLOREA            | Zurbila                                    | Gorizta                     |
| TENTSIO ARTERIALA           | Baxua                                      | Baxua                       |
| KAPILARRA BETETZEKO DENBORA | Luzea                                      | Arrunta                     |
| KONORTE-MAILA               | Nahasia                                    | Buruargi                    |


### 2.3. IZAN BEHARREKO PORTAERA

- **Lehen-mailako eta bigarren-mailako balorazioa egin.**
- Shockaren **jatorria** indargabetzea: odoljarioak kontrolatzea, hausturak egonkortzea...
- Zauritutakoa **shockaren aurkako** posizioan jarri, muina kaltetua izan dela uste ezean.
- Bere kordean badago, etzan eta ahoz gora jarri; oinak 20-30 cm gorago jarri, buruko zirkulazioa errazteko.
- Konortea galdu badu albokako segurtasunezko posizioan jarriko dugu, posizio honetan mingainak ez baitu aire-fluxua oztopatzen eta okada ez baita arnasbi-detan sartuko.
- Toraxa kaltetua badago erdi eserita jarriko dugu, kaltetua izan den aldearen gainean, lesiorik ez duen birrikak normaltasunez jarrai dezan arnasketa-eginkizuna betetzen.



- Lesioa abdomenean denean, ahoz gora etzan eta bere belaunak tolestuko dira (horretarako, bildutako jantziak jarriko dira belauen azpian).
- Jantziak lasaitzea. Zauritutakoa baretzea. Ez eman likidorik, gorakada-arriskua saihesteko.
- Arinki estaliko dugu, beroa gal ez dezan.

### Shockaren aurkako posizioak:



### Shock, Lipotimia eta Komaren arteko aldeak:

Shock, sinkope (zorabio) eta komaren arteko aldeak konorte-egoeran eta pultsuan oinarritzen dira:

**SHOCKA:** zauritutakoa bere korderan dago; nahasia edo urduri agertu eta eldarnioak izan ditzake. Pulsu azkar eta ahulak.

**SINKOPEA:** Konortea galdu du une labur batez. Pultsua dauka, baina ahula.

**KOMA:** Konortea denbora luzez eta era sakonean galdu du. Pultsua dauka.

## 8. Unitatea. GALDERAK.

### 1. Zer da bihotz-biriketako geldialdia?

- a. Arnasketa eta zirkulazio espontaneoaren bat-bateko eta ustekabeko gelditzea da, potentzialki itzulgarria.
- b. Arnasketa eta zirkulazio espontaneoaren bat-bateko eta ustekabeko gelditze itzulezina da.
- c. Soilik osasun-arloko profesionalen ardurapean egon behar duen larrialdi bat da.
- d. Heriotza-arriskua duen larrialdi bat da.

### 2. Zer esan nahi dute BBB siglek?

- a. Bihotz-biriketako bizkortzea.
- b. Bihotz-buxadura bizkorra.
- c. Bihotz-biriketako blokeoa.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

### 3. Nola egiten dira konpresioak helduen BBBan?

- a. Bularrezurraren goialdean presioa eginez.
- b. Abdomenaren behealdean presioa eginez.
- c. Bularrezurraren beheko erdian presioa eginez.
- d. Saihets-hezurretan presioa eginez.

### 4. Lesio-mekanismo handiko biktima politraumatizatu orok bizkarrezur-muineko lesio bat izan dezakeela pentsatu behar da, halakorik ez duela egiaztatzen den arte.

- a. Egia.
- b. Gezurra.
- c. Egia da, baino pertsona konortetik gabe dagoenean baino ez.
- d. Egia da, eta egiaztatzeko, zutitzeko eskatuko diogu pertsonari.

### 5. Zer da "urrezko ordua"?

- a. Gorabehera gertatu eta hurrengo lehen hirurogei minutuak dira. Tarte horretan, hiltzeko aukerak murriztea eta lesio itzulgarriak tratatzea da helburua.
- b. Gorabehera gertatu eta hurrengo lehen hirurogei minutuak dira. Tarte horretan, bakarrik utzi behar da istripua izan duen pertsona.
- c. Biktimak ospitalean ematen dituen lehen hirurogei minutuak dira.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.



## 6. Politraumatizatuari zuzendutako asistentziaren faseak:

- Politraumatizatuari lagundu aurretik, egoeraren segurtasuna baloratu, autobabes-neurriak hartu eta dauden arriskuak identifikatu behar dira.
- Politraumatizatuari lagundu aurretik, 112 zenbakira deitu behar da.
- Zaurituta dagoen pertsonari lagundu aurretik, bertan medikuntza-ezagutzak dituen norbait badagoen galdetu behar da.
- Erantzun bat ere ez da zuzena.

## 7. Zauri sinpleen tratamendua:

- Zauria ur garbiarekin edo serum fisiologikoarekin "zurrustan" garbitzea, egon daitezkeen gorputz arrotzak eramateko.
- Zauria ez da manipulatu eta garbitu behar.
- Zaurituta dagoen pertsona antishock jarreran jarri behar da.
- Erantzun bat ere ez da zuzena.

## 8. Zauri sinpleen tratamendua:

- Odoljariora kapilarra bada, ez da zauria estali behar.
- Odola badario, apositu esteril batekin estali behar da.
- Odola badario, ez da zauria estali behar.
- Erantzun guztiak zuzenak dira.

## 9. Zauri larrien tratamendua:

- Zauriak gorputz arrotzak sartuta baditu, ahal bezain laster atera behar dira.
- Zauriak gorputz arrotzak sartuta baditu, finkatu egin behar dira, biktima lekualdatzean mugitu ez daitezen eta kalte gehiago eragin ez ditzaten.
- Zauriak gorputz arrotzak sartuta baditu, ur oxigenatua erabili behar da, errazago atera daitezen.
- Erantzun guztiak zuzenak dira.

## 10. Barne-odoljariorak:

- Kanpora irteten dira zuzenean, eta zauri batekin batera gertatzen dira beti.
- Ez dira kanpotik ikusten; edozein organok bota dezake odola, zuzeneko traumatismo baten nahiz gaixotasun baten ondorioz.
- Zintzilikario modukoak dira, substantziaren galerarekin.
- Erantzun guztiak zuzenak dira.

## **11. Odoljarioaren sintoma orokorra:**

- a. Larruazal zurbila eta hotza.
- b. Lepo zurruna.
- c. Estimulu mingarriei erantzutea.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

## **12. Odoljario baten tratamenduaren lehentasuna:**

- a. Norberaren eta zaurituaren segurtasuna eta bizi-arriskuko odoljarioen kontrola.
- b. Gaixotasunen transmisioa saihestea.
- c. Ingurunea higienizatuta egon dadin lortzea.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

09

JENDEAREN AURREAN AGERTU  
BEHARREKO JARRERA ETA PORTAERA.  
AUTOKONTROL EMOZIONALA.  
GATAZKAK KONPONTZEA.  
AUTOBABESA.



## 9. UNITATEA

### JENDEAREN AURREAN AGERTU. BEHARREKO JARRERA ETA PORTAERA. AUTOKONTROL EMOZIONALA. GATAZKAK KONPONTZEA. AUTOBABESA.

#### **Establezimendura edo ikuskizunera joaten diren pertsonen aurrean agertu beharreko jarrera eta tratua. Pertsonen arteko harremanak**

Onarpen-zerbitzuko langileek agertu beharreko jarrera pertsonen arteko harremanen ardatz izan behar duen errespetuaren barnean kokauta dago.

Hori azpimarratzen du Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legeak, eta ikusle eta erabiltzaileen zein titular, antolatzaile, jotzaile eta gainerako langileen eskubide eta betebeharrak gisa ezartzen du. Ikusle eta erabiltzaileen eskubideen artean, errespetuzko tratua ez-diskriminatzailea jasotzeko eskubidea dago (8.f artikulua). Aldi berean, artistak, interpretatzaileak, jotzaileak eta gainerako langileak errespetatzeko betebeharra izango dute. Era berean, titularren eta antolatzaileen betebeharren barruan, bertaratzen direnak errespetuz eta begirunez hartzeko betebeharra dago (12.2.h artikulua). Halaber, jendearentzat zabalik dauden establezimenduetako, ikuskizunetako eta jolas-jardueretako langileek bertaratuak errespetatu beharko dituzte (14.a artikulua).

Erregelamenduak ere aipatzen du errespetua, eta onarpen-zerbitzuko langileek bertaratuei eman beharreko tratua inguruko betebeharrak gehiago zehazten ditu: “Beren funtzioak betetzen ari direla, langileek ezingo dute modu arbitrarioan jokatu eta errespetuz jardun beharko dute pertsonen eskubideekin eta askatasunekin; ezingo dute alkohol edaririk hartu, ezta drogarik eta substantzia toxiko edo psikotropikorik ere; ezingo dute armarik izan aldean eta ezingo dute, era berean, segurtasun pribatuko langileentzat ezarritako funtziorik bete”. (Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Erregelamenduaren 62.2 artikulua).

Onarpen-zerbitzuko langileen zereginak egiteko, ezinbestekoa da jendearekiko zuzeneko tratua. Harreman horretan, zenbaitetan, errespetu-parametroak desagertu egiten dira, eta tirabira- edo liskar-egoerak sortzen dira. Horregatik, garrantzitsua da ez ahaztea zein den profesional horien funtzioa eta zein diren haien jarduketaren mugak: arauak argi eta garbi bereizten ditu onarpen-zerbitzuko langileen funtzioak eta segurtasuneko langileenak. Horrek esan nahi du ordena berrezartzeko esku hartu beharra eragin dezakeen egoerarik txikiena ere gertatzen denean onarpen-zerbitzuko langileek ezin izango dutela beren kabuz jokatu, eta abisua eman beharko diotela segurtasun-zerbitzuari edo, hala badagokio, ordena publikoko indarrei.

Beharrezkoa da onarpen-zerbitzuko langileek jakitea zer tresna dauden harreman horiek errespetu-baldintzetan ezartzen laguntzeko eta gatazkak saihesteko edo

bideratzeko. Ildo horretan, honako kontzeptu hauek landuko dira, besteak beste: autokontrol emozionala, emozioen identifikazioa, gizarte-trebetasunak, entzute aktiboa, enpatia eta asertibitatea.

### **Emozioak eta jokabidean duten eragina. Haserrea. Beldurra.**

Emozio bat neurri batean atsegina edo desatsegina den esperientzia afektibo bat dela esan daiteke; ezaugarri fenomenologiko bereizgarria da, eta erantzun bat (zehazki, jokabide bat) eragiten du. Emozioak, beraz, baliagarriak dira eskakizun bakoitzerako jokabide eraginkorra gauzatzeko. Adibidez, haserreak defentsa-erreakzioak errazten ditu, alaitasunak pertsonen arteko erakarpena, sorpresak estimulu berriekiko arreta eta abar. Emozioak, gainera, jokabidea bideratzen du, hots, eragindako jokabidearen helburua hurbiltzea edo saihestea errazten du.

(*Mariano Chóliz Montañés, 2005. Psicología de la emoción: el proceso emocional*). Emozioak kontrolatzeko, beharrezkoa da emozio horiek aldezturik identifikatzea. Erreakzio afektiboko eredu jakin batzuk bereizgarriak eta orokorrak dira, eta hainbat ezaugarri komun agertzen dituzte gizaki guztiengan. Alaitasuna, tristura, haserrea, sorpresa, beldurra eta nazka dira. Esan daiteke, gainera, hainbat erreakzio fisiologiko edo motor propio dituztela ezaugarri bereizgarri, baita jokabide jakin batzuk agerrarazten dituztela ere.

Hemen haserreari eta beldurrari erreparatuko diegu. Izan ere, establezimenduetan edo ikuskizunetan sartzeko egoeretan gehien agertzen direnak dira, eta gatazkak eragin ditzakete.

### **HASERREA**

- Ezaugarriak. Oldarkortasun-Etsaitasun-Haserre konplexuaren alderdi emozionala da. Etsaitasuna alderdi kognitiboari lotuta dago, eta oldarkortasuna, berriz, jokabide-alderdiari.
- Bultzatzaileak. Frustrazioa, eragindako jokabide baten etetea, bidegabeko egoerak, balio moralen aurkako erasoak, murrizketa fisikoa eta abar sortzen dituzten baldintzak.
- Jarduera fisiologikoa. Jarduera neuronal eta muskular handia. Bihotz-maiztasunaren igoera.
- Inplikaturako prozesu kognitiboak. Helburua lortzea eragozten duten edo frustrazioa eragiten duten kanpoko oztopoetan ardazten da arreta. Obnubilazioa, prozesu kognitiboak eraginkortasunez burutzeko ezintasuna edo zailtasuna ("itsututa egotea").
- Funtzioa. Autodefentsa- edo eraso-erreakzioetarako energia mobilizatzea. Helburuak lortzea eragozten duten eta frustrazioa eragiten duten oztopoak desagerraraztea.

- Esperientzia subjektiboa. Energia- eta inpulsiotasun-sentsazioa, egoera problematikoa aktiboki konpontze aldera berehala jarduteko premia (fisikoki edo hitzez). Esperientzia abertsiboa, desatsegina eta bizia da. Pazientziarik ezari lotuta dago.

## BELDURRA

- Ezaugarriak. Beldurra arrisku erreal baten aurrean agertzen den erreakzioa da, eta erantzuna arriskuaren arabera da. Antsietatea estimuluaren ustezko arriskurako biziégia da.
- Bultzatzaileak. Arriskutsuak izan daitezkeen egoerak. Askotarikoak izan daitezke, eta baliteke objektiboki arriskurik ez izatea. Egoera berriak eta misteriotsuak. Mina eta minari aurrea hartzea.
- Jarduera fisiologikoa. Bihotz-maiztasunaren azelerazioa.
- Implikatutako prozesu kognitiboak. Lehen mailako balorazioa: mehatxua. Bigarren mailako balorazioa: aurre egiteko estrategia egokirik eza. Prozesu kognitiboen eraginkortasunaren murrizketa, obnubilazioa. Ia pertzepzio osoa beldurra eragiten duen estimulan ardaztea.
- Funtzioa. Egoera arriskutsutik ihes egiteko edo egoera saihesteko erantzuna erraztea. Beldurra eragiten duen estimulari ia arreta osoa jartzeak erraztu egiten du organismoak berehala erreakzionatzea. Energia kantitate handia mobilizatzen du. Organismoak baldintza normaletan baino intentsitate handiagoarekin erantzun dezake. Erreakzioa gehiegizkoa bada, ordea, eraginkortasuna txikiagoa da.
- Esperientzia subjektiboa. Emoziorik bizi eta desatseginenetako bat da: beldur antza, sosegurik eza eta ondoeza eragiten ditu. Kezka, norberaren segurtasunarekiko eta osasunarekiko errezeloa. Kontrola galtzearen sentsazioa.

## Zer da autokontrola?

Autokontrol emozionala edozein gertaera, egoera edo pentsamenduren aurrean emozioak eta haiek gure jokabidearekin duten lotura identifikatzeko gaitasuna da. Arrazoibidea emozioekin ez lausotzea lortu behar da, horrek eragina baitu erabakiak hartzean beharrezkoa den objektibotasunean. Autokontrolak ez du esan nahi, besterik gabe, emozioei eustea eta haien arabera jokatzeko bulkadari gogor egitea, emozio horiek jokabidea erregulatzeko bideratzea baizik.

Autokontrol emozionalak presioaren aurrean erreakzionatzen jakitea, egoera estresagarrietan argiago pentsatzea eta probokazioak audenean egoeraren kontrola ez galtzea ahalbidetzen du.

Autokontrola sortzetikoa izan daiteke, baina ikasi ere egin daiteke. Badira zenbait teknika liskar-egoeretan autokontrolari eta lasaitasunari eusten laguntzen dutenak, ohituraz lantzen badira. Autokontrola lortzea lan pertsonal **kontziente eta irmo** baten emaitza da. Hona hemen teknikarik erabilienetako batzuen deskribapen laburra: (*Claudia Pradas Gallardo*)

- Arnasa sakona: erreakzio fisiologikoak kontrolatzen ditu intentsitate handiko egoerei aurre egin aurretik, aurre egitean eta aurre egin ondoren. Arnas hartze sakonak eta luzeak egiten dira, airea abdomeneraino eramanez. Kadentzia honela egin daiteke: arnas hartze sakona - laura arte zenbatu. Arnasari eutsi - laura arte zenbatu. Arnasa bota - zortzira arte zenbatu. Errepikatu.

Teknika erraza da, eta noiznahi egin daiteke.

- Pentsamenduaren gelditzea: egoeraren aurretik, egoeran bertan edo egoeraren ondoren erabil daiteke. Nolabaiteko zailtasuna du, norberaren pentsamendu negatiboak identifikatu eta positiboekin ordeztu behar baitira.
- Muskulu-erlaxazioa: teknika hau egiteko, beharrezkoa da aldez aurreko entrenamendua. Honako urrats hauek egin behar dira aplikatzeko:
  - Eroso eta lasai eseri. Begiak itxi.
  - Gorputzaren muskulu guztiak poliki-poliki erlaxatu, behatzekin hasi eta lepoarekin eta buruarekin amaituta.
  - Erlaxatu ondoren, kezkarik gabeko leku lasai batean gaudela pentsatu (hondartza batean, mendian...), ahalik eta argien. Ariketa horiek egunean behin egin behar dira, hamar minututan, ariketak automatizatzeko eta segundo gutxi batzuetan erlaxatu ahal izateko.
- Saio mentala: buruz probatzea, ager daitezkeen egoerak irudikatuta eta zer esan eta egingo den pentsatuta.
- Arrazoibide logikoa eta pentsamenduaren erregulazioa: pentsamendu negatiboen uholdea identifikatzean, pentsamendu horiek aztertzean eta logikoki arrazoitzean datza.
- Distrakzioa: larrialdi-uneetarako, sentimenduak beste era batean kontrolatu ezin direnean. Estimulu lasaigarri batekin distrakzioa saiatu behar da: liburu batekin, film batekin...
- Autoerregulazioa: praktika behar duen teknika da. Kontrola galtzen den uneak detektatzean eta idatziz jasotzean datza. Lasai egotean, egoera zerk eragin zuen eta emozioen kontrola galdu dugunean zer pentsamendu genituen pentsatu behar da. Pentsamendu eragileak identifikatzea eta emozioak erregulatzen ikastea. Horretarako, beste erlaxazio-teknika batzuk erabil daitezke.

- Entrenamendu asertiboa eta mindfulness-a: pentsamendu-uholdea erregulatzeko, tentsio emozionala erlaxatzeko, erantzun bat lantzeko edo jokabide egoki bat agertzeko teknikak dira biak.

Teknika horien deskribapenak informazio-izaera baino ez du. Batzuk errazak dira erabiltzen, baina prozesu emozionalak eta haiek kontrolatzeko modua hobeto ulertzeko, kasu zehatzetara egokitutako prestakuntza espezifiko praktiko bat jaso behar da.


**Gatazka-egoerak eta erasoak. Etsaitasunaren kurba. Prebenitzea eta jardutea.**  
(*Prebentzioa/jarduketa gatazka-egoeren eta erasoen aurrean. Murtziako Administrazio Publikoko Eskola*).

Kontuan hartu behar da gizarte- eta giro-faktoreek pertsonen erreakzioetan duten eragina. Ez da gauza bera antzoki baten sarreran lan egitea eta modako diskoteka batean gauzez lan egitea; bezeroen tipologia eta jarrera guztiz desberdina da. Era berean, kontuan hartu behar da alkoholaren edo drogen kontsumoak haien eraginpean dauden pertsonen portaeretan eta kontrol-galeretan duen eragin handia.

Kontuan hartu behar dira, halaber, jarduerari lotutako beste faktore batzuk, hala nola jarduera edozein arrazoiengatik atzeratu izana, artistaren batek jarduterik ez izatea, informazio nahikorik ez izatea edo antolaketan neurri batean koordinaziorik ez egotea. Faktore horiek jendearen etsaitasunezko erreakzioen edota erreakzio agresiboen agerpena bultzatzen dezakete.

#### Etsaitasunaren patroia emozionala: etsaitasunaren kurbaren faseak

Etsaitasun- edo haserre-erreakzio batek aktibazio emozionaleko patroia bati jarraitu ohi dio. Kurbari esker, arazoa zentzuzko egoera emozional batera bideratzeko zer puntu kritikotan esku har daitekeen jakin dezakegu. Hona hemen Allaire-k eta McNeill-ek proposatutako etsaitasunaren kurbaren faseak:





1. fasea. Maila arrazionala. Pertsona gehienak zentzudunak dira, horixe da ohiko egoera. Egoera horretan, elkarreragin eta arazoak konpon daitezke.

2. fasea. Irteera. Pertsonak bere emozioak askatzen ditu haserreak metatzen direnean edo deseroso edo etsaitasunezko gisa interpretatutako egoera bat agertzen denean. Une horretan, ez zaio probokazioari erantzun behar; autokontrola erabili behar da. Pertsonari haserrea askatzen eta barrena husten utzi behar zaio. Ez da arrazoitzen saiatu behar; horren ordez, entzute aktiboa erabili behar da, pertsona esaten ari denari arreta jarri behar zaio.

3. fasea. Moteltzea. Intentsitate handiko erreakzioak (geure onetik aterata egotea) oso nekagarriak dira. Horregatik, laburrak izan ohi dira. Amaitzen direnean, pertsona lasaitzen hasten da. Une horretan, oraindik ez da irtenbide bat bilatzen saiatu behar, itxaron egin behar da beste pixka batean, pertsonak adierazpen batzuk probokaziotzat har baititzake (“Arren, ez hitz egin horrela niri...”, “Oihuka eta irainka jarraitzen baduzu, segurtasunekoei deituko diet...”, “Lasaitu zaitetz...”).

Fase honetan, ez da esku hartu behar oraindik. Entzute aktiboarekin jarraitu behar da eta pertsonari laguntzen ari gatzazkiola ulertarazi behar zaio, zuzen begiratuta (desafiorik gabe) eta buruarekin baietz adieraziz, esaten ari dena kontuan hartzen ari garela ikus dezan.

Entzute aktiboan, enpatia agertu behar da, hau da, beste pertsonaren errealitatea kontuan hartuko da eta haren premiak, aurreikuspenak eta egoera ulertuko dira, bizitzen ari den moduan.

4. fasea. Aurre egitea. Fase honetan esku hartu behar da. Une horretan esaten denak egoera lasaitzen lagunduko du. Sutan jarri den pertsonari entzun eta ulertu zaiola erakutsi behar zaio. Horrek ondoeza desagertzen lagunduko du.

Pertsonari bere arazoa konpontzeko hainbat soluzio eman dakizkioke, haren ikuspuntuarekin bat ez bagatoz ere. Lagundu nahi diogula ikusarazi behar zaio. Honako hau esan daiteke, adibidez: “ulertzen dut nola sentitzen zaren” edo “ulertzen dut arazoa”. Hori lagungarria izango da hurrengo fasera igarotzeko.

5. fasea. Hoztea. Bertaratuari edo ikusleari ulertu diogula erakustea lortu badugu eta hark ulertu badu, pertsona lasaitu egingo da eta harekin hitz egiteko aukera izango dugu.

6. fasea. Arazoak konpontzea. Hoztu ondoren, pertsona egoera arrazionalera itzultzen da. Une horretan saiatu behar da arazoa konpontzen, gure esku badago.

## Zer egin eta zer saihestu behar da suminduta dauden eta etsai-jarrera duten pertsonen aurrean?

### EGIN BEHAR DENA

- Esplizitua ez den ahozko mehatxu zoli baten aurrean, onena ez entzunarena egitea da, bestela handiagoa izango baita zuzeneko eraso bat gertatzeko aukera.
- Ahozko indarkeria esplizitua eta zuzeneko badago, probokazioei ez erantzuteko ahaleaginean jarraitu beharra dago, urduri jarri gabe.
- Ahal baldin bada, erasotzaileak oraindik nolabaiteko harmena badu, egoera kontrolatzen saiatzea eta, horretarako, asertibitatea eta enpatia erabiltzea.
- Egoera gidatu ezean, segurtasun-distantzia bat ezartzea eta ihes-bide batetik ahalik eta hurbilen kokatzea, erasotzaileari begira.
- Aurrekoa ezinezkoa bada eta indarkeria-maila gero eta handiagoa bada, segurtasunekoei edo poliziari deitzea.

### Jarrerak eta jokabideak:

- Fisikoki solaskidearengana orientatzea.
- Kontaktua horrelako esaldiekin hastea:  
"Esan", "Zertan lagun diezazuket?".
- Harrera-jarrera bat agertzea.
- Begirada solaskidearengana bideratzea.
- Hizkera hurbila eta lasaia erabiltzea.
- Buruarekin baiezko keinuak egitea.
- Horrekin bat etorriko den aurpegiera agertzea.

**EGIN BEHAR EZ DENA:**

- Adi egoteari uztea, batez ere ikuskizun motagatik, ordutegiagatik, bertaratutako jendeagatik eta abar gatazkak sor daitezkeela aurreikusten den lokalen edo ikuskizunen kasuan.
- Ahozko erasoei erantzutea eta erasotzailea iraintzea, aurre egitea, desafiatzea edo jotzea.
- Erasotzailearen eskuak bistatik galtzea edo erasotzaileari bizkar ematea.
- Egoerei eta ustez era gatazkatsuan joka dezaketen pertsonei bakarrik aurre egitea eta, era horretan, eraso bat jasateko arriskua izatea.
- Egoerari jaramonik ez egitea, horren bidez gatazka areagotzen dela ikusten bada.
- Erasoari neurritz kanpo eta neutralizatze soilak gainditzeko helburuarekin erantzutea.

**Saihestu beharreko jarrerak eta jokabideak:**

- Gehiegi hurbiltzea.
- Begizko kontaktu luzea.
- Honelako esaldiak erabiltzea: "Zer gertatzen da?", "Zertara datoz oihu horiek?"
- Gorputz-hizkuntza desafiatzailea.
- Esaldi larderiatsuekin hitza kentzea: "Zer uste duzu?", "Aizu!".
- Hizkera ozena, zakarra eta larderiatsua erabiltzea.
- Bizkar ematea edo eriaz erakustea.
- Eskerak modu txarrez baztertzea.

Halaber, "amorrutazleak" balioesten jakin behar da bertaratuaren edo erabiltzailearen komunikazio ez-ahozkoan, erasoak sor baitaiteke honako baldintza hauetan:

- Hizkera-aldaketak.
- Jarrera kontrolatua.
- Eskuak (ukabil itxiak).
- Begirada finkoa, begi-kliskarik gabe eta burua geldia.
- Zurbiltasuna, izerdia.
- Ezinegona mugimenduetan.
- Esaldiak errepikatzea.

## Jendearekin hitz egiteko teknika asertibo batzuk.

Hainbat estrategia daude pertsonen arteko komunikazioan laguntzeko. Entzute aktiboaren bidez, beste pertsonak esaten duenari jartzen zaio arreta, haren ikuspuntua hartzen da kontuan, eta **HAREN EGOERA EMOZIONALA ULERTZEN DELA HELARAZTEN DA. HORREK EZ DU ESAN NAHI GURE JARRERAN AMORE EMAN BEHAR DUGUNIK, ARRAZOIZKO DISKURTSO ADOSTAILE BAT GARATZEN SAIA**tu behar dugula baizik. Asertibitatea norberaren ikuspuntua beste pertsona batzuei eraso gabe eta beste pertsona batzuen borondateari men egin gabe azaltzea da.

Teknika asertiboak baliagarriak dira gatazkarik ez sortzeko eta amorrueztandak hozteko.

- **Disko akastunaren teknika.** Argudio bera behin eta berriz azaltzean datza, eztabaidatze, galdera, xantaia edo bortxei erantzun gabe. Solaskideak ezezkorik onartzen ez duenean erabili ohi da. Era neutroan eta etsaitasunik gabe erabili behar da. ("Sentitzen dut, dagoeneko 3:00ak dira eta establezimendua itxita dago").

- **Lainogunearen edo klaudikazio simulatuaren teknika.** Neurri batean arrazoia ematen zaio beste pertsonari hasieran, eta iritzi propioa azaltzen zaio argi eta garbi geroago. (Adibidez, pertsona bat sarrera faltsu batekin joaten bada eta protestatzen hasten bada: "Lapur hutsak zarete! 200 euro ordaindu ditut sarrera honen truk!". "Bai, egia da, sarrerak garesti samarrak dira; hala ere, ekitaldi honetako sarrerak eta erakutsi didazuna desberdinak dira").

- **Geroratze asertiboa.** Baieztapen desafiatzaileari eman beharreko erantzuna lasaiago egon daitekeen une batera arte geroratzea. (Adibidea: "Lapur hutsak zarete! 200 euro ordaindu ditut sarrera honen truk!". "Bai, bai, mesedez, itxaron hemen pixka batean, talde hau pasatu arte; atea zaindu behar dut, berehala egongo naiz zuekin").

- **Galdera asertiboaren teknika.** Azalpenak eskatzean, solaskidea kexatzera eraman duten argudioak azaltzera bultzatzean eta zer eskatzen ari den garbi edukitzean datza. ("Azal iezadazu, mesedez, ea konpon dezakegun").

Kontzeptu, estrategia eta teknika horiek guztiak gatazkak saihestera, gatazkak hitzez konpontzera, amorrueztandak baretzera edo, behintzat, egoera hozteko hartzeko beharrezko denbora igarotzen uztera bideratuta daude. Hala ere, zenbaitetan erasoak edo kalteak eragiten dituzten indarkeriazko portaerak agertzen dira. Egoera horiek konpontzeko soluzioa ez dute onarpen-zerbitzuko langileek eman behar: segurtasun pribatuak edo, hala badagokio, segurtasun-indarrek esku hartu beharko dute.

## Autobabes pertsonala eta defentsa pertsonala

Helburua da pertsonak beren burua defendatzeko eta bidezko agintariak iritsi arte beren segurtasuna zaintzeko beharrezko neurriak hartzeko gai izatea.

Defentsa pertsonala eraso baten aurrean babesteko tekniketara bideratuta dago; autobabes pertsonala, berriz, prebentiboagoa da: ondorioak txikiagotzeko eta arrisku-egoeretatik irteteko teknikak hartzen ditu barnean.

Onarpen-zerbitzuko langileek armarik ez dutela eta haien eginkizuna segurtasuna eta ordena zaintzea ez dela kontuan hartuta, garrantzitsuena da haien osotasun fisikoa ez kaltetzea; hau da, ez dute establezimenduko segurtasuna babestu behar, ez dute deliturik eragotzi behar, eta ezin zaie eskatu mehatxu-egoerei aurre egitea, pertsona normal bati baino neurri handiagoan bederen.

Hori dela eta, erasoaren kasuan, honako hau gomendatzen da:

- Norberaren osotasun fisikoa zaintzeko lehen ekintza: ihes egitea, liskarra saihestea. Gehienetan, lokalaren edo ikuskizunaren tipologiaren arabera, nahikoa izango da sartzearekin eta erasotzaileari sarrera eragoztearekin. Gainera, arriskutsuak izan daitezkeen ekitaldi edo egoeretan, ohikoena segurtasuneko langileak (betiere beren funtzioak betetzerakoan) sarbideetatik hurbil kokatzea izaten da, onarpen-zerbitzuko langileez gain.
- Jendearen jarrerei arreta jarri behar zaie, amorrueztandei eta probokazioei aurrea hartzeko. Halaber, inguruneari jarri behar zaio arreta.
- Erasoa gertatzen bada, gorputzaren atalik sentikorrenak babesten saiatu behar da (burua eta lepoa). Inguruan dauden elementuak erabil daitezke babesteko: establezimenduko ateak, hiri-altzariak, autoak eta abar. (Adibidez, lurrera eroriz gero, burua eserleku baten edo auto baten azpian sartzea, kolpeez babesteko).

Ihes egitea ezinezkoa bada, eraso saihetsezina bada eta defendatu beharra badago, defentsa-neurrien helburu bakarra erasotzailearen ekintza neutralizatzea eta ihesa ahalbidetzea izango da. Modulu honen xedea ez da defentsa pertsonala praktikan jartzeko moduari buruzko argibideak ematea, prestaketa eta entrenamendua behar duen arloa baita. Defentsarik onena emozioek jokabideak zuzentzen dituzten egoera batera iristeko aukera saihestea da, pertsonen arteko elkarriketa-harreman batera bideratu ahal izan dadin.

## 9. Unitatea. GALDERAK.

### 1. Onarpen-zerbitzuko langileek edan al ditzakete edari alkoholdunak beren funtzioak betetzen dituzten aldian?

- a. Ez.
- b. Bai.
- c. Bai, egoerak eskatzen badu.
- d. Alkohola edan dezakete, baina ezin dute drogarik eta substantzia psikotropikorik kontsumitu.

### 2. Ondorengo esaldietatik, zein dator bat "emozio" terminoaren definizioarekin?

- a. Esperientzia aberasgarria.
- b. Esperientzia afektibo desatsegina.
- c. Esperientzia afektibo atsegina.
- d. Erantzun-jokabide jakin bat eragiten duen esperientzia afektiboa.

### 3. Autokontrol emozionala:

- a. Edozein gertaera, egoera edo pentsamenduren aurrean emozioak eta haiek gure jokabidearekin duten lotura identifikatzeko gaitasuna da.
- b. Gainerakoen emozioak kontrolatzeko gaitasuna da.
- c. Gainerakoen emozioen kontrola lortzeko gaitasuna da.
- d. Norbera kontrolatzeko eta arrisku-egoeretan ez jarduteko gaitasuna da.

### 4. Autokontrol emozionalak:

- a. Emozioei eustea esan nahi du.
- b. Emozioen arabera jokatzeko gogoari eustea esan nahi du.
- c. Emozioei eustea ez ezik, emozioak jokabidea erregulatzeko xedez bideratzea ere esan nahi du.
- d. Estresa eragiten duten egoerak saihesten ditu.

### 5. Zer da etsaitasunaren kurba?

- a. Etsaitasun- edo haserre-erreakzio baten aktibazio emozionaleko patroia irudikapen grafikoa.
- b. Liskarra saihesteko esku hartu behar dela adierazten duen puntua.
- c. Autokontrol-teknika bat.
- d. Defentsa pertsonaleko teknika bat.

**6. Etsaitasunaren kurba. 2. fasean (irteera-fasean):**

- a. Une horretan, ez zaio probokazioari erantzun behar; autokontrola erabili behar da.
- b. Bizkor jokatu behar da, egoera hoztu baino lehen.
- c. Ez zaio kasurik egin behar fase horretan dagoen pertsonari.
- d. Pertsonari ez zaio utzi behar barrena husten.

**7. Etsaitasunaren kurba. 3. fasean (moteltze-fasean):**

- a. Pertsonak biziki erreakzionatzen jarraitzen du, hirak ematen dion energiarekin.
- b. Ez da irtenbiderik bilatu behar pertsona lasaitzen hasten den unean, itxaron egin behar da pixka batean.
- c. Pertsonari aurrez aurre begiratu behar zaio, desafioz.
- d. "Arren, ez hitz egin horrela niri" moduko esaldiak erabili behar dira.

**8. Zer egin behar da suminduta dauden eta etsai-jarrera duten pertsonen aurrean?**

- a. Esplizitua ez den ahozko mehatxu zoli baten aurrean, ez entzunarena egitea da onena, bestela handiagoa izango baita zuzeneko eraso bat gertatzeko aukera.
- b. Esplizitua ez den ahozko mehatxu zoli baten aurrean, norbera aipatutzat jotzea da onena, mugak ezartzeko.
- c. Ahozko eta zuzeneko indarkeria esplizituaren kasuan, probokazioei erantzutea.
- d. Ahozko eta zuzeneko indarkeria esplizituaren kasuan, erasotzailea immobilizatzea.

**9. Zer egin behar da suminduta dauden eta etsai-jarrera duten pertsonen aurrean?**

- a. Esplizitua ez den ahozko mehatxu zoli baten aurrean, norbera aipatutzat jotzea eta zuzeneko eraso bizkortzea da onena.
- b. Egoera gidatu ezin bada eta indarkeria-maila gero eta handiagoa bada, segurtasunekoei edo poliziari deitzea.
- c. Ahozko eta zuzeneko indarkeria espliziturik ez badago, ez dago inolako arazorik.
- d. Ahozko eta zuzeneko indarkeria esplizituaren kasuan, probokazioei erantzutea, mugak ezartzeko.

## **10. Ondorengoetako bat suminduta dagoen eta etsai-jarrera duen pertsona baten aurrean agertu beharreko jarrera edo jokabide bat da:**

- a. Begirada solaskidearengana bideratzea.
- b. Ahozko erasoei erantzutea eta erasotzailea iraintzea, aurre egitea, desafiatzea edo jotzea.
- c. Erasotzailearen eskuak bistatik galtzea edo erasotzaileari bizkar ematea.
- d. Egoerei eta ustez era gatazkatsuan joka dezaketen pertsonen bakarrik aurre egitea eta, era horretan, eraso bat jasateko arriskua izatea.

## **11. Teknika asertibo bat: disko akastunaren teknika:**

- a. Argudio bera behin eta berriz azaltzean datza, eztabaidatze, galdera, xantaia edo bortxei erantzun gabe.
- b. Hasieran beste pertsonari neurri batean arrazoia ematean eta geroago iritzi propioa azaltzean datza.
- c. Baieztapen desafiataileari eman beharreko erantzuna lasaiago egon daitekeen une batera arte geroratzean datza.
- d. Probokazioei entzungor egitean eta, aldi berean, melodia errepikakor bat ahapetik kantatzean datza.

## **12. Indarkeriazko egoerei irtenbidea ematea onarpen-zerbitzuaren funtzioa da.**

- a. Egia.
- b. Gezurra.
- c. Kontratuan hori jasota dagoenean baino ez.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.



## **Bibliografia:**

- Conceptos básicos de primeros auxilios: Academia Vasca de Policía y Emergencias.
- “12 Técnicas de Control Emocional”, Claudia Pradas Gallardo. Revista de psicología online.
- “Prevención-actuación ante situaciones conflictivas y agresiones”. Escuela de Administración Pública de Murcia, 2013.
- “Psicología de la emoción: el proceso emocional”. Mariano Chóliz Montañés, 2005.

## ERANTZUNAK

### 1. Unitatea

1.d    2.a    3.a    4.a    5.a    6.a    7.a    8.a

### 2. Unitatea

1.a    2.a    3.a    4.a    5.a    6.a    7.a    8.a    9.a    10.b

### 3. Unitatea

1.a    2.a    3.a    4.c    5.a    6.a    7.a    8.d    9.a    10.a

### 4. Unitatea

1.a    2.a    3.c    4.a    5.b    6.c    7.d    8.b    9.d    10.c

### 5. Unitatea

1.a    2.a    3.a    4.a    5.a    6.a    7.a    8.a    9.b    10.a    11.a    12.a  
13.a    14.a    15.a

### 6. Unitatea

1.d    2.a    3.c    4.b    5.d    6.b    7.a    8.b    9.a    10.a    11.a    12.a  
13.a    14.b    15.a    16.a    17.a    18.a    19.a    20.a

### 7. Unitatea

1.a    2.a    3.a    4.d    5.a    6.a    7.a    8.d    9.c    10.c

### 8. Unitatea

1.a    2.a    3.c    4.a    5.a    6.a    7.a    8.b    9.b    10.b    11.a    12.a

### 9. Unitatea

1.a    2.d    3.a    4.c    5.a    6.a    7.b    8.a    9.b    10.a    11.a    12.b

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO